Garraio-sektorearen BEGa azpisektoreka banatzen badugu, nabarmentzekoa da garraioarekin lotutako jarduerak sektoreko BEGaren % 41,7 hartu zutela, eta sektorean proportzio handieneko eremua zela. Merkantzien lurreko garraioak³ BEGaren % 29,9 bildu zuen, eta bigarren postuan mantendu zen. Hirugarrenik, pertsonen lurreko garraioa⁴ dago, sektore osoaren % 19,6 sortu baitzuen. Horren atzetik, treneko jarduerak sektorearen % 5,3 bildu zuen. Jarduera ekonomikoaren gaineko parte-hartze txikiena izandako arloak itsasoko garraioa (% 1,8) eta airekoa (% 1,7) izan ziren.

1.5 grafikoa EAEko garraio-sektorearen BEGd-aren banaketa azpisektoreen arabera. 2024¹(%).



¹ 2024ko BEGd-aren datua aurrerapen bat da.

* Lurreko bidaia-erien: bidaia-erien hiriko eta hiri inguruko lurreko garraioa, taxi bidezko garraioa eta nonbait sailkatu gabeko bidaia-erien lurreko beste garraio mota bat.

** Salgaien lurreko garraioa: salgaien garraioa errepide bidez, mudantza-zerbitzua eta hoditeria bidezko garraioa.

Iturria: Eustat (Kontu Ekonomikoak, EJSN-2009 eta EKS -10).

³ Merkantzien lurreko garraioa: errepide bidezko merkantzien garraioa, etxe-aldaketetarako zerbitzuak eta hodi bidezko garraioa.

⁴ Bidaia-erien lurreko garraioa: bidaia-erien hiriko eta hiri inguruko lurreko garraioa, taxi bidezko garraioa eta beste toki batean sailkatuta ez dagoen bidaia-erien lurreko beste garraiobideren bat.



b) Lurralde mailako presentzia

1.2 koadroa Garraio-sektoreko establezimenduak eta enplegua, azpisektoreen eta lurralde historikoen arabera. EAE. 2024.



	Araba		Bizkaia		Gipuzkoa		EAE	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Establezimenduak								
Bidaia-erien lurreko garraioa*	281	12,2	1.348	58,6	673	29,2	2.302	100
Salgaien errepideko garraioa	806	13,8	3.229	55,4	1.793	30,8	5.828	100
Bidaia-erien hirien arteko garraioa trenez	3	3,5	55	65,5	26	31,0	84	100
Salgaien garraioa trenez	1	16,6	4	66,7	1	16,7	6	100
Hodi-sare bidezko garraioa	2	40,0	2	40,0	1	20,0	5	100
Bidaia-erien itsas garraioa eta barruko bide nabigagarrietatik eginikoa	1	2,5	25	62,5	14	35,0	40	100
Salgaien itsas garraioa eta barruko bide nabigagarrietatik eginikoa	0	0,0	16	94,1	1	5,9	17	100
Bidaia-erien aireko garraioa	3	23,1	8	61,5	2	15,4	13	100
Salgaien aireko garraioa	0	-	0	-	0	-	0	-
Lurreko garraioari atxikitako jarduerak	41	16,3	132	52,6	78	31,1	251	100
Itsas garraioari eta barruko bide nabigagarrietatik eginikoari atxikitako jarduerak	0	0,0	66	75,9	21	24,1	87	100
Aireko garraioari atxikitako jarduerak	7	22,6	17	54,8	7	22,6	31	100
Lurreko garraioari atxikitako gainerako jarduerak**	135	19,0	371	52,3	204	28,7	710	100
GUZTIRA	1.280	13,6	5.273	56,3	2.821	30,1	9.374	100
Enplegua								
Bidaia-erien lurreko garraioa*	1.371	15,7	4703	53,7	2.681	30,6	8.755	100
Salgaien errepideko garraioa	2.922	17,5	7.167	42,9	6.621	39,6	16.710	100
Bidaia-erien hirien arteko garraioa trenez	18	1,2	1150	76,2	342	22,6	1.510	100
Salgaien garraioa trenez	(***)	(***)	22	40,7	(***)	(***)	54	100
Hodi-sare bidezko garraioa	(***)	(***)	(***)	(***)	(***)	(***)	27	100
Bidaia-erien itsas garraioa eta barruko bide nabigagarrietatik eginikoa	(***)	(***)	43	53,1	38	46,9	81 y (***)	100
Salgaien itsas garraioa eta barruko bide nabigagarrietatik eginikoa	0	--	290 y (***)	95,7	13	4,3	303 y (***)	100
Bidaia-erien aireko garraioa	(***)	(***)	530	93,0	(***)	(***)	570	100
Salgaien aireko garraioa	0	-	0	-	0	-	0	-
Lurreko garraioari atxikitako jarduerak	234	9,4	1.215	49,0	1.032	41,6	2.481	100
Itsas garraioari eta barruko bide nabigagarrietatik eginikoari atxikitako jarduerak	0	0,0	934	85,2	162	14,8	1.096	100
Aireko garraioari atxikitako jarduerak	445	46,4	449	46,8	65	6,8	959	100
Lurreko garraioari atxikitako gainerako jarduerak**	2.857	31,9	4.259	47,5	1.849	20,6	8.965	100
GUZTIRA	7.875	19,0	20.771	50,0	12.867	31,0	41.513	100

(*) Barnean hartzen ditu hiriko eta hirien arteko garraioa errepidez eta beste lurreko garraio-mota batzuk (trena, funikularrak eta abar), betiere hirikoak eta hirialdekoak badira.

(**) Barnean hartzen ditu garraiatzeko hainbat modurekin uztartutako jarduerak, bidaia-erien nahiz salgaienak (EJSN 2009ko talde hauek: 5210, 5224 eta 5229).

(***) Informazio hori ez da eman, estatistika-sekretua gordetzeko. EAEko datuetan gehituta dago.

Iturria: Eusko Jaurlaritza.



Laburpen
Exekutiboa

0

Esparru
Orokorra

1

Bilakaera
Orokorra

2

Errepide
Bidezko
Garraioa

3

Tren
Bidezko
Garraioa

4

Aire
Bidezko
Garraioa

5

Itxaso
Bidezko
Garraioa

6

Beste
Garraiobide
Batzuk

7

Ondorio
eta Joera
Nagusiak

8

Helburuak eta
Mugikortasun
Jasagarria

9

Funtsezko
Adierazleak

10

Eranskinak

11

Lurralde historikoen arabera, Bizkaian zeuden jarduera-zentroen erdia baino gehiago (% 56,3), eta sektoreko langileen erdia. Hala, 5.273 establezimendu zeuden, eta 20.771 pertsonak egiten dute lan horietan. Gipuzkoan zeuden instalazioen % 30,1, eta langileen % 31. Horrek esan nahi du 2.821 kokapen zeudela, eta 12.867 soldatapeko langile. Araban kokatutako zentroak EAEko enpleguaren % 13,6 biltzen zuten, eta EAEko enpleguaren % 19. Beste era batera adierazita, Arabako 1.280 establezimendutan 7.875 langile enplegatzen ziren.

Informazio ekonomikoa osatzeko, garraiorako enpresei eta baimenei buruzko zifrak aztertu ditugu. Hala, agerian geratu dira garraiolarien lanak egiten dituzten enpresen jarduera ekonomikoaren bilakaera eta koiuntura. Garraio-sektorearen zati esanguratsua osatzen dute horiek. Baimenak garraio-jarduerarako lizentziarekin erregistratutako ibilgailu kopuruari dagozkionak dira eta baimen-txartel motaren eta ibilgailu motaren arabera banakatuta azaltzen dira. Bidaia-arien garraioaren kasuan, 2023tik aurrera ez dira aintzat hartzen taxien enpresak.

1.3 koadroa Bidaia-arien garraiorako enpresak eta baimenak nola dauden banatuta Lurralde Historikoetan. EAE. 2024.

		Araba		Bizkaia		Gipuzkoa		EAE	
		Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
VD: Autobus Diskrezionala	Enpresak	14	11,0	75	59,1	38	29,9	127	100
	Baimenak	370	16,3	1240	54,5	666	29,3	2276	100
VT: Taxiak, A edo B motako baimenak	Enpresak*	0	--	0	--	0	--	0	100
	Baimenak	234	11,2	1230	59,0	621	29,8	2085	100
VS: Anbulantzia	Enpresak	2	40,0	0	0,0	3	60,0	5	100
	Baimenak	8	2,4	0	0,0	321	97,6	329	100
VSPC: Anbulantzia pribatu osagarria	Enpresak	1	25,0	2	50,0	1	25,0	4	100
	Baimenak	1	5,0	11	55,0	8	40,0	20	100
ASC: Gidaririk gabeko alokairua	Enpresak*	0	--	0	--	0	--	0	--
	Baimenak	0	--	0	--	0	--	0	--
VTC: Gidaridun turismo-ibilgailua	Enpresak	0	--	0	--	0	--	0	--
	Baimenak	123	49,0	95	37,8	33	13,1	251	100
VPC: Garraio pribatu osagarria	Enpresak	1	10,0	4	40,0	5	50,0	10	100
	Baimenak	1	2,6	32	84,2	5	13,2	38	100
Guztira EAEn	Enpresak	18	12,3	81	55,5	47	32,2	146	100
	Baimenak	737	14,7	2.608	52,2	1.654	33,1	4.999	100

Iturria: Sustapen Ministerioa.

Bidaia-arien garraioari dagokionez, enpresak eta baimenak lurraldeen arabera banatzen baditugu, agerian geratzen da konpainien erdia baino gehiago Bizkaian finkatuta zegoela (% 55,5); bertan, 81 sozietate zeuden, eta pertsonak garraiatzeko 2.608 lizentzia zeuden (% 52,2). Gipuzkoan, berriz, herritarrek garraiatzeko baimena zuten enpresen eta ibilgailuen herena zegoen: 47 enpresa (% 32,2) eta 1.654 baimen (% 33,1). Araban, 18 enpresa (% 12,3) eta 737 baimen (EAE osoan emandako baimenen % 14,7) zeuden.



1.4 koadroa Salgaien garraiorako enpresak eta baimenak nola dauden banatuta Lurralde Historikoetan. EAE. 2024.

		Araba		Bizkaia		Gipuzkoa		EAE	
		Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
MDL: salgai diskrezional arinak	Enpresak	348	15,6	1.252	56,1	630	28,3	2.230	100
	Baimenak	565	15,9	2.033	57,1	961	27,0	3.559	100
MDP: salgai diskrezional astunak	Enpresak	469	14,2	1.747	52,8	1095	33,1	3.311	100
	Baimenak	2.026	14,9	5.660	41,7	5.883	43,4	13.569	100
MPC: Garraio pribatu osagarria	Enpresak	277	19,3	670	46,7	488	34,0	1.435	100
	Baimenak	711	20,1	1.660	47,0	1160	32,9	3.531	100
OT: Garraio-operadorea (garraio-kudeatzaileak eta biltegizainak)	Enpresak	0	--	0	--	0	--	0	--
	Baimenak	64	14,5	217	49,2	160	36,3	441	100
Guztira EAEn	Enpresak	1.094	15,7	3.669	52,6	2.213	31,7	6.976	100
	Baimenak	3.366	16,0	9.570	45,4	8.164	38,7	21.100	100

Iturria: Sustapen Ministerioa

Merkataritza-jarduerari dagokionez, Bizkaiak sozietateen erdia baino gehiago eta lizentzien % 45,4 bildu zituen, eta 3.669 enpresa (% 52,6) zituen, 9.570 baimenekin. Gipuzkoan zeuden merkantzien garraioan lanean ari ziren konpainien herena baino gehiago, eta baimen-ehunekoen handiena ere bertan zegoen: 2.213 enpresa (% 31,7) eta 8.164 ibilgailu baimendu (% 38,7). Amaitzeko, Arabak produktuak garraiatzeko baimena zuten 1.094 enpresa zituen (% 15,7), eta 3.366 lizentzia (EAEko kopuru osoaren % 16).

1.5 koadroa Bidaia- eta salgaien garraiorako enpresen eta baimenen bilakaera EAEn. 2018-2024.

		EAE								
		2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024	Δ 24/18	Δ 24/23
Bidaia- eta salgaien garraioa	Enpresak	2.355	2.347	2.383	2.356	2.136	142	179	-92,4	26,1
	Baimenak	5.339	4.816	4.911	5.015	4.902	4.959	4.966	-7,0	0,1
Salgaien garraioa	Enpresak	6.170	6.340	7.631	6.159	6.256	7.861	6.976	13,1	-11,3
	Baimenak	14.772	15.699	17.540	15.709	15.648	18.646	21.100	42,8	13,2
Guztira EAEn	Enpresak	8.525	8.687	10.014	8.515	8.392	8.003	7.155	-16,1	-10,6
	Baimenak	20.111	20.515	22.451	20.724	20.550	23.605	26.066	29,6	10,4

Iturria: Sustapen Ministerioa

EAEko garraio-enpresek eta -baimenek denborarekin izandako bilakaera aztertzen badugu, 2018arekin alderatuta, pertsonen garraioan lan egiten duten sozietateek jaitsiera (-% 92,4) izan dutela ikusiko dugu. Beherakada hori taxi-konpainiak zenbaketatik kanpo utzi izanak eragin du. Bestalde, horiei lotutako lizentzietan % 7ko jaitsiera gertatu zen. Aldiz, merkantzien garraioan aritzen diren enpresak % 13,1 hazi ziren, eta % 42,8ko igoera izan zuten produktuak garraiatzeko ibilgailuen baimenetan. 2023ko datuekin alderatuta, bidaia- eta salgaien garraiorako enpresek % 26,1 egin zuten gora (+37 enpresa), eta baimenek bere horretan jarraitu zuten (+% 0,1). Merkantzien garraioari dagokionez, konpainiek % 11,3 egin zuten behera (-885 sozietate), eta emandako lizentziek, berriz, % 13,2 egin zuten gora (2023an baino +2.454 baimen gehiago).

c) Laneko kostua

Hurrengo atalean, garraio-jardueraren baitako azpisektoreetako langile bakoitzeko hileko laneko kostua eta ekonomia osoko (lehen sektorea izan ezik) langile bakoitzeko hileko batez besteko





laneko kostua alderatuko ditugu. Hala, garraio-sektorearen eta ekonomia osoaren arteko ezberdintasunak hartuko ditugu aintzat.

EINen laneko kostuaren hiruhilekoko inkestatik (LKH) ateratako informazioa hartu dugu oinarritzat kalkuluak egiteko. Urteko batez besteko datuak eurotan adierazita daude, eta aipatutako erakunde estatistikoak argitaratutako hiruhilekoko balioen batezbestekoak dira. Azterketa Estatu mailan egin dugu; izan ere, kasu horretan bakarrik lor dezakegu EJNS-09ko dibisioekin lotutako informazioa eta, horri esker, garraioaren azpisektoreekin lotutako informazioa lor dezakegu.

2024an, aurreko ekitaldiarekin alderatuta, hobera egin zuen langile bakoitzeko batez besteko laneko kostuak garraioaren azpisektore guztietan. Lurreko eta hoditeria bidezko garraioa eta aireko garraioa ekonomia osoaren batezbestekoaren gainetik hazi ziren (+% 4, 2023koarekin alderatuta). Zehatzago esanda, aireko jardueran hileko batez besteko soldata % 5,7 igo zen, eta lurreko garraioan % 5,4. Biltegiatzearen eta horri lotutako jardueren atalean, langile bakoitzaren batez besteko kostua % 3 igo zen, eta itsas jardueran eta nabigazio-bideetan erregistratutako igoera % 1,5koa izan zen 2023ko datuekin alderaketa eginez gero.

1.6 koadroa Lan-kostua langileko eta hilabeteko. Egoera. 2023-2024.

	Laneko kostu osoa		Urtetik urterako aldaketa (%)
	2023	2024	
Ekonomia guztira (lehen sektorea kenduta)	2.994	3.113	+4,0
Lurreko garraioa eta hodi-sare bidezko garraioa	3.021	3.185	+5,4
Itsas garraioa eta barruko bide nabigagarrietatik eginikoa	3.303	3.354	+1,5
Aireko garraioa	4.769	5.042	+5,7
Biltegiatzea, eta garraioarekin uztartutako jarduerak	3.474	3.577	+3,0

Iturria: Kostuaren hiruhileko inkesta (LKH), Estatistikako Institutu Nazionala (EIN).

d) *Prezioen bilakaera*

2024an, garraio-sektoreko kontsumoaren prezioen indizea % 0,9 igo zen aurreko ekitaldiarekin alderatuta, eta hazkunde hori ekonomia orokorraren indizearena baino baxuagoa izan zen (+% 3,6). Kategoria guztietan sumatu zen KPIaren arabera igoera. Hala, KPIan gorakada handiena izandako taldeak honako hauek izan ziren: etxebizitza (+% 8,3) eta alkohola eta tabakoa (+% 7).

1.7 koadroa EAEko KPI, taldeka. 2021-2024.

Abenduko urte arteko aldakuntza

	2021	2022	2023	2024
Janaria eta edari ez-alkoholdunak	4,7	15,1	6,8	3,6
Edari alkoholdunak eta tabakoa	1,7	6,9	2,8	7,0
Jantziak eta oinetakoak	1,1	1,9	1,9	1,5
Etxebizitza	24,1	-5,3	-6,8	8,3
Etxeko tresneria	3,2	8,6	2,8	1,4
Medikuntza	1,3	0,8	2,4	2,4
Garraioak	10,2	3,0	4,6	0,9
Komunikazioak	-0,3	-1,8	3,2	0,2
Aisialdia eta kultura	1,5	4,3	3,0	4,4
Irakaskuntza	1,6	1,9	2,2	2,4
Hotelak, kafetegiak eta jatetxeak	3,0	6,3	5,4	3,8
Beste batzuk	2,3	4,6	4,3	3,8
Orokorra	6,4	5,4	3,1	3,6

Iturria: EIN





Bilakaera Orokorra

2.



2. Bilakaera Orokorra

2.1 Euskadiko Garraio Sistemaren Deskribapen orokorra

Euskadiko garraio-sistema osatzen dute bide-sareko azpiegiturek, trenbide-sistemak, portu-sistemak, aireportu-sistemak, kable-sistemak eta garraio intermodalak. Hurrengo taulan, EAEko garraio-sarearen egituraren berezitasunak daude, azpiegituraren organo titularri eta zerbitzua emateko jarduten duen erakundeari dagokienez.

2.1 koadroa Garraio-sistema Euskadin

Sistema	Azpiegitura	Organo titularra	Erakundea / Operadorea
Bide-sistema	Errepideen sare orokorra	Foru-aldundiak	Garraio-zerbitzu publikoaren emakidaduna/mailegatzaila Erabiltzaile partikularra.
	Hiriko sarea	Udalak	
	Autobidea *	Foru-aldundiak	
Trenbide-sistema	Europa barneko sarea Penintsulako sarea	Estatua	Adif eta Renfe
	Sare metrikkoa	Euskal Autonomia Erkidegoa Estatua	ETS eta EuskoTren Adif eta Renfe Metrikkoa
	Metroa/Tranbia	Euskal Autonomia Erkidegoa	ETS, Bilboko Metroa eta EuskoTren
	Zubi esekia	Bilboko Portu Agintaritza	Pribatua da
Portu-sistema	Interes orokorreko portuak	Estatua	Portu-agintaritza
	Autonomia-erkidegoetako portuak	Euskal Autonomia Erkidegoa	Euskal Autonomia Erkidegoa
Aireko sistema	Interes orokorreko portuak	Estatua	Aena
Kable-sistema	Igogailuak eta funikularrak	Euskal Autonomia Erkidegoa Foru-aldundiak Udalak	Pribatuak Publikoak
Garraio intermodaleko sistema	Garraio eta logistika zentroak	Partzuergoak / Erakunde publikoak, pribatuak, mistoak	Operadore logistikoak

* 2019an burutu da errepide-gaietako eskumenak Estatuko Administrazioetik EAera transferitzeko prozesua
Iturria: Garraio Jasangarriaren 2030 Gidaplana

Jarraian, EAEko Garraio Sistemaren alderdi garrantzitsuenak zehazten dira.

Laburpen
Exekutiboa

0

Esparru
Orokorra

1

**Bilakaera
Orokorra**

2

Errepide
Bidezko
Garraioa

3

Tren
Bidezko
Garraioa

4

Aire
Bidezko
Garraioa

5

Itxaso
Bidezko
Garraioa

6

Beste
Garraiobide
Batzuk

7

Ondorio
eta Joera
Nagusiak

8

Helburuak eta
Mugikortasun
Jasangarria

9

Funtsezko
Adierazleak

10

Eranskinak

11



Euskadiko Garraio Sistemaren deskribapena	
Laburpen Exekutiboa	EAEko bide-sistemak 4.120 km-ko hedadura zuen 2023an; horixe da argitaratutako azken datua. Edukiera handiko errepideek (autobideek, autobiek eta errei anitzeko errepideek) 630 km biltzen dituzte; hau da, EAEko errepide-sarearen % 15,3.
Esparru Orokorra	2019tik aurrera, bide-azpiegituren titulartasuna lurralde bakoitzeko foru-aldundiena da, Artxandako tunelena izan ezik (Bizkaiko Foru Aldundiaren sozietate emakidaduna). Urte horretan, Estatuko Administrazioetik EAEra errepideen arloan transferentziak egiteko prozesua amaitu zen. AP-1 autobidea, hegoaldeko Armiñonera doan zatia, 2018ko abenduan eskualdatu zen, eta AP-68 autobidearen transferentzia 2019ko apirilean egin zen. Ondoren, Bizkaiko eta Arabako foru-aldundiei eskualdatu zitzaizkien. A-8 autobidearen kasuan, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Bizkaiko Foru Aldundiak Bidegi eta Interbiak-en esku uzten dute, hurrenez hurren, haren ustiapenerako kudeaketa, eta Arabako Foru Aldundiak AP-1 autobidearen Arabako zatia Arabat sozietate publikoaren esku uzten du.
Bilakaera Orokorra	Trenbide-sistemari dagokionez, azpiegituren administratzaileak Adif eta ETS dira. Bestalde, EAEn pertsonak eta salgaiak garraiatzeko zerbitzuak ematen dituzten agenteak Renfe (Adifen sare konbentzionaleko zein metrikoko operadorea) dira. Sare konbentzionaleko operadoreak probintzietako hainbat herri eta euskal hiriburuak lotzen ditu, eta Estatuko gainerako lurraldeekin lotzeko balio du. Sare metrikokoan, Bizkaiko mendebaldeko udalerriak lotzen ditu haien artean, eta Gaztela eta Leongo udalerriak eta Estatuko udalerriak lotzen ditu. Azken hauek dira: Euskotren, Gipuzkoako eta Bizkaiko hainbat udalerri zeharkatzen ditu hiriarteko zerbitzuaren eskaintzan; Metro Bilbao, Bizkaiko hiriburuko hiri- eta metropoli-eremuko bidaiarien garraioan zentratzen dena; eta EuskoTreneko tranbiak, Bizkaiko eta Arabako hiriburuaren hiri-eremua barne hartzen dutenak, Bilboko tranbiaren eta Gasteizko tranbiaren zerbitzuen bitartez.
Errepide Bidezko Garraioa	2024ko azaroan, Garraio Ministerioaren, Eusko Jaurlaritzaren eta Renferen arteko akordioa sinatu zen, Renfek kudeatzen dituen aldiriko zerbitzuen kudeaketa Eusko Jaurlaritzari eskualdatzeko. Akordio horren arabera, 400 milioi euro inbertituko dira tren-azpiegiturretan, aldiriko zerbitzuak modernizatzeko eta hobetzeko. 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera, Eusko Jaurlaritzak bere gain hartu zuen ofizialki zerbitzu horien kudeaketa.
Tren Bidezko Garraioa	Beste alde batetik, Puente Vizcaya-Bizkaiko Zubia (Puente Vizcaya-Bizkaiko Zubia) ren jardueraren kudeaketa «Transbordador de Vizcaya SL» sozietatearen ardura da.
Aire Bidezko Garraioa	Azkenik, prestazio handiko euskal trenbide-sare berria eraikitzeak – Euskal Y izenez ezagunagoa – EAEko egungo trenbide-azpiegituren mapa osatuko du etorkizun hurbilean
Itxaso Bidezko Garraioa	Estatuaren titulartasuna duten bi portuk osatzen dute EAEko portuen sistema, Bilboko Portuak eta Pasaiaiko Portuak; EAEko bi merkataritza-portu nagusiak dira, eta interes orokorrekoak diren bakarrak. Horrez gain, erkidegoko portuek ere osatzen dute portuen sistema (guztira 15: Bizkaian 8 eta Gipuzkoan 7). Azken horiek EAEko Administrazioari helarazi zizkion Estatuko Administrazioak, maiatzaren 14ko 2.380/1982 Errege Dekretuaren bidez, eta Eusko Jaurlaritzaren eskumenekoak dira.
Beste Garraiobide Batzuk	EAEko aire-sistema Bilbo, Donostia eta Gasteizko aireportuetako aire-azpiegiturek osatzen dute, guztiak ere Estatuaren titulartasunekoak eta Aenak kudeatutakoak.
Ondorio eta Joera Nagusiak	Honako funikularrek osatzen dute pertsonak bakarrik erabil dezaketen Euskadiko kable bidezko garraio-sistema: Artxanda, Larreineta, Mamariga eta Igeldo. Azpiegitura guztiak Bizkaiko lurralde historikoan daude, Igeldoko funikularra izan ezik; Donostian dago hori.
Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria	Azkenik, garraio-sistemaren egitura hainbat operadore logistikorekin osatzen da Euskadin, eta horien helburua salgaien garraioaren eraginkortasuna bultzatzea da: Aparkabisa Bizkaian, Zaisa Gipuzkoan eta CTVi eta Arasur Araban.
Funtsezko Adierazleak	
Eranskinak	

2.2 Euskadiko mugikortasun orokorraren azkenaldiko bilakaera


2.2.1 Pertsonen garraioaren magnitude nagusiak Euskadin

a) EAE

“2021eko EAEko Mugikortasunaren Azterlana” lanean argitaratutako informazioaren arabera, EAEko biztanleek, batez beste, 6.500.277 joan-etorri egiten dituzte lanegun batean. Horrek esan nahi du 7 urteko edo gehiagoko biztanle bakoitzak, batez beste, 3,1 bidaia egiten dituela egunean (biztanle bakoitzeko 3,3 bidaia 2016an).

2.1 grafikoa Pertsonen mugikortasuna EAEn, eremuaren arabera: Laburpen-mapa¹. 2021.

(joan-etorriak/eguneko)



¹ EAEn bizi direnei dagokie.

Iturria: EAEko Mugikortasunaren Azterlana 2021. 2023ko edizioa.

2021ean Euskadiko biztanleek izandako mugikortasunaren eremuari dagokionez, nabarmentzekoa da eguneroko joan-etorrien % 98,8k EAEn zutela jatorria eta helmuga. Zehazki, joan-etorrien % 94 lurralde historiko beraren baitakoak izan ziren, % 4,8 lurraldeen artekoak eta, gainerako % 1,2, EAEtik kanpo hasi edo amaitzen ziren bidaia.




- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Esparru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itxaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak

“2016ko EAEko Mugikortasunaren Azterlana” lanean argitaratutako datuekin alderatuta, EAEko mugimenduen guztizkoa % 3,1 murriztu da (6.705.864 joan-etorri egin ziren 2016an). Euskadiren barruan egindako joan-etorriek guztizkoak adinako jaitsiera izan zuten (-% 3,1). Zehazki, lurralde barneko mugimenduak % 5,1 jaitsi ziren. Aitzitik, lurraldeen arteko joan-etorriak % 6,8 egin zuten gora. Azkenik, EAetik kanpo hasten edo amaitzen diren bidaiak % 3,5 murriztu ziren.

Intermodalitateari dagokionez, EAEn egindako joan-etorri ia guztiak etapa bakarrekoak izan ziren (% 98,3). Hala ere, etapa bakarreko bidaiak ehuneko 0,8 puntu murriztu ziren 2016arekiko.

Joan-etorrien arrazoien artean, EAEko biztanleen bidaien % 41,9 mugikortasun okupazionalaren baitan kokatu ziren, lan- eta ikasketa-arrazoiengatik bidaiak barne. Ehuneko hori, 2016koa baino ehuneko txikiagoa (% 43,8). Mugikortasuna eragin zuen bigarren arrazoiak aisialdia izan zen: bidaien % 22 (ehuneko -4,3 puntu 2016arekiko). Aisialdiaren azken urteetako joera gorakorra eten egin zen hala, Covid-19aren pandemiaren eraginez mugikortasunak izandako aldaketen ondorioz. Hirugarren arrazoiak erosketak izan ziren: joan-etorrien % 11,4 izan ziren arrazoi horrek eragindakoak (ehuneko +1,9 puntu 2016arekiko).

2.2 grafikoa EAEko pertsonen mugikortasunaren banaketa 2016-2021 aldian, arrazoiaren arabera (%).



¹ Lanak barne hartzen ditu laneko kontuak eta ohiko lana.

² Erosketek barne hartzen dituzte etxeko erosketak eta erosketak pertsonalak.


³ Kudeaketa pertsonalek barne hartzen dituzte kudeaketa pertsonalak, familia eta mediku arlokoak.

Iturria: EAEko Mugikortasunaren azterlana 2016 eta EAEko Mugikortasunaren Azterlana 2021, 2023ko edizioa.

EAEko biztanleek mugitzeko erabilitako garraiobideak aztertuta, joan-etorrien % 44,9 oinez egin zirela ikus daiteke; hori izan zen EAEko biztanleek erabilitako modu nagusia (2016an % 47,1). Ibilgailu pribatuaren (autoa eta motorra) erabilera igo egin zen, % 38ra (2016an % 36,4). Autoak jarraitu zuen bigarren garraiobide nagusia izaten, eta joan-etorri guztien % 37,2koa izan zen haren kuota.

Garraiobide motorizatu kolektiboek dagokienez (autobusa, tren, hegazkina eta itsasontzia), joan-etorrien % 13,1 egokitu zitzairen 2021ean; 2016an % 13,3. Ibilgailu pribatuaren areagotzeak eragin du garraio publikoaren ehuneko pisua jaitsi izana.

2.3 grafikoa EAEko pertsonen mugikortasunaren banaketa 2016-2021 aldian, garraiobidearen arabera (%).



Iturria: EAEko Mugikortasunaren azterlana 2016 eta EAEko Mugikortasunaren Azterlana 2021, 2023ko edizioa.


2024an, trenbide- eta errepide-sistemetak garraio kolektiboko zerbitzu publikoek, denak batera hartuta, 303,2 milioi bidaiari garraiatu zituzten; hau da, aurreko ekitaldian baino % 7,1 gehiago. Hiriko joan-etorriak kontuan hartuta, 71,6 milioi pertsonak erabili zuten errepide bidezko garraioa. Ondorioz, 2023ko datuekin alderatuta, % 1,9 hazi zen. Metropoli-trenaren erabiltzaileak 115 milioiko kopurura igo ziren, hau da, % 9,9ko urte arteko hobekuntza izan zen. Hiriarteko eremuan, bidaiarien errepideko garraioa 64,3 milioikoa izan da, % 13ko gorakadarekin. Trenen kasuan, nukleoaren arteko bidaiak 52,3 milioi inguru izan ziren; hau da, 2023an baino % 2,2 gehiago.

Garraio kolektiboaren bilakaera aztertzen badugu, aztertutako eremu geografikoko eskaintzaren ikuspegi orokorra hartu behar dugu kontuan; izan ere, azpiegitura berriak abian jartzeak bi ondorio ditu: alde batetik, garraio kolektiboko eskari berriak asebetetzea eta, bestetik, egindako joan-etorrietan aldaketa modala egitea. Horrek guztiak ez dakar berekin garraio publikoaren eskaintza gutxitzea.

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Esparru Orokorra
- 2 **Bilakaera Orokorra**
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itxaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak



2.4 grafikoa Errepide eta tren bidezko garraiobide publikoetako zerbitzu publikoetan, guztira, bidaiariek izandako bilakaera. 2000-2024.



¹Bizkaia, Gipuzkoa eta Araba buruzko “hiriarteko BUS”aren datuek hiru aldundietako bakoitzaren emakidek autobus bidez egindako mugimenduak jasotzen dituzte (lurralde barrukoak zein beste bi lurraldeetako udalerrietara egindakoak).

¹Bizkaiko “hiriarteko BUS”aren datuek A-3700 Bilbo/Gasteiz emakidako lineak jasotzen dituzte 2009tik. Gaur egun, ez dago aurreko urteetako daturik eskuragarri.


²Bizkaiko hiriarteko trenari buruzko datuetan, ez dira kontuan hartu Larreinetako funikularreko bidaiariak.
Iturria: GIS-Garraioari buruzko Informazio Sistema (OTEUS).

Joan-etorrien banaketa generoaren arabera aztertuta, hainbat garraiobideren erabilera aldeak daude gizonen eta emakumeen artean. “2021eko EAEko Mugikortasunaren Azterlana” lanean argitaratutako emaitzen arabera, emakumeek motorizatu gabeko garraiobideetan egiten dituzte bidaia gehienak (emakumeen % 52,1k eta gizonen % 41,6k). Gizonak, berriz, ibilgailu pribatuz mugitzen dira, batez ere (gizonen % 44,6 eta emakumeen % 29,8). Denboran zeharreko konparaketa eginda, autoaren erabilera igo egin dela ikus daiteke. Izan ere, joan-etorrien % 37,2 autoz egin ziren 2021ean, eta % 35,2 2016an. Jasangarritasun gutxien duen mugikortasuna hazi egin dela esan nahi du horrek. Hazkunde hori emakumeen (2021ean % 29,8 eta 2016an % 28,2) zein gizonen (2021ean % 44,6 eta 2016an % 42,2) kasuan gertatu da.

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Esparru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itxaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak

2.5 grafikoa Joan-etorriak, garraiobidearen eta sexuaren arabera. 2016-2021.

- Laburpen Exekutiboa 0
- Esparru Orokorra 1
- Bilakaera Orokorra 2**
- Errepide Bidezko Garraioa 3
- Tren Bidezko Garraioa 4
- Aire Bidezko Garraioa 5
- Itxaso Bidezko Garraioa 6
- Beste Garraiobide Batzuk 7
- Ondorio eta Joera Nagusiak 8
- Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria 9
- Funtsezko Adierazleak 10
- Eranskinak 11



(*) Motorra barne


Iturria: EAEko Mugikortasunaren azterlana 2016 eta EAEko Mugikortasunaren Azterlana 2021, 2023ko edizioa.

b) Lurralde mailako banaketa

Euskadiko biztanleriaren mugikortasunaren ezaugarriak antzekoak dira hiru lurralde historikoetan, baina badira berezitasunak, ez direlako berdinak orografia, biztanleriaren lurraldekako banaketa, mugikortasun-beharrak eta garraio kolektiboaren eskaintza. Hori dela eta, azterketa xeheago bat egin behar da.




2.6 grafikoa EAEko pertsonen mugikortasuna eguneko bizileku duten lurraldearen arabera. 2016-2021.



Iturria: EAEko Mugikortasunaren azterlana 2016 eta EAEko Mugikortasunaren Azterlana 2021, 2023ko edizioa, EUSTAT.

EAEko biztanleen mugimenduak lurraldeen arabera aztertuta, 2021ean Bizkaiko biztanleek egin zituzten joan-etorri gehien (% 55,1); gipuzkoarrek egin zuten joan-etorrien ia heren bat (% 29,5) eta gainerako joan-etorriak (% 15,4) arabarrek egin zituzten.

2.7 grafikoa 7 urtetik¹ gorako biztanleko joan-etorriak. 2016-2021.



¹ 2016ko ekitaldiko datuak 6 urtetik gorako biztanleriarentzat dira.


Iturria: EAEko Mugikortasunaren azterlana 2016 eta EAEko Mugikortasunaren Azterlana 2021, 2023ko edizioa, EUSTAT.

2016-2021 aldian joan-etorrien kopurua % 7,6 igo zen Bizkaian 2016arekiko. Aitzitik, joan-etorriak murriztu egin ziren Araban (-% 15,6) eta Gipuzkoan (-% 12,5), 2016arekiko. Biztanle bakoitzeko joan-etorrien kopurua jaitsi egin zen hiru lurralde historikoetan. Jaitsiera orokortu horrek zerikusia du Covid-19aren pandemiaren ondorioz ezarritako mugikortasun-murrizketekin.

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Esparru Orokorra
- 2 **Bilakaera Orokorra**
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itxaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak

2.8 grafikoa EAEko pertsonen mugikortasunaren banaketa lurraldeka 2016-2021 aldian, garraiobidearen arabera.

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Esparru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itxaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak



Grafikoa, motorra barne dago ibilgailu pribatuan.

Iturria: EAEko Mugikortasunaren azterlana 2016 eta EAEko Mugikortasunaren Azterlana 2021, 2023ko edizioa.


Lurralde bakoitzaren barneko mugikortasunarekin lotutako alderdirik esanguratsuenen artean, nabarmentzekoa oinezko joan-etorriak gailentzen direla hiru lurraldeetan (% 42 Gipuzkoan, % 44,5 Araban eta % 51,5 Bizkaian). Lurralde bakoitzaren berezitasunei dagokienez, Gipuzkoan erabiltzen da gehien motor bidezko ibilgailu pribatua (bidaia guztien % 41,9) eta autobusa (% 9,5). Bizkaian pisu esanguratsua dute tren bidezko joan-etorriek (% 8,7), Bilboko Metroko bidaiarien trafiko handia dela eta. Araban, bizikleta bidezko joan-etorrien kuota adierazgarria da (Arabako biztanleek egindako bidaia guztien % 6,7).

2016ko datuekin alderatuta, motorizatu gabeko bitartekoek behera egin dutela ikus daiteke (oinez eta bizikletaz) Araban (ehuneko -10,7 puntu) eta Gipuzkoan (ehuneko -4,6 puntu); Bizkaian, berriz, gora egin dute (ehuneko +3,2 puntu).

2016 eta 2021 artean, EAEko hiriburuetan jatorria eta/edo helmuga zuten bidaiak, banakako ibilgailu motorizatuan eginak, jaitsi egin ziren Bilbon (ehuneko -6,9 puntu); Arabako eta Gipuzkoako hiriburuetan, berriz, igo egin ziren (ehuneko +11 eta +1,7 puntu, hurrenez hurren). Garraio kolektiboaren pisua murriztu egin zen Bilbon (-0,7 puntu, hurrenez hurren). Gasteizen eta Donostian, aldiz, handitu egin zen (ehuneko +0,6 eta +0,4 puntu, hurrenez hurren). Gipuzkoako eta Arabako hiriburuetan behera egin zuten motorizatu gabeko bidaiak, oinezkoek zein bizikleta bidezkoek.



2.9 grafikoa Joan-etorrien bilakaera, guztira (abiapuntua eta/edo xedea hiriburuetan).
2016-2021.




¹Etap bat baino gehiagoko moduan garraio motaz aldatzea dakarten joan-etorriak (adibidez, autobusa-trena) edo garraio motaz aldatzea ez dakartenak (autobusa-autobusa) hartzen dira aintzat.
Iturria: EAEko Mugikortasunaren azterlana 2016 eta EAEko Mugikortasunaren Azterlana 2021,2023ko edizioa.

EAEko hiriburu bakoitzeko barne-mugimenduei dagokienez, Gasteizen behera egin zuten oinezko joan-etorriek (ehuneko -11,6 puntu 2016arekiko), eta gora egin zuten motor bidezko ibilgailu pribatuen bidezko joan-etorriek (ehuneko +9,8 puntu). Gipuzkoako hiriburuan murriztu egin ziren oinezko bidaiek (ehuneko -0,6 puntu) eta autoaren erabilera (ehuneko -1,6 puntu); garraio publikoa, berriz, areagotu egin zen (ehuneko +1,1 puntu). Azkenik, Bilboko biztanleen artean hazi egin ziren oinezko joan-etorriak, eta behera egin zuten garraio publikoan egindako bidaiek.

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Esparru Orokorra
- 2 **Bilakaera Orokorra**
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itxaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak

2.10 grafikoa Hiriburuen barneko joan-etorrien bilakaera (abiapuntua eta xedea hiriburu berean). 2016-2021.

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Esparru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra**
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itxaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak



¹etapa anitzeko moduak modu-aldaketarekin (adibidez, autobus-trena) edo modu-aldaketarekin (adibidez, autobus-autobusa) egiten diren desplazamenduak barne hartzen ditu. 2011. urtearen aurreko inkestetan, desplazamendua hainbat etapatan egiten den lehen modura zenbatzen da, modua aldatuta edo aldatu gabe.

Iturria: EAEko Mugikortasunaren azterlana 2016 eta EAEko Mugikortasunaren Azterlana 2021, 2023ko edizioa.

2.2.2 Euskadiko merkantzien garraioko magnitude nagusiak

EAEko merkantzien bolumenak barne hartzen ditu garraiobideen operadoreek emandako zifrak, Sustapen Ministerioak egindako “Merkantzien Garraioari buruzko Inkesta Iraunkorraren” informazioa eta “EAEko garraio-eskariaren irudia. 2021”⁵ azterlanaren informazioa; azken horren arabera, errepidez garraiatzen diren tonen % 30⁶ dagokio iragaitzazko lurreko garraioari.

2024an, EAEko garraiobide guztiek garraiatutako merkantzien fluxua, oro har, 187,4 milioi tonara igo zen, eta % 0,9ko igoera izan zuen aurreko urtearekin alderatuta. Erabilitako garraiobidearen arabera egiten badugu merkantzien banakapena, ikus daiteke errepide bidezko trukeak guztizkoaren % 78,8 izan zirela, itsas zirkulazioak kargaren % 20,4 jaso zuela, eta tren bidezko garraioak % 0,8.

⁵ Merkantzien trafikoari buruzko datuak 2021ari dagozkio. “EAEko Garraio Eskariaren Irudia. 2021. urtea” (<https://www.euskadi.eus/dokumentazioa/2023/eaeko-garraio-eskariaren-irudia-2021-urtea/web01-s2ing/eu/>)

⁶ 2021ean % 30ekoa zen errepideko iragaitzazko trafikoaren pisua, inkesta lokarriaren informazioaren arabera eta “EAEko garraio-eskariaren irudia. 2021. urtea” azterlanean jasotzen den informazioaren arabera.



2.2 koadroa Salgaien banaketa garraio motaren arabera. 2022-2024.



Garraio mota	2021 ¹		2022 ¹		2023 ¹	
	Milaka Tona	%	Milaka Tona		Milaka Tona	%
Barnekoa	150.010,0	79,5%	147.361,1	79,4%	147.662,2	78,8%
▪ Barnekoa	47.829,0	25,4%	46.459,0	25,0%	44.871,0	23,9%
▪ Abiapuntua /Xedea	57.178,0	30,3%	56.904,0	30,6%	58.714,0	31,3%
▪ Zirkulazioan	44.789,0	23,8%	43.998,1	23,7%	44.077,2	23,5%
Trenbidea	1.996,4	1,1%	1.653,5	0,9%	1.519,6	0,8%
Airekoa	74,3	0,0%	72,4	0,0%	71,4	0,0%
Itsasokoa ²	36.503,5	19,4%	36.603,8	19,7%	38.194,1	20,4%
GUZTIRA	188.584,2	100,0%	185.691,3	100,0%	187.447,3	100,0%

¹ Iragaitzako garraioa, “EAEko garraio-eskariaren irudia 2021” azterlaneko datuetan oinarrituta kalkulatu.

² Bilboko, Pasaia eta Bermeoko portuetako datuak sartuta daude.

Iturria: Salgaien Errepideko Garraioari buruzko Etengabeko Inkesta, Sustapen Ministerioa, Renfe, EuskoTren, Aena, Bilboko Portuko Agintaritzak, Pasaia Portuko Agintaritzak, Eusko Jaurlaritzak.


Erabilitako garraiobidearen arabera urtetik urterako aldakuntzari dagokionez, handitu egin zen errepidez eta itsasoz garraiatutako karga (+%0,2 eta +%4,3, hurrenez hurren); trenbidez garraiatutako produktuen bolumena, berriz, jaitsi egin zen (-%8,4) eta gauza bera gertatu zen airez garraiatutakoarekin (2023ko datuekin alderatuta, -%1,4). Lurreko garraioan, barne-trukeek behera egin zuten (-%3,4), eta igoerak izan ziren Euskaditik datorren edo hara doan kargan (+%3,2) eta iragaitzako garraioan (+%0,2, 2023koarekin alderatuta).

Merkantzien joan-etorrietan garraiobide bakoitzak izandako ekarpena aztertuz gero, alde handiak ikusten dira EB-27ko herrialdeen eta EAEren artean. 2023an,⁷ horixe da informazioa eskuragarri dagoen azken ekitaldia, Euskadin errepidez garraiatutako kargaren ehunekoa (% 79,4) handiagoa izan zen Europakoa baino (% 54,1). Garraio-sistema jasangarriek, itsaso eta tren bidezkoek, kuota handiagoa izan zuten Europan (%34 eta % 11,8, hurrenez hurren), EAEEn baino (%19,7 eta %0,8, hurrenez hurren).

⁷ Eskuragarri dagoen azken datua 2023koa da, eta Statistical Pocketbook 2025an argitaratu zen.

2.11 grafikoa Salgaien garrioren banaketa modala. 2023 (%).

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Esparru Orokorra
- 2 **Bilakaera Orokorra**
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itsaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak



¹ Errepideko iragaitzazko garraioa, inkesta lokarritik ateratako eta "EAEko garraio-eskariaren irudia 2021" azterlanean jasotako informazioaren arabera kalkulatuta.

² 2023ko azken datu erabilgarria. Itsas garraioan kontuan hartzen dira barruko bide nabigagarriak.

Iturria: Salgaien Errepideko Garraioari buruzko Etengabeko Inkesta, Sustapen Ministerioa, Feve (2013tik aurrera Renfek zabalera metrikoko sarean jarduten du), EuskoTren, Aena, Bilboko Portuko Agintaritza, Pasaia Portuko Agintaritza, Eusko Jaurlaritza eta EU Energy and Transport in Figures, Statistical Pocketbook 2025.

Datu horiekin lotuta, azpimarratu beharrekoa da errepidez garraiatzen diren merkantziak ingurumenean azterna txikiagoa uzten duten garraiobideetara (esaterako, itsaso edo tren bidezkoa) igarotzea ahalbidetzen duten ekintzen garapenaren alde egiten dutela EAEko administrazio publikoek. Neurri horiek, beste elementu batzuekin batera (esaterako, ezarritako murrizketak), 2006⁸ eta 2023 aldian itsas garraioa 0,5 puntu handitzea sustatu dute, baita errepidez garraiatutako tonen bolumena murriztea ere. Hala ere, errepide bidezko garraioak salgaien guztizko trafikoa duen kuota 1,3 puntu igo da 2006tik.

⁸ EAEko garraio eskaeraren irudia. 2006. urtea

https://www.euskadi.eus/web01-a2oteus/eu/contenidos/documentacion/imagen_demanda_transportes/eu_def/imagen_demanda_transportes.html



Errepide bidezko Garraioa

3.





3. Errepide bidezko Garraioa

3.1 Errepide bidezko garraioaren eskaintza Euskadin

Sustapen Ministerioak 2023ko Estatistika Urtekarian eskuragarri dituen datuen arabera (emandako azken informazioa), EAEko errepide-sarearen luzapena 4.120 km-koa zen. Beste nolabait esanda, 2022koarekin alderatuta, 2 km gutxitu zen (-% 0,05).

2023an, Euskadiko errepide-sistema guztiaren % 15,3 edukiera handiko bideak ziren (barne hartzen ditu autobideak, autobiak eta errei anitzeko errepideak). Estatu mailan, galtzada bat baino gehiago dituzten errepideak % 10,7 ziren; hau da, EAEkoa baino txikiagoa zen Estatu mailakoa. Europako errepide-sarean (EB-27), autobideek, autobiek eta errei anitzeko errepideek Europako bide guztien % 22,5 biltzen zuten. .

EAEko bide-kontzentrazioa 569,5 m/km²-koa zen, eta Europako dentsitatea (402,4 m/km²) eta Espainiako indizea (328,1 m/km²) baino handiagoa.


3.1 koadroa Errepide-sarearen luzera eta dentsitatea. EAE, Estatu eta EB-27. 2021-2023.

Errepide mota	2021		2022		2023	
	Luzera (km)	Dentsitatea (m/km ²) ¹	Luzera (km)	Dentsitatea (m/km ²) ¹	Luzera (km)	Dentsitatea (m/km ²) ¹
EAE						
Ordainpeko autobideak	249	34,4	249	34,4	251	34,7
Doako autobideak, autobiak, bide anitzeko errepideak	379	52,4	379	52,4	380	52,5
Errei bakarreko errepideak	3.505	484,6	3.494	483,1	3.489	482,3
Guztira	4.133	571,4	4.122	569,9	4.120	569,5
ESTATUA						
Ordainpeko autobideak	2.039	4,0	1.809	3,6	2.028	3,6
Doako autobideak, autobiak, bide anitzeko errepideak	15.526	30,7	15.857	31,3	15.638	31,3
Errei bakarreko errepideak	148.370	293,2	148.329	293,1	148.039	293,2
Guztira	165.935	327,9	165.995	328,0	165.705	328,1
UE-27						
Autobideak	74.862	17,7	76.100	18,0	76.504	18,1
Errepide nagusiak edo nazionalak	298.942	70,8	297.729	70,5	305.473	72,3
Bigarren mailako edo eskualde mailako errepideak	1.485.757	351,6	1.488.256	352,2	1.318.161	312,0
Guztira	1.859.561	440,1	1.862.085	440,7	1.700.138	402,4

¹ EAEko, Estatuko eta EB-27ko errepide-sarearen luzeraren (m) eta azaleraren (km²) arabera kalkulatua, kasu bakoitzerako.

Iturria: Sustapen Ministerioa, EIN, EU Energy and Transport in Figures. Statistical Pocketbook 2025, International Road Federation.

Laburpen Exekutiboa	0
Esparru Orokorra	1
Bilakaera Orokorra	2
Errepide Bidezko Garraioa	3
Tren Bidezko Garraioa	4
Aire Bidezko Garraioa	5
Itxaso Bidezko Garraioa	6
Beste Garraiobide Batzuk	7
Ondorio eta Joera Nagusiak	8
Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria	9
Funtsezko Adierazleak	10
Eranskinak	11



Hurrengo taulan, EAEko hiru hiriburuetako hiri-garraio publikoaren eskaintzaren ezaugarri nagusiak jaso dira. Bilbon, Bilbobusek 41 lineatan banatutako 141 autobideko flota zuen, 719,2 km-ko hedadurarekin (2023ko datuekin alderatuta, -% 0,3). Gipuzkoako hiriburuan, Dbusek 42 linea zituen eta 2023koarekin alderatuta ibilbide bat gehitu zuen. 289,9 km-ko ibilbidea (2023koarekin alderatuta, +% 3,9) eta 139 autobus zituen (-% 1,4). Gasteizen, Tuvisak (Transportes Urbanos de Vitoria SA) 15 linea zituen, 284,3 km-ko ibilbidearekin (+% 20,4 aurreko urteko datuekin alderatuta). Flota 91 autobusek osatzen zuten (2023ko datuekin alderatuta, +% 3,4).

3.2 koadroa EAEko hiriburuetako hiri-garraioaren eskaintza publikoaren ezaugarriak. 2022-2024.


	2022	2023	2024	Δ % 23/24
BILBO				
Sareko lineak ¹	45	46	46	0,0
Luzera (km) ¹	720,7	721,7	719,2	-0,3
Autobusen parkea	141	141	141	0,0
DONOSTIA				
Sareko lineak ¹	41	41	42	2,4
Luzera (km) ¹	279	279	289,9	3,9
Autobusen parkea	140	141	139	-1,4
GASTEIZ				
Sareko lineak ¹	15	15	15	0,0
Luzera (km) ¹	236,2	236,2	284,3	20,4
Autobusen parkea	90	88	91	3,4
EAE				
Sareko lineak ¹	101	102	103	1,0
Luzera (km) ¹	1.271,5	1.236,8	1.293,4	4,6
Autobusen parkea	371	370	371	0,3

¹ Sartuta daude eguneko eta gaueko zerbitzu erregularrak.
Iturria: Tuvisa, Bilbobus eta DBus.

Errepideko garraio pribatuari dagokionez, Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak argitaratutako informazioaren arabera, ibilgailuen parkeak 1.416.377 unitate zituen eta, 2023ko datuekin alderatuta, jaitsiera txikia gertatu zen: % 0,2koa.



3.1 grafikoa EAEko ibilgailuen parkea. 2024.



Iturria: Trafikoko Zuzendaritza Nagusia.

Tipologia kontuan hartuta, parkearen banaketari erreparatzen badiogu, bi talde zeuden, eta, guztira, EAEko ibilgailuen% 83,8 osatzen zuten. Turismoak ziren guztizkoaren % 71,4, eta EAEko ibilgailu-parkean proportzio handieneko kategoria zen; ondoren, kamioiak eta furgonetak zeuden, eta haien kuota % 12,4koa zen. Aurreko urtearekin alderatuta, gorakada izan zuten kategoriak motozikletak (+% 3,2, 2023ko datuekin alderatuta), traktore industrialak eta beste ibilgailu batzuk (+% 2,8) izan ziren.

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Esparru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itxaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak

Bizkaia

Vehicle Type	Percentage
Ibilgailuak	73,6%
Motozikletak	10,3%
Kamioiak eta Furgonetak	12,1%
Autobusak	0,3%
Traktore industrialak	0,5%
Bestelako ibilgailuak	3,2%

Gipuzkoa

Vehicle Type	Percentage
Ibilgailuak	67,6%
Motozikletak	14,7%
Kamioiak eta Furgonetak	12,5%
Autobusak	0,2%
Traktore industrialak	0,8%
Bestelako ibilgailuak	4,2%

Araba

Vehicle Type	Percentage
Ibilgailuak	72,7%
Motozikletak	8,8%
Kamioiak eta Furgonetak	13,1%
Autobusak	0,2%
Traktore industrialak	0,7%
Bestelako ibilgailuak	4,4%

Legend:

- Ibilgailuak
- Motozikletak
- Kamioiak eta Furgonetak
- Autobusak
- Traktore industrialak
- Bestelako ibilgailuak

2024ko turismoen matrikulazioak erregai motaren arabera banatzen baditugu, hiru lurralde historikoetan, barne-erreketak ibilgailuen (diesela eta gasolina) erregistroa gutxitu egin zela ikus dezakegu. EAE osoan, gasolina-autoen matrikulak % 15,7 jaitsi ziren, eta diesel-autoenak, berriz, % 39,3, 2023koarekin alderatuta. Auto elektrikoek erregistroek gora egin zuten Bizkaian (+% 6,5), baina behera Araban (-% 7,7) eta Gipuzkoan (-% 3,2 aurreko ekitaldiaren aldean). Auto hibrido entxufagarrien kopuruak gora egin zuen Bizkaian (+% 37,4) eta Gipuzkoan (+% 1), aldiz, behera egin zuen Araban (-% 15). 2024an, nabarmen igo ziren turismo hibrido ez-entxufagarrien eta arinen matrikulak hiru lurralde historikoetan.

3.3 koadroa Matrikulazioak erregai motaren arabera. 2022-2024.

- Laburpen Exekutiboa 0
- Esparru Orokorra 1
- Bilakaera Orokorra 2
- Errepide Bidezko Garraioa 3
- Tren Bidezko Garraioa 4
- Aire Bidezko Garraioa 5
- Itxaso Bidezko Garraioa 6
- Beste Garraiobide Batzuk 7
- Ondorio eta Joera Nagusiak 8
- Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria 9
- Funtsezko Adierazleak 10
- Eranskinak 11


	2022	2023	2024	Δ % 23/24
ARABA				
Gasolina	1.664	1.689	1.302	-22,9
Diesela	616	425	281	-33,9
Elektrikoa	175	299	276	-7,7
Hibrido entxufagarriak (PHEV)	261	339	288	-15,0
Hibrido ez-entxufagarriak (HEV)	556	639	833	30,4
Hibrido arinak (MHEV)	567	679	1.098	61,7
Besteak	134	156	211	35,3
Guztira	3.973	4.226	4.289	1,5
BIZKAIA				
Gasolina	5.150	5.253	4.373	-16,8
Diesela	1.436	1.296	741	-42,8
Elektrikoa	481	825	879	6,5
Hibrido entxufagarriak (PHEV)	601	725	996	37,4
Hibrido ez-entxufagarriak (HEV)	1.843	2.337	3.251	39,1
Hibrido arinak (MHEV)	1.567	2.101	3.053	45,3
Besteak	264	495	679	37,2
Guztira	11.342	13.032	13.972	7,2
GIPUZKOA				
Gasolina	2.835	2.669	2.426	-9,1
Diesela	1.057	908	575	-36,7
Elektrikoa	264	410	397	-3,2
Hibrido entxufagarriak (PHEV)	408	478	483	1,0
Hibrido ez-entxufagarriak (HEV)	1.106	1.322	1.802	36,3
Hibrido arinak (MHEV)	801	1.071	1.434	33,9
Besteak	163	293	396	35,2
Guztira	6.634	7.151	7.513	5,1
EAE				
Gasolina	9.649	9.611	8.101	-15,7
Diesela	3.109	2.629	1.597	-39,3
Elektrikoa	920	1.534	1.552	1,2
Hibrido entxufagarriak (PHEV)	1.270	1.542	1.767	14,6
Hibrido ez-entxufagarriak (HEV)	2.935	3.811	5.320	39,6
Hibrido arinak (MHEV)	809	984	950	-3,5
Besteak	561	944	1.286	36,2
Guztira	19.253	21.055	20.573	-2,3

Iturria: IDEAUTO

Jarraian ageri den grafikoan, Europako herrialde bakoitzaren motorizazio-indizea erakusten da; hau da, mila biztanleko turismo-ratioa, EB-27an, Europako Merkataritza Askearen Elkarteko beste herrialde batzuetan eta EBko kideak izateko hautagaiak diren herrialdeetan. Eurostaten eskura dagoen azken informazioaren arabera, 2023an, motorizazio handiena Liechtensteinen zegoen (774 auto mila pertsonako), eta bigarren postuan Italia azaltzen zen (694 auto mila biztanleko). Azken tokian, beste behin, Turkia zegoen, mila biztanleko 178 autorekin. Hazkunde handiena izandako herrialdeak EBrako hautagaiak ziren, zehazki, Mazedonia (+% 14,6), Moldavia (+% 9,6) eta Albania (+% 9,4). Islandia (-% 9,9) eta Norvegia (-% 5,4) izan ziren autoen kontzentrazioan beherakada izan duten herrialdeak. Bi herrialde horiek EFTAko kideak dira.



3.3 grafikoa Motorizazio-indizea European. 2023-2022.



¹ Statistical Pocketbook 2025 lanetik datozen Europako herrialdeen azken datuak 2023koak dira.

²Europako Merkataritza Askearen Elkarteko (EFTA - European Free Trade Association) herrialdeak.

³ EBko herrialde hautagaiak

Iturria: eu Energy and Transport in Figures, Statistical Pocketbook 2025, Trafiko Zuzendaritza Nagusia eta EIN.

Laburpen
Exekutiboa

0

Esparru
Orokorra

1

Bilakaera
Orokorra

2

Errepide
Bidezko
Garraioa

3

Tren
Bidezko
Garraioa

4

Aire
Bidezko
Garraioa

5

Itxaso
Bidezko
Garraioa

6

Beste
Garraiobide
Batzuk

7

Ondorio
eta Joera
Nagusiak

8

Helburuak eta
Mugikortasun
Jasangarria

9

Funtsezko
Adierazleak

10

Eranskinak

11

2023an, EAEko motorizazio-tasa mila biztanleko 464 turismora igo zen (2022an baino +% 0,2 gehiago), eta hogeita bederatzigarren postuan kokatu zen Europako rankingean (2022arekin alderatuta, postu bat jaitsi zen), eta hogeita laugarren postuan EB-27ko herrialdeekin alderatuta (aurreko urtean baino bi postu gutxiago). Lurralde historikoen arabera, Arabak zuen motorizazio-indize handiena (482 auto mila biztanleko), ondoren Gipuzkoak (463 ibilgailu mila biztanleko) eta, azkenik, Bizkaia (459 auto mila biztanleko). Estatu mailan, motorizazio maila 551 automobilekoa izan zen mila biztanleko, eta EAEko lurralde historiko bakoitzaren gainetik kokatu zen.

2024an, Euskadiko autoen kontzentrazioa 458 ibilgailu/mila biztanlera jaitsi zen, eta % 1,3ko jaitsiera izan zuen 2023ko datuekin alderatuta. Lurraldeka, Arabako auto kopurua 482 autokoa zen mila pertsonako, Gipuzkoakoa 463,1 ibilgailukoa mila biztanleko (-% 1,4) eta Bizkaikoa 459,1 autokoa mila biztanleko (-% 1,6).


3.2 Pertsonen errepideko mugikortasuna Euskadin

3.2.1 Ibilgailu pribatu bidezko mugikortasuna

2016-2021 aldian, ehuneko 2 puntu hazi zen EAEko auto kopurua. Lurralde historikoaren arabera, Araban eta Gipuzkoan gora egin zuen autoaren erabilera (ehuneko +8,4 eta +3,2 puntu, hurrenez hurren); Bizkaian, berriz, behera egin zuen (ehuneko -2,3 puntu). Gipuzkoan erregistratu zen autoaren erabilera handiena (% 39,9); Araba izan zen hurrengoa, bigarren postura igo baitzen (% 38,4), eta, azkenik, Bizkaia kokatu zen (% 29,9).

Azken hamarkadan (2011-2021), ibilgailu pribatuaren erabilera ehuneko puntu bat igo da, Araban eta Gipuzkoan autoz egindako bidaiek izandako gorakadaren ondorioz (ehuneko +6,8 eta +2,7 puntu, hurrenez hurren), Bizkaian behera egin baitzuen apur bat (ehuneko -1,2 puntu). Azterketa 2007-2021 aldira zabalduta, autoen erabilera ehuneko 2,4 murriztu da Euskadi osoan. Lurraldeka, bilakaera ez da berdina izan. Araban eta Gipuzkoan igo egin da autoaren erabilera maila (ehuneko +2,8 eta +0,2 puntu), baina Bizkaian ehuneko 5,1 puntu egin du behera.

3.4 grafikoa Pertsonen mugikortasuna autoz. Autoaren erabilera. 2007-2021¹.



¹ Guztizkoa probintzia barruko joan-etorrien batukariari dagokio.


Iturria: EAEko Mugikortasunaren azterlana 2007, EAEko Mugikortasunaren azterlana 2011, EAEko Mugikortasunaren azterlana 2016, eta EAEko Mugikortasunaren azterlana 2021.



- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Esparru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itxaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak

Autoz⁹ egindako joan-etorrien lurralde eremuari begiratuta, EAEko zirkulazio osoko joan-etorrien % 41,1 udalerri barrukoak izan ziren, eta % 28,6 eskualde barrukoak. Gainerakoak horrela banatu ziren: lurraldearteko bidaiak (% 10,7), lurralde barnekoak (% 16,7) eta kanpora egindakoak (% 2,9). “2016ko EAEko Mugikortasunaren Azterketan” jasotako datuekin alderaketa eginez gero, eskualde bakoitzeko mugimenduak, lurralde historiko bakoitzeko barne-mugikortasuna eta kanpoaldearekiko zirkulazioa adibidez, gutxitu egin zirela (ehuneko -6,1, -0,7 eta -0,2 puntu, hurrenez hurren) ikusiko dugu. Aldiz, udalerri baitan egindako bidaiak eta lurralde historikoen arteko joan-etorriak ugartu (ehuneko +2,4 eta +4,6 puntu, hurrenez hurren).

3.5 grafikoa Autoan egindako lekualdaketen banaketa lurralde-esparruaren arabera. 2016-2021.



Iturria: EAEko Mugikortasunaren azterlana 2016 eta EAEko Mugikortasunaren azterlana 2021.

“2021eko EAEko Mugikortasunaren Azterlana” lanean jasotako datuen arabera, EAEko hiru hiriburueta egindako joan-etorriak EAEko herritarrek egindako joan-etorri guztien % 40,6 izan ziren. Autoaren¹⁰ erabilerari dagokionez, euskal hiriburueta egindako bidaien edo hiri horien barruan egindako bidaien % 37,3 banakako ibilgailu motorizatuetan egiten dira. Hiriaren barneko joan-etorriak bakarrik kontuan hartzen baditugu, autoaren erabilera %23,2koa da; Euskadiko hiriburueta egindako joan-etorrietan, berriz, %64,4koa.

Euskal hiriburu bakoitzaren barruko auto¹¹ bidezko joan-etorriak aztertuz gero, banakako ibilgailu motorizatuetan egin ziren Gasteiz barruko bidaien % 35,5, Donostia barneko mugimenduen % 25,6 eta Bilbo barruko joan-etorrien % 11.


Euskal hiriburueta kanpotik autoz sartzeari dagokionez, Bilbo da kanpotik ibilgailu pribatu motorizatu gehien sartzten zaizkion nukleoa: egunean 107.967 ibilgailu; Donostiara 80.871 ibilgailu iristen dira egunean eta, Gasteizera, alde apur batekin, 61.535 ibilgailu sartzten dira egunean.

⁹ Gidari-autoa, bidaiari-autoa eta taxia barne.

¹⁰ Gidari-autoa, bidaiari autoa, motorra eta taxia barne.

¹¹ Auto gidaria, bidaiari autoa, motorra eta taxia barne.

3.6 grafikoa Kanpotik euskal hiriburuetara autoz egindako sarrerak. 2007-2021.



Iturria: EAEko Mugikortasunaren azterlana 2007, EAEko Mugikortasunaren azterlana 2011, EAEko Mugikortasunaren azterlana 2016, eta EAEko Mugikortasunaren azterlana 2021.

3.2.2 Garraio kolektibo bidezko mugikortasuna

Hiri-garraio publikoko sisteman, EAEko hiriburuetan zehar bidaiariak garraiatzera bideratutako hiru konpainiak lan egiten dute: Transportes Urbanos de Vitoria-Tuvisa (Gasteizen), DBus (Donostian) eta Bilbobus (Bilbon).

Gasteizen, Tuvisarekin egindako bidaiak % 7,5 igo ziren 2023koekin alderatuta, eta 17,8 milioi pertsona baino gehiagokoak izan ziren. 2024an, Arabako hiriburuako udal-enpresak bidaiarien kopuruari dagokionez errekorra izan zuen. EAEko hiru hiriburuetako autobusen ohiko zerbitzuetako bidaien % 24,9 Arabako hiriburuan egindako joan-etorriei zegokien.


Donostiaren kasuan, Dbuseko lineen erabilera % 8,2 igo da 2023ko datuekin alderatuta, eta 32 milioi bidaiari baino gehiago izan zituen. Hala, 2024an, 90eko hamarkadaren hasieratik izandako bidaiarien zifra handiena lortu zuen. EAEko hiriburuetako hiru operadoreek egindako bidaien % 44,7 egin zituen Dbusek.

Bilboko metropoli eremuari dagokionez, Bilbobusek 21,8 milioi pertsona garraiatu zituen eta, aurreko urteko datuekin alderatuta, jaitsiera % 9,6koa izan zen. Jaitsiera hori, neurri handi batean, 2024ko lan gatazkaren inpaktuak azaltzen du, apirilaren 9tik ekainaren 26ra arteko lanuzteekin eta greba mugagabearekin, epe horretan operatiboa gutxieneko zerbitzuek eta zerbitzuaren erregularitasun txikiagoak baldintzatu baitzuten. 2024an, Bilboko operadoreak hiri barruko garraio publikoko bidaiarien % 30,4 desplazatzen ditu.

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Esparru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itxaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak



3.7 grafikoa Hiriko garraio publikoa: EAEko hiriburuetako autobus-zerbitzu erregularren erabiltzaile kopuruaren bilakaera¹². 1990-2024.



Iturria: Tuvisa, Bilbobus eta DBus.

Herriarteko garraioari dagokionez, ohiko autobus-zerbitzua Bizkaibusek ematen du Bizkaian, Alavabus konpainiak Araban eta Lurraldebusek barne hartzen dituen eragileek Gipuzkoan.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Lurraldebusen zerbitzuaren bidez, indarrean zituen emakidetako erabiltzaileak 28,8 milioi baino gehiago izan ziren eta 2023an baino % 8,7 bidaia gehiago izan zituen. 2024ko ekitaldia Gipuzkoako lurralde historikoan autobus bidezko hiriarteko garraioan bidaia kopuru handienarekin itxi zen.

Bizkaian, 34,5 milioi bidaia inguruk erabili zituzten Bizkaibusek zerbitzuak Bilbo/Gasteiz A-3700 autobus-linearen emakidarekin batera, eta % 15,3ko igoera izan zuen 2023ko erregistroekin alderatuta. Bizkaiko lurralde historikoari buruzko datu horiek aztertzeke orduan, kontuan izan behar da Bilbo Handiko metropolian dagoen garraio publikoko zerbitzuen eskaintza osoa; izan ere, eremu horretan, azken urteetan asko hazi da garraio kolektiboaren eskaria.

Alavabus operadoreak 981,2 mila bidaia egin zuen; hau da, 2023ko datuekin alderatuta, gorakada % 26,1ekoa izan zen. Arabako konpainiaren kasuan, 2024an beste errekor bat lortu zen udalerrien arteko pertsona-garraioan. Alavabusek egindako bidaia kopuruak nabarmen txikiagoak dira EAEko gainerako lurralde historikoetakoak baino, biztanleriaren lurralde-banaketa sistemaren banaketa ezberdina delako. Hala, hiriburuaren herriarteko kontzentrazio handia dago, eta horrek udalerri batetik bestera joateko bidaia txikiagoa izatea dakar.

¹² Datuak eranskineko taulan kontsulta daitezke: “Hiriko garraio publikoa: EAEko hiriburuetako autobus-zerbitzu erregularren erabiltzaileak. 1990-2022.”

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Esparru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itxaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak

3.4 koadroa Hiriarteko garraio publikoa: hiriarteko autobus-zerbitzu erregularren erabiltzaileak. 2000-2024¹.

Laburpen Exekutiboa	0
Esparru Orokorra	1
Bilakaera Orokorra	2
Errepide Bidezko Garraioa	3
Tren Bidezko Garraioa	4
Aire Bidezko Garraioa	5
Itxaso Bidezko Garraioa	6
Beste Garraiobide Batzuk	7
Ondorio eta Joera Nagusiak	8
Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria	9
Funtsezko Adierazleak	10
Eranskinak	11

Urteak	Gipuzkoako gainerako probintzia		Bizkaiko gainerako probintzia ²		Arabako gainerako probintzia ³	
	bidaiariak, milakotan	Per. urteko Δ (%)	bidaiariak, milakotan	Per. urteko Δ (%)	bidaiariak, milakotan	Per. urteko Δ (%)
2000	18.461,2	--	36.062,0	--	n.d.	--
2001	17.748,7	-3,9	38.535,9	6,9	145,5	--
2002	17.022,3	-4,1	35.115,4	-8,9	267,0	83,5
2003	16.712,0	-1,8	37.030,6	5,5	315,3	18,1
2004	16.626,6	-0,5	36.875,8	-0,4	439,2	39,3
2005	15.382,3	-7,5	34.134,2	-7,4	324,3	-26,2
2006	16.109,1	4,7	32.810,0	-3,9	374,0	15,3
2007	16.120,2	0,1	30.875,7	-5,9	349,3	-6,6
2008	17.199,1	6,7	30.195,5	-2,2	348,2	-0,3
2009	18.140,6	5,5	29.779,4	-1,4	421,0	20,9
2010	18.907,5	4,2	28.736,6	-3,5	516,4	22,7
2011	19.772,4	4,6	29.473,7	2,6	500,1	-3,1
2012	20.517,0	3,8	29.414,2	-0,2	495,0	-1,0
2013	21.121,0	2,9	29.252,8	-0,5	490,0	-1,0
2014	22.159,5	4,9	28.478,6	-2,6	446,7	-8,8
2015	22.920,6	3,4	27.286,7	-4,2	392,2	-12,3
2016	23.962,7	4,5	27.748,8	1,7	467,5	19,2
2017	24.436,0	2,0	28.515,4	2,8	544,3	16,4
2018	24.845,1	1,7	29.228,2	2,5	579,7	6,5
2019	25.295,0	1,8	30.468,3	4,2	590,0	1,8
2020	15.482,9	-38,8	18.383,7	-39,7	380,0	-35,6
2021	19.264,2	24,4	22.055,1	20,0	457,4	20,4
2022	22.763,1	18,2	26.667,4	20,9	617,1	34,9
2023	26.522,0	16,5	29.900,2	12,1	778,0	26,1
2024	28.833,0	8,7	34.477,9	15,3	981,2	26,1


¹ "Hiriarteko autobusa" ren datuek, Bizkaiko, Gipuzkoako edo Arabako zutabean daudenek, hiru aldundietako emakiden autobuseko mugimenduak barne hartzen dituzte, bai beren lurraldearen barruan, bai beste 2 lurraldeetako herriekin.

² "Bizkaia hiriarteko autobusa" ren 2009ko datuek Bilbo/Gasteiz A-3700 emakidaren lineak barne hartzen dituzte, eta gaur egun ez dago aurreko urteetako daturik.

Iturria: Bizkaiko Garraio Partzuergoa, Gipuzkoako Foru Aldundi, Arabako Foru Aldundia eta Bizkaiko Foru Aldundia.



3.3 Merkantzien errepideko mugikortasuna Euskadin



Merkantzien Garraioari buruzko Inkesta Iraunkorrak jasotako informazioaren arabera (2024ko ekitaldiko datuak), Euskadin 103,6 milioi tona garraiatu ziren errepidez, eta datu hori aurreko urtekoaren oso antzekoa da (+% 0,2).

Eskualde barruko datuei dagokienez, produktuen garraioa 44,9 milioi tonara jaitsi zen, eta 2023an baino % 3,4 gutxiago izan ziren. Jaitsiera hori udalerrri barneko trukeetan (-% 0,5) zein udalerrien artean mobilizatutako kantitatean (-% 4) ikusi zen. Eskualde arteko garraioan, 51,4 milioi tonara igo zen zirkulazioan zegoen karga, eta % 2,5eko hobekuntza izan zuen. Eskualdeen arteko garraioak izandako bilakaera positiboa izan zen beste autonomia-erkidego batzuetatik jasotako produktuen gorakada (+% 8,2) zela eta. Izan ere, beste autonomia-erkidego batzuetara bidalitako merkantziak % 2,4ko jaitsiera izan zuen. Nazioartean, igo egin zen trukaturako produktuaren zifra (+% 7,9), eta 7,9 milioi tonara iritsi zen. Atzerriarekiko zirkulazioari dagokionez, jasotako salgaiek (+% 6,1) eta bidalitako kargak (% 9,7) gora egin zuten.

3.5 koadroa Salgaien garraioa errepide bidez EAEn. Bilakaera. 2020-2024.

Joan-etorri mota	2020		2021		2022		2023		2024	
	Tonak milakotan	Urteko Δ %	Tonak milakotan	Urteko Δ %	Tonak milakotan	Urteko Δ %	Tonak milakotan	Urteko Δ %	Tonak milakotan	Urteko Δ %
Eskualde arteko garraioa ¹	42.995	-6,4	47.544	10,6	47.829	0,6	46.459	-2,9	44.871	-3,4
Udalerrri barnekoa	7.623	43,7	10.402	36,5	8.309	-20,1	7.704	-7,3	7.666	-0,5
Udalerrri artekoa	35.372	-13,0	37.142	5,0	39.520	6,4	38.755	-1,9	37.205	-4,0
Eskualde arteko garraioa ²	44.806	-9,0	50.569	12,9	50.468	-0,2	50.151	-0,6	51.428	2,5
Beste autonomia-erkidego batzuetatik jasoa	21.589	-13,0	27.182	25,9	24.143	-11,2	23.453	-2,9	25.383	8,2
Beste autonomia-erkidego batzuetara bidalia	23.218	-4,9	23.387	0,7	26.325	12,6	26.698	1,4	26.045	-2,4
Nazioarteko garraioa	6.101	-10,9	7.065	15,8	6.710	-5,0	6.753	0,6	7.286	7,9
Jasoa	2.983	-2,9	3.447	15,6	3.098	-10,1	3.437	10,9	3.647	6,1
Bidalia	3.118	-17,4	3.618	16,0	3.612	-0,2	3.316	-8,2	3.639	9,7
EAE, guztira	93.902	-8,0	105.178	12,0	105.007	-0,2	103.363	-1,6	103.585	0,2


¹ EAE abiapuntu eta helmuga duena (udalerrri arteko garraioa eta udalerrri barneko garraioa sartzen dira).

² EAEn eta beste autonomia-erkidego batzuen artekoa.

Iturria: Salgaien Errepideko Garraioari buruzko Etengabeko Inkesta. Sustapen Ministerioa.

Desplazamendu mota bakoitzaren proportzioari dagokionez, errepide bidez ibilgailu astunetan garraiatutako merkantzien ia erdia (% 49,7) beste autonomia-erkidego batzuetatik zetorren edo beste autonomia-erkidego batzuk zituen helburu. Eskualde barruko garraioa karga osoaren % 43,3koa izan zen, eta gainerako % 7a nazioarteko jatorria edo helmuga zuten produktuei lotuta zegoen.

3.8 grafikoa EAEn eta gainerako autonomia-erkidegoen arteko eskualde arteko salgaien garraioa 2024.



Iturria: Salgaien Errepideko Garraioari buruzko Etengabeko Inkesta. Sustapen Ministerioa.

Eskualdeen arteko merkataritza-zirkulazioari dagokionez, beste behin, Gaztela eta Leon izan zen EAEko merkataritza-lotura nagusia, 10,5 milioi tonarekin, hau da, beste erkidego batzuekiko trukeen % 20,5 bildu zuen autonomia-erkidego hark. Sailkapeneko hurrengo postuan Nafarroa azaltzen da, 9,1 milioi tonako trukeekin. Autonomia-erkidego horren proportzioa % 17,7koa izan zen. Kantabria hirugarren bazkide mantendu zen, 6,2 milioi tonarekin merkantzien garraioan, eta eskualdeen artean garraiatutako kargari dagokionez % 12ko proportzioarekin.

Hauek izan ziren trukaturako merkantzien bolumenean igoera handiena izan zuten autonomia-erkidegoak: Kantabria, 1,2 milioi tona gehiagorekin (2023an baino +% 23,9 gehiago); Katalunia, milioi bat tona gehiagorekin (+% 28); eta Aragoi, 680 mila tona gehiagorekin (+% 18,4).

Bestalde, EAErekin izandako produktuen trafikoan jaitsiera handiena jasan zuten autonomia-erkidegoak honako hauek izan ziren: Nafarroa, 831 mila tona gutxiagorekin (-% 8,3, 2023ko datuekin alderatuta), Andaluzia, 558 mila tona gutxiagorekin (-% 34,5) eta Madril, 528 mila tona gutxiagorekin (-% 15,2).

Laburpen
Exekutiboa

0

Esparru
Orokorra

1

Bilakaera
Orokorra

2

**Errepide
Bidezko
Garraioa**

3

Tren
Bidezko
Garraioa

4

Aire
Bidezko
Garraioa

5

Itxaso
Bidezko
Garraioa

6

Beste
Garraiobide
Batzuk

7

Ondorio
eta Joera
Nagusiak

8

Helburuak eta
Mugikortasun
Jasangarria

9

Funtsezko
Adierazleak

10


Eranskinak

11



3.9 grafikoa Eskualde barneko eta eskualde arteko salgaien errepede-garraioaren tipologia. 2024 (%).

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Esparru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 **Errepide Bidezko Garraioa**
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itxaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak



Iturria: Salgaien Errepideko Garraioari buruzko Etengabeko Inkesta. Sustapen Ministerioa.

Eskualde arteko eta eskualde barruko esparruan (jatorria eta helmuga EAE) merkaturatutako produktuen tipologiari dagokionez, bi multzo nagusi nabarmendu behar dira: makinak, ibilgailuak eta objektu manufakturatutakoak (trafiko osoaren % 25,6) eta mineralak eta eraikuntzarako materialak (% 23,6). Horien atzetik, antzeko proportzioa zuten bi kategoria azaltzen ziren: produktu metalurgikoak (% 14,1) eta elikagaiak eta bazka-produktuak (% 12,7). Produktu metalurgikoek (+% 35,8) eta birgaldatzeko mineralek eta hondakinek (+% 25,2) gorakada handia izan zuten merkantzia-zirkulazioan. Lehenengoen kantitatea 3,6 milioi tonakoa izan zen, eta bigarrenak, aldiz, 1,5 milioi tona igo ziren. Aldiz, trukeak gutxitu egin ziren makinetan, ibilgailuetan eta manufakturatutako produktuetan, eta jaitsiera 2,7 milioi tonakoa izan zen (-% 9,9). Gauza bera gertatu zen nekazaritzako eta animalientzako produktuekin, 1,6 milioi tonatan gutxitu baitziren (2023ko datuekin alderatuta, -% 18,5).



Tren Bidezko garraioa

4.



4. Tren Bidezko garraioa

4.1 Trenbidezko garraioaren eskaintza Euskadin

EAEko tren-azpiegiturak bi administratzailek kudeatzen dituzte 2013ko urtarrilaren 1az geroztik:

- ▶ Adif-Trenbide Azpiegituren Administrazioa: trenbide horietatik, Renfe operadore nagusiak Estatuko hiriburu nagusiekin lotzen du EAE.
- ▶ ETS-RFV (Euskal Trenbide Sarea): Euskotren operadoreak ematen ditu hiriarteko zerbitzuak, Bilboko Metroak metropoli horretan jarduten du, eta EuskoTrenen tranbiak Bizkaiko eta Arabako hiriburuetako hiri-eremuetan ematen ditu zerbitzuak.

2023an, EAEko tren-lineen dentsitatea handiagoa izan zen Europako herrialde guztietan eta estatu mailan izan zena baino. Kopuruei dagokienez, Euskadiko trenbide-sareak 582 km zituen eta 82,1 m/km²-ko dentsitatea. EB-27koa (2022an 47,8 m/km², eskuragarri dagoen azkeneko datua) eta estatukoa baino handiagoa da indize hori (31 m/km²)-2 Euskadin, trenbideen elektrifikazio maila % 92,3koa zen eta alde handiarekin gaintzen zuen estatuko trenbide-sisteman (% 66,9) eta EB-27n elektrifikatutako sarearen proportzioa (2022an % 56,9, argitaratutako azken informazioa).

4.1 koadroa EAEko, Estatuko eta EB-27ko trenbide-lineen dentsitatea. 2023.

	Guztira	Elektrifikatu gabeak		Elektrifikatuak		Bide-mota	
		Guztira	Guztizkoaren %	Guztira	Guztizkoaren %	Guztira	Guztizkoaren %
Luzera (km)							
EAE	582	45	7,7	537	92,3	251	331
Estatua	15.649	5.185	33,1	10.464	66,9	9.468	6181
EB-27 ¹	202.131	87.140	43,1	114.991	56,9	--	--
Dentsitatea (m/km ²)							
EAE	82,1	6,3	--	75,7	--	35,4	46,7
Estatua	31,0	10,3	--	20,7	--	18,8	12,2
EB-27 ¹	47,8	20,6	--	27,2	--	--	--

¹ EB-27ri buruz eskuragarri dauden azken datuak 2022koak dira.

Iturria: Euskal Trenbide Sarea (ETS), Espainiako Garraio eta Logistikaren Behatokia (OTLE).

Jarraian, Euskadiko trenbide-azpiegituren bi administratzaileen ezaugarri nagusiak azalduko ditugu, hau da, Adif (trenbide-sare konbentzionala eta zabalera metrikoko sarea bereizita) eta ETS-RFVrenak. Ondoren, EAEko trenbide-egiturako operadoreen zerbitzu-eskaintza aztertuko dugu.



4.1.1 Adif-Administrador de Infraestructuras Ferroviarias

2024an, Adifen trenbide-sareko lineek 360,9 kilometroko luzera zuten (luzera berbera 2019tik). Trenbide bikoitzen proportzioa % 63,6koa zen eta linea elektrifikatuak sare osoaren % 92,8 ziren. Renfek jarraitu zuen trenbide-sistema konbentzionaleko operadorek garrantzitsuena izaten. Honako linea hauetan lan egin zuen:

- Bilboko aldiriak (C-1 linea, Bilbo Abando-Santurtzi; C-2 linea, Bilbo Abando-Muskiz; eta C3 linea, Bilbo Abando-Urduña).
- Donostiako aldiriak (Irun-Brinkola linea).
- Distantzia ertain eta luzeko zerbitzua, Distantzia luzeko zerbitzua: Irun-Donostia-Madril ibilbidea, Gasteiz-Madril ibilbidea eta Bilbo-Madril ibilbidea egiten ditu; baita Bilbo-Bartzelona eta Irun-Donostia-Bartzelona ibilideak ere

2024an, apirilaren 9ko 368/2024 Errege Dekretua onartu zen, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzen baitzaizkio aldirietako trenetako bidaia-zerbitzuei dagozkien Estatuko Administrazioaren eginkizunak. Zerbitzuaren kudeaketaren transferentzia 2025eko urtariletik aurrera bihurtu zen eraginkor. Renfek jarraitzen du zerbitzuak ematen.

4.2 koadroa Adifen eskaintzaren oinarrizko datuak, Trenbide Sare Konbentzionala. 2024.

ADIF ETA ADIF AV TITULARTASUNA		
Lineen luzera, km-tan		2024
SARE KONBENTZIONALA	Bi bide	
	Irún-Donostia/San Sebastián-Vitoria/Gasteiz-Miranda de Ebro	178,80
	Bilbao-Orduña	40,30
	Bilbao-Barakaldo-Santurtzi	13,60
	Bi bide, guztira	232,70
	Bide bakarra	
	Orduña-Miranda	62,90
	Barakaldo-Muskiz	13,10
	Aguja de enlace-Bif. Castilla	2,00
	Santurtzi-Bilbao Mercancías	3,35
	Irún-PK 641,181	1,78
	Bide bakarra, guztira	83,13
	Bi bide	
	Bilbao-Zamarillo	12,61
AM	Bi bide, guztira	12,61
	Bide bakarra	
	Zamarillo-La Calzada	46,62
	Bide bakarra, guztira	46,62
UIC	Bide bakarra	
	Irún-PK 641,181	1,78
	Bide bakarra, guztira	1,78
Guztira	Guztira	
	ADIF eta ADIF AV, bi bide, guztira	245,31
	ADIF eta ADIF AV, bide bakarra, guztira	131,52
	ADIF eta ADIF AV, guztira	376,83

Iturria: Espainiako Garraio eta Logistikaren Behatokia (OTLE).



Trenbide-sare konbentzionalean, Renfek eskualdeko hiru lineetan emandako zerbitzua murriztu egin da aldagai guztietan. Erabiltzaileen esku jarritako trenen kopurua % 12,9 gutxitu zen 2023ko datuekin alderatuta, kilometro bakoitzeko kopurua % 0,2 jaitsi zen eta kilometro bakoitzeko plazen proportzioa % 0,7 jaitsi zen (kilometro bakoitzeko 525,5 milioi plazako kopurua gaindituta).

Renferen aldiriko lau lineetan gutxitu egin ziren eskainitako trenak (-% 3,7, 2023koarekin alderatuta) eta gauza bera gertatu zen eskainitako kilometro bakoitzeko tren kopuruan (-% 7,7 aurreko ekitaldiarekin alderatuta). Kilometro bakoitzeko postu kopurua, aldiz, % 2,7 hazi zen, kilometro bakoitzeko 998,7 milioi plazaraino.

Donostiako ibilbide laburreko trenak % 19,4 egin zuten behera, 19,8 mila konboira arte. Eskainitako kilometro bakoitzeko tren kopuruak % 18,6 gutxitu ziren, 1,4 milioira arte; kilometro bakoitzeko plaza kopurua, berriz, % 6,5 igo zen, kilometro bakoitzeko 417 milioi eserlekura arte.

Bilboko aldiriko trenen sareak ez zuen aldaketarik izan 2023koarekin alderatuta: 101,7 mila tren (+% 0,1), kilometro bakoitzeko 2,4 milioi tren eta 581 milioi eserleku eskaini zituen.

4.3 koadroa Renferen eskaintzaren oinarrizko datuak, trenbide sare konbentzionala. 2022-2024

	2022	2023	2024
ESKUALDEETAKO LINEAK			
Linea kopurua	3	3	3
Eskainitako tren kopurua	6.659	8.216	7.154
Eskainitako kilometroko tren kopurua	2.217.407	2.341.996	2.336.784
Eskainitako kilometroko plaza kopurua	499.465.509	528.989.355	525.501.595
ALDIRIETAKO LINEA			
Linea kopurua	4	4	4
Eskainitako tren kopurua	125.901	126.115	121.436
Eskainitako kilometroko tren kopurua	4.179.134	4.185.783	3.862.608
Eskainitako kilometroko plaza kopurua	969.531.220	972.899.856	998.683.426

Iturria: Renfe

4.1.2 ETS-Euskal Trenbide Sarea

EAEko trenbide-egituraren deskribapena osatzeko, ETS – Euskal Trenbide Sareak administratzen dituen azpiegiturekin lotutako alderdiak aztertuko ditugu. Bi operadorek eskaintzen dituzte zerbitzuak sare horretan: EuskoTren eta Bilboko Metroa. Jarraian, ETSren ezaugarri nagusiak zehaztuko ditugu:

a) EuskoTrenen kudeatutako ETSren azpiegiturak

2024an ez zen aldaketarik izan Euskotrenen kudeatutako ETSren azpiegiturretan. Trenbide-sisteman, bide elektrifikatuek partaidetza handiagoa dute: 187,4 km-ko luzera (sare osoaren % 97,4). Bide motaren arabera, bide bakarra dago 121,8 km-an (ETSren sarearen % 65). Aldiz, bi bideko tartek 65,6 km ditu.

Euskotrenen 3 lineetan ematen du zerbitzua:

- 1) Bilbo-Donostia linea eta Amorebieta-Bermeo adarra: 109 kilometro inguruko ibilbidean (Bilbo-Donostia zatia), EuskoTrenen hainbat lotune ditu, garraioko beste linea edo modu batzuekin. Zehazki, Bizkaiko hiriburuan, Boluetako geltokian, Bilboko Metroa hartzeko lotunea dago; Galdakaon, Usansoloko ospitalera joateko EuskoTrenen mikrobusa hartzeko; Zumaian, EuskoTrenen autobusak har daitezke (Urola eskualdean ematen dute zerbitzua);

Laburpen
Exekutiboa

0

Esparru
Orokorra

1

Bilakaera
Orokorra

2

Errepide
Bidezko
Garraioa

3

Tren
Bidezko
Garraioa

4

Aire
Bidezko
Garraioa

5

Itxaso
Bidezko
Garraioa

6

Beste
Garraiobide
Batzuk

7

Ondorio
eta Joera
Nagusiak

8

Helburuak eta
Mugikortasun
Jasangarria

9

Funtsezko
Adierazleak

10

Eranskinak

11

eta, Donostian, Amarako geltokian, EuskoTrenen Topo trena har daiteke, Hendaiarantz joateko. Horrez gain, linea horrek Zornotza-Bermeo adarra du, 29 kilometro baino gehiagoko luzera duen trenbidea.

- 2) Lasarte Oria-Donostia-Hendaia linea: Bilbo-Donostia linearen sare berbera erabiltzen du linea horrek Errekaldeko eta Amarako geltokien artean (Gipuzkoan biak ere), eta haietatik Bilbo-Donostia linea horretako trenak hartzeko aukera ere badago.
- 3) Bilbo (Deustu)-Lezama: 22 kilometrotik gorako ibilbidea du, eta Txorierriko herriekin lotzen du Bilbo. Bilboko Metroarekin konexioa du Alde Zaharreko geltokian

2024an, Euskotrenek tren gutxiago jarri zituen zirkulazioan, eta 260,5 mila tren eskaini zituen (2023koarekin alderatuta, -% 0,4). Eskainitako plazen kopurua % 0,5 gutxitu zen aurreko urtearekin alderatuta, eta 100,7 milioi posturaino iritsi zen. Aldiz, eskainitako kilometro kopurua 5,6 milioira igo zen (+% 1,8), eta plaza/km-ko kopurua 2.400 milioira hurbildu zen (+1,6, aurreko urtearekin alderatuta).

4.4 koadroa Oinarrizko datuak gaur egun Euskotrenek zerbitzua ematen dion ETSren azpiegiturari buruz. EuskoTrenen eskainitako zerbitzuak. 2022-2024

	2022	2023	2024
Linea kopurua	3	3	3
Linea arrunten luzera (km)	187,4	187,4	187,4
Bide bakarreko linea arrunten luzera (km)	121,8	121,8	121,8
Bi bidezko linea arrunten luzera (km)	65,6	65,6	65,6
Elektrifikatutako linea arrunten luzera (km)	182,5	182,5	182,5
Elektrifikatu gabeko linea arrunten luzera (km)	4,9	4,9	4,9
Eskainitako tren kopurua	256.962	261.546	260.484
Eskainitako plaza kopurua	99.159.099	101.223.522	100.720.840
Eskainitako km kopurua	5.632.354	5.533.864	5.631.550
Eskainitako kilometroko plaza kopurua	2.395.352.289	2.359.367.923	2.397.400.510

Oharra: Larreinetako funikularrari buruzko datuak jaso dira. Ez dira jaso tranbiako lineei eta Metro Bilbaoren 3. lineari buruzko datuak.

Iturria: Euskal Trenbide Sarea (ETS), lineen kopuru eta luzerari buruzko informazioari dagokionez -Euskotren, tren-, toki-eta kilometro-kopuruaren eskaintzari buruzko informazioari dagokionez.

b) Bilboko Metroak kudeatutako ETSren azpiegiturak

ETSren azpiegiturak, Metro Bilbaok operatutakak, ez zuen aldaketarik izan 2024an. 2 linea ditu: 1. linea - Plentzia-Basauri, eskuinaldeko udalerrietan zehar igarotzen dena; eta 2. linea - Santurtzi-Basauri, ezkerreko metropoliarekin lotzen duena. Bi lineek 45,1 km-ko luzera dute, eta 42 geltoki (26 lurpean eta 16 gainazalean), 84 sarbide eta 71 atarte dituzte.

2017ko apirilean hasi zen funtzionatzen Bilboko Metroaren 3. linea, eta Euskotren da linea horren operadorea. Horrek indartu egin du metroaren egungo egitura, orain guztira 3 linea baititu. Gainera, datozen urteetan sareari beste bi linea gehitzeko aurreikuspenak ditu: 4. linea - Matiko-Errekalde (proiektu-fasean) eta 5. linea - Etxebarri-Ospitalea (proiektu-fasean).



4.5 koadroa Bilboko Metroaren azpiegitura eta eskaintzaren oinarritzko datuak. 2022-2024

	2022	2023	2024
Linea kopurua	2	2	2
Geltoki kopurua	42	42	42
Lineen luzera (km)	45,1	45,1	45,1
Eskainitako km kopurua	4.578.190	4.751.753	4.733.588
Eskainitako kilometroko tren kopurua	20.483.542	21.255.827	21.391.976
Eskainitako kilometroko plaza kopurua	3.003.066.259	3.116.411.963	3.153.377.958

Iturria: Bilboko Metroa.

2024an, Metro Bilbaok eskainitako kilometro kopuruan jaitsiera txikia gertatu zen, 4,7 milioi km-ra arte (-% 0,4 2023ko datuekin alderatuta); kilometro bakoitzeko kotxe kopurua, aldiz, igo eta trenbideko 21,4 milioira (+% 0,6) gerturatu zen, eta bidaiarien esku jarritako kilometro bakoitzeko plazen eskaintza igo eta 3.153 milioira iritsi zen (+% 1,2, aurreko urtearekin alderatuta).

c) EuskoTrenek kudeatutako ETSren tranbia-azpiegiturak

EAEko trenbide-egitura osatzeko, EuskoTrenek lan egiten duen ETSren tranbia-sistemaren ezaugarriak zehaztu ditugu. Zerbitzua Gasteizko Tranbiak eta Bilboko Tranbiak eskaintzen dute. Programa berriak garatzen eta lehendik zeuden lineak luzatzen ari dira sare horretan, datozen ekitaldietan egitura handitzeko.

2024an egonkor mantendu zen trenbide-azpiegitura aurreko ekitaldiarekiko, bai Bilbon, bai Gasteizen. Bizkaiko hiriburuko eskaintza 16 geltokik osatzen zuten, eta 7,76 km-ko luzera zuen, Bolueta eta La Casilla geltokien artean. Noranzko bikoitzeko bideak 6,08 km luze ziren, guztizkoaren % 78,4ko kuotarekin, eta noranzko bakarreko bideek 1,68 km egiten zituzten, hau da, lineen % 21,6.

Bilbon, tranbiaren eskaintza % 1,1 hazi zen tren kopuruari eta eskainitako plazei zegokienez, eta 2024an 57,1 mila tren eta 8,7 milioi postu jarri ziren herritarren zerbitzura. Egindako kilometro eta kilometro bakoitzeko plaza kopuruak % 0,9 igo ziren 2023koekin alderatuta, eta ekitaldia 425,1 mila km-rekin eta kilometro bakoitzeko 65 milioi eserlekurekin itxi zen.

Arabako hiriburuak 11,9 km-ko ibilbidea egiten duten 2 lineako tranbia-sistema eta 28 geraleku zituen. Trenbide bikoitzeko lineak sarearen % 88,2 ziren. 2024an, Gasteizko tranbiak ratio guztiak hobetu zituen. Hala, eskainitako tren eta plazak % 5,6 igo ziren; hau da, 102,8 mila tren eta 23,8 milioi toki izan ziren. Kilometroak eta kilometro bakoitzeko plaza kopuruak % 5,2 ugaritu ziren 2023ko datuei dagokienez: 698,9 mila kilometro egin zituzten, eta kilometro bakoitzeko eskainitako eserleku kopurua 161,4 milioikoa izan zen.



4.6 koadroa EuskoTrenen tranbia-eskaintzaren oinarrizko datuak 2023-2024



	Bilbao		Vitoria-Gasteiz	
	2023	2024	2023	2024
Linea kopurua	1	1	2	2
Geltoki kopurua	16	16	28	28
Lineen luzera (km)	7,76	7,76	11,90	11,90
Lineen luzera (bide bakarra)	1,68	1,68	1,40	1,40
Lineen luzera (bide bikoa)	6,08	6,08	10,50	10,50
Gehieneko edukiera (pertsonak) (*)	192 (50 eserleku eserita)	192 (50 eserleku eserita)	244 (52 eserleku eserita)	244 (52 eserleku eserita)
Aplikaturako edukiera (pertsonak) (*)	125 (50 eserleku eserita)	125 (50 eserleku eserita)	152 (52 eserleku eserita)	152 (52 eserleku eserita)
Eskainitako tren kopurua	56.498	57.097	97.394	102.834
Eskainitako plaza kopurua	8.643.888	8.735.841	22.498.014	23.754.654
Eskainitako km kopurua	421.240	425.098	664.420	698.886
Eskainitako kilometroko plaza kopurua	64.449.756	65.040.069	153.481.199	161.442.714

(*) EuskoTrenek aplikaturako edukiera txikiagoa da fabrikatzaileak zehaztutako gehieneko edukiera baino. Gehieneko erosotasuneko irizpideen arabera zehazten da, Europako erreferentzia oinarri hartuta, metro koadroko 4 pertsona.

Iturria: Euskotren.

4.1.3 Euskal Trenbide Sare berria - ETS eta Adif

Europar Batasunak Euskadi Atlantikoko trenbide-korridorean sartzeari erabaki zuen, eta erabaki horrek Euskadiko trenbide-sareak EBko sareetan duen parte hartzea areagotu du, batetik, eta bultzada handia izan da, bestetik, EAEko trenbide-sare berriarentzat ("Euskal Y" deritzonarentzat). EAEko azpiegituren proiektu nagusietako bat da, eta Gasteizen trenbide-lotune bat jartzeko aukera ematen du, Estatuko gainerako lurraldeekin komunikatzeko, eta Europako gainerako lurraldeekin komunikatzeko, Irunen Europa doazen trenbideekin lotuz eta Bilboko porturantz hurbilduz. Trenbide-azpiegitura horrek pertsonak eta salgaiak garraiatuko ditu. Gainera, "Euskal Y"-ak EAEko hiru hiriburuak lotuko ditu, haien arteko joan-etorriak bizkortuz eta haietan iraunkortasuna hobetuz.

Azpiegitura hori Europako bideen zabalera estandarrera egokitu da, eta aukera emango du Euskal Autonomia Erkidegoa Europa barneko abiadura handiko sarean sartzeko. Espainiako bideen ezaugarriak izateak Europarekin lotzeko sortu izan dituen oztopoak gainditzea ekarriko du, eta, horrenbestez, Europako merkatuetan sartu ahal izango da, kostu txikiagoarekin.

Sare berriak 172 kilometroko ibilbidea izango du. Trenbide berriaren trazaduraren % 60 ezkutuan egongo da, 80 tunelen bidez (104,3 km), % 9,9 obra horren barruan sartu diren 71 biaduktoren gainean joango da, eta gainerako % 29,5 aire zabalean. Trenbide-azpiegitura berriak sei geltoki izango ditu: Bilbo (Abando), Gasteiz (Arriagako parkea), Donostia (Atotxa), Astigarraga, Irun eta Ezkio-Itsaso.

Gobernu zentrala arduratuko da abiadura handiko trenbide-azpiegitura eraikitzeaz, Sustapen Ministerioaren bidez. Alde horretatik, "Euskal Y"-aren harira, Ministerioak eta EAEko Administrazioak akordio bat sinatu zuten 2006ko apirilaren 24an; akordio horren bidez, Sustapen Ministerioak eskumenaren zati bat Eusko Jaurlaritzari laga zion, eta berarentzat gorde zituen Araba eta Bizkaiko tarteen eraikuntza, "Euskal Y"-ak Arrasaten, Elorrioren eta Bergaran izango dituen lotuneen eraikuntza eta Bilboko eta Gasteizko sarrerena. Adif arduratuko da lan horiek egiteaz eta 2.536 milioi euroko inbertsioa izango da guztira.



- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Esparru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 **Tren Bidezko Garraioa**
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itxaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak

Eusko Jaurlaritza, berriz, Gipuzkoako azpiegituraren zati handienaz arduratuko da. Euskal Trenbide Sarea sozietate publikoa Bergara-Irun-Donostia tarreak egiteaz arduratuko da; 1.642 milioi euroko aurrekontua izango du, eta Estatuari eman beharreko kupotik kenduko da zenbateko hori.

2024an, ETSk bere ardurapeko 20 zatietan obrak egiten jarraitu zuen, eta Hernani eta Astigarraga arteko zatia eta Donostiarako abiadura handiko sarbideak amaitu zituen.


4.2 Pertsonen tren bidezko mugikortasuna Euskadi

4.2.1 Hiriko / metropoliko garraioa

a) Bilboko Metroa

2024an, Metro Bilbaok emaitza bikaina izan zuen, 100 milioi erabiltzaile baino gehiago izan baitzituen. Beste nolabait esanda, azpiegituraren historian mugarri berria lortu zuen. Zehazki, 100,4 milioi pertsonak bidaiatu zuten azpiegitura horretan, eta bidaiarien kopuruak % 8,6ko igoera izan zuen 2023koarekin alderatuta (aurreko ekitaldian baino 8 milioi bezero gehiago, gutxi gorabehera). Zonaldeka, erdiguneko tarreak 2023an baino 5,3 milioi bidaiari gehiago (+% 10,4) izan zituen (huraxe izan zen gehien hazi zen eremua). 2. linean, 1,6 bidaiari gehiago izan ziren (+% 6,7). 1. linean, berriz, 1,1 milioi bidaiari gehiago izan ziren (+% 6,3).

4.1 grafikoa Hiriko eta metropoli-inguruko garraio publikoa: Bilboko metroaren erabiltzaile kopuruaren bilakaera(milaren). 1995-2024.



¹ Martxan jarri zutenetik (1995eko azaroaren 11tik) urte amaiera arte.

Iturria: Bilboko Metroa.

2023koarekin alderatuta, ez zen aldaketarik izan oinezkoen fluxu handiena zuten terminalen sailkapenean. Zazpikaleak izan zen bidaiari gehien izandako geltokia, 8,3 milioirekin (+% 11,2, 2023koarekin alderatuta). Santimami azaltzen da bigarren postuan, 7,5 sarrerarekin (+% 13,3) eta hirugarren postuan Abando dago 7 milioi pertsonarekin (+% 9,6). Jarraian, Moyua 6,8 milioi bidaiarirekin (+% 12,6) eta Indautxu daude, 6,3 milioi joan-etorrirekin (+% 7,3). Guztiak batera hartuta, bidaiari gehien pilatu zituzten bost geltokiek Metro Bilbaon egindako bidaien herena baino gehiago (% 35,8) jaso zuten.

Laburpen
Exekutiboa

0

Esparru
Orokorra

1

Bilakaera
Orokorra

2

Errepide
Bidezko
Garraioa

3

Tren
Bidezko
Garraioa

4

Aire
Bidezko
Garraioa

5

Itxaso
Bidezko
Garraioa

6

Beste
Garraiobide
Batzuk

7

Ondorio
eta Joera
Nagusiak

8

Helburuak eta
Mugikortasun
Jasangarria

9

Funtsezko
Adierazleak

10

Eranskinak

11


Ezkerraldean gehien erabilitako geltokiak Barakaldo (3,8 milioi txartel, +% 7,3) eta Gurutzeta (3,7 milioi bidaia, 2023an baino +% 5,8 gehiago) izan ziren. Eskuinaldean, beste behin, Areeta izan zen bidaia gehien pilatu zuen geltokia, 3,6 milioi ingururekin (+% 6,3). 2024an, geltoki guztiek % 3,4 eta % 15,7 arteko hazkundea izan zuten bidaiari kopuruan.

Txartelen erabilerari dagokionez, Creditrans izan zen gehien erabilitako txartel mota (metroan egindako bidaien % 56,4). Bigarren postuan azaltzen da Gizatrans, eta bidaiarien % 12,2k erabili zuten. Hirugarren txartel erabiliena, aldiz, Bidai 50 izan zen, eta bidaiari guztien % 10,2k erabili zuten.

b) EuskoTren tranbia

2024an, EAEko tranbia-sistemaren erabiltzaileak % 19,4 ugaritu ziren aurreko urtearekin alderatuta. Zehazki, 14,8 milioi pertsona inguruk erabili zuten garraiobide hori. Ekitaldi horretan, bidaiarien kopuruari dagokionez errekorra lortu zen Bilboko eta Gasteizko tranbietan.

4.2 grafikoa Hiriko garraio publikoa: bidaiarien bilakaera EuskoTrenen Tranbian. 2002-2024.



¹ Martxan jarri zutenetik (2002ko abenduaren 12tik) urte amaiera arte.

Iturria: Euskotren.

Bilbon, tranbiaren erabiltzaileak 3,8 milioi inguru izan ziren; hau da, 2023an baino % 20,7 gehiago, eta, termino absolututan, 1,9 milioi bidaiari gehiago.

Arabako hiriburuan, 10,9 milioi joan-etorri baino gehiago izan ziren, eta % 15,7 ugaritu ziren 2023an egindako bidaiak. Gasteizko tranbiaren kasuan, 2023ko datuekin alderatuta, 2024an 510 mila bidaiari gehiagok erabili zuten.

4.2.2 Herriarteko garraioa

Azterketa hiriarteko eremura zabalduta, bi enpresak ematen dute tren-zerbitzua: Renfek (sare konbentzionalean eta zabalera metrikoko sarean) eta EuskoTrenek¹³. 2024an, Euskadiko herri arteko tren-zerbitzu erregularrean 52,3 milioi pertsonak bidaiatu zuten, aurreko urtean baino % 0,7

¹³ Eranskinetako taulan kontsulta daitezke datuak: Herriarteko garraio publikoa: Ohiko trenbide-zerbitzuetako bidaiariak. 2000-2022.



- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Esparru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 **Tren Bidezko Garraioa**
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itxaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak

gehiagok. Operadoreen bilakaera aurkakoa izan zen, Renfek bidaiarien kopuruan jaitsiera izan eta Euskotrenek joan-etorriak ugaritu baitzituen.

Renferen sare konbentzionalak 19,2 milioi pertsona garraiatu zituen, eta % 12,4ko jaitsiera izan zuen; hau da, 2023an baino 2,7 milioi gutxiago. Renferen aldiriko sareak, zabalera konbentzionalekoak, hiriarteko bidaien % 36,7 jaso zuen, Metro Bilbaoren trafikoa kontuan hartu gabe.


Aldirietako sarea nukleoen arabera banatuz, Bilboko lineetan (C-1 Bilbo Abando-Santurtzi, C-2 Bilbo Abando-Muskiz eta C-3 Bilbo Abando-Urduña) 13,9 milioi pertsona garraiatu zituen eta % 5,2ko gutxitu zen. Aurreko ekitaldian baino 762 mila bidaiari gutxiago izan zituen.

Donostiako aldiriko bidaiak (C1 Irun-Brinkola) 5,3 milioi izan ziren; hau da, % 27 gutxiago izan ziren eta 2023an baino 2 milioi pertsona gutxiagok erabili zuten (gutxi gorabehera).

Renfek, zabalera metrikotan, 696 mila bidaiari izan zituen; hau da, % 11,3ko jaitsiera eta 89 mila joan-etorri gutxiago izan zituen.

Pertsonen tren bidezko trafiko erregularra Euskotrenek ematen duen zerbitzuarekin osatzen da. Zerbitzu horrek 32,4 milioi pertsona garraiatu zituen eta % 10,8ko igoera izan zuen (2023an baino 3,2 milioi erabiltzaile gehiago). Banaketa lurralde historikoen arabera egiten badugu, Bizkaiko eta Gipuzkoako aldiriko zerbitzuen kopuruak hobetu egin zirela ikusiko dugu. Gipuzkoako sarea 17,5 milioi pertsonak erabili zuten eta igoera % 9,6koa izan zen; hau da, 2023an baino 1,5 milioi desplazamendu gehiago Bizkaian, gertuko trenbide-zerbitzua 14,9 milioi lagunak erabili zuten, eta % 12,2ko igoera izan zuen (aurreko ekitaldian baino 1,6 milioi bidaiari gehiago). Aldakuntza horrekin, Euskotrenek EAEko hiriarteko trenbide-sistemako bidaiarien % 61,9 garraiatu zuen.

4.3 grafikoa Hiriarteko garraio publikoa: tren-zerbitzu erregularren erabiltzaile kopuruaren bilakaera. 1980-2024.



¹ Zerbitzu hauek sartzen dira: Bilboko aldirietako zerbitzua (C-1 linea, Abando eta Santurtzi artekoa; C-2 linea, Abando eta Muskiz artekoa; eta C-3 linea, Abando eta Urduña artekoa), eta Donostiako aldirietako zerbitzua (Irun eta Brinkola arteko linea).

² Bilbo eta Balmaseda arteko lineari buruzko datuak.

Iturria: Renfe eta Euskotren.

Alderaketa denbora-tarte handiagoarekin egiten badugu, hiriarteko tren bidezko bidaiak 80ko hamarkadaren hasierako urteekin alderatuta % 17,4 murriztu zirela ikusiko dugu. Horrek 11 milioi bidaiari inguruko jaitsiera esan nahi du. Zifra horiek aztertzean, kontuan hartu behar da garraio

Laburpen
Exekutiboa

0

Esparru
Orokorra

1

Bilakaera
Orokorra

2

Errepide
Bidezko
Garraioa

3

**Tren
Bidezko
Garraioa**

4

Aire
Bidezko
Garraioa

5

Itxaso
Bidezko
Garraioa

6

Beste
Garraiobide
Batzuk

7

Ondorio
eta Joera
Nagusiak

8

Helburuak eta
Mugikortasun
Jasangarria

9

Funtsezko
Adierazleak

10

Eranskinak

11


kolektiboaren bilakaerak eremu geografiko bakoitzean dagoen eskaintzaren jardunaren ikuspegi orokorra eskatzen duela. 2024an, pandemiaren aurreko jarduera maila nabarmen gainditu zen, hala ere, azken hamarkadetan Bizkaiko Lurralde Historikoan bidaia-erabiltzailearen esku garraio publiko kolektiboko beste garraiobide batzuen eskaintza handiagoaren ondorio da, hala nola aipatutako Metro Bilbaorena, zeinak Bizkaiko hiriburuko metropolialdean Renferen aldirietako zerbitzutik etorritako bidaia-erabiltzaile gehienak hartu baititu.

4.2.3 Eskualdearteko garraioa

Distantzia ertaineko trenen zerbitzuak Renfek eskaintzen ditu sare konbentzionalen, EAEko eta EAEtik kanpoko udalerriak lotuz. 2024an, 1,28 milioi bidaia egin ziren (277,8 mila pertsona igo ziren trenera Euskadin, 495,1 mila pertsonaren helmuga Euskadi zen, eta 512,7 mila bidaia-erabiltzailek eskualde barruko bidaia egin zituzten).

Distantzia ertaineko sareko erabiltzaileen % 39,9k EAEn bertan zuten jatorria eta helmuga. Trafiko handieneko eskualdea Gaztela eta León izan zen, distantzia ertaineko trenbide-sareko bezeroen % 31,8k aukeratu baitzuten. Jarraian, Madrilgo Komunitatea azaltzen da, bidaia-erabiltzaileen % 7,8 pilatu baitzuten. Azkenik, Aragoi aipatu behar da, Euskadin eskualdeko zerbitzua erabili zuten bidaia-erabiltzaileen % 1,2 pilatu baitzuten.

4.4 grafikoa Renferen distantzia ertaineko bidaia-erabiltzaileen garraioa. Jatorria eta/edo helmuga (%). 2024.



Iturria: Renfe

Distantzia luzeko garraioari dagokionez, EAEko zerbitzua ematen duen operadorea Renfe da, bai trenbide-sare konbentzionalen, bai zabalera metrikoko trenbide-sarean.

2024an, 797,4 mila pertsonak erabili zituzten EAEko helmuga/jatorria duten distantzia luzeko ohiko lineen zerbitzuak¹⁴. Euskadin jatorria zuten bidaia-erabiltzaileak 376,7 mila izan ziren, eta EAEko egindako bidaia-erabiltzaileak, berriz, 395,3 mila. Distantzia luzeko zerbitzuetan egindako eskualde barruko joan-etorrien kopurua 25,4 milakoa izan zen.


¹⁴ Datuak eskuragarri daude eranskineko taulan: Renferen distantzia luzeko bidaia-erabiltzaileen garraioa. Jatorria eta/edo helmuga. 2021-2024.



- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Esparru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 **Tren Bidezko Garraioa**
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itxaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak

Irteera eta iritsiera kopuru handiena izandako eskualdea Madrilgo Komunitatea izan zen beste behin (guztizkoaren % 48,7). Kataluniak jarraitu zuen bigarren postuan, Euskadiko distantzia luzeko bidaiarien % 22,2ekin. Bidaiarien fluxuari dagokionez, hirugarren eskualdea Gaztela eta Leon izan zen, EAEra edo EAEtik egiten diren bidaien % 20,1 jaso edo abiapuntu izan baitzuen autonomia-erkidego hark. 2024an, ez ziren nazioarteko bidaiak zenbatu.

4.5 grafikoa Renferen distantzia luzeko bidaiarien garraioa. Jatorria eta/edo helmuga EAE (%). 2024.



¹ ez du barne hartzen eskualde barneko trafikoa (jatorria eta helmuga EAEen).
Iturria: Renfe.

4.3 Merkantzien tren bidezko trafikoa Euskadin

Jatorria eta/edo helmuga EAEen duten tren-merkantzien trafikoan bi konpainia daude: Renfek (trenbide-sare konbentzionaleko eta zabalera metrikoko sareko trafikoa burutzen ditu) eta Euskotrenek. Bi operadoreek 2024an garraiatutako produktuen bolumena 1.519,6 mila tonara gutxitu zen; hau da, 2023koarekin alderatuta -% 8,1.



4.7 koadroa EAE abiapuntu eta/edo xede duten tren bidez garraiatutako salgaien bolumena. 2002-2024.

(mila tona)


Urteak	Renfe, tren-sare arrunta konbentzionala	Renfe, zabalera metrikoko sarea	EuskoTren	GUZTIRA
2002	--	1.127,9	157,0	1.284,9
2003	5.475,9	1.041,6	154,2	6.671,7
2004	5.932,5	1.092,4	164,9	7.189,8
2005	4.441,9	1.054,4	148,0	5.644,3
2006	4.601,3	1.063,4	166,4	5.831,1
2007	4.479,3	1.088,4	173,6	5.741,3
2008	4.148,4	1.053,6	183,3	5.385,3
2009	2.767,5	823,7	121,4	3.712,6
2010	3.158,6	976,7	139,6	4.274,9
2011	2.953,8	948,7	138,9	4.041,5
2012	2.159,6	862,0	84,1	3.105,7
2013	2.375,6	816,9	0,5	3.193,0
2014	2.528,4	694,7	0,3	3.223,4
2015	2.384,2	745,4	8,3	3.137,9
2016	2.399,7		51,4	2.451,1
2017	2.211,2		46,7	2.257,9
2018	2.082,9		12,5	2.095,4
2019	1.781,1		5,5	1.786,6
2020	1.946,5		3,7	1.950,2
2021	1.942,3		69,6	2.011,6
2022	1.928,0		68,4	1.996,4
2023	1.631,2		22,3	1.653,5
2024	1.476,3		43,3	1.519,6

2016tik aurrera, Renferen datuak aintzat hartzen du Renfe Metrikoa

Iturria: Renfe eta Euskotren.

2024an, Renfek garraiatutako karga 1.476,3 mila tonara jaitsi zen (aurreko urteko datuekin alderatuta, % 9,5 gutxiago). Renfek garraiatutako merkantzien fluxua EAEko tren-merkantzien jardueraren % 97,2 izan zen (2023an, % 98,7koa).

4.6 grafikoa Renfek garraiatu dituen eta EAE abiapuntu eta/edo xede duten salgaien bolumena. 2022-2024.



2016tik aurrera, Renferen datuek aintzat hartzen dute Renfe Metrikoa

Iturria: Renfe

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Esparru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itxaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak




Renfek garraiatutako kargamentua lurralde historikoen arabera banatzean, ikusten da merkantzien % 56,2 Gipuzkoatik zetorrela edo Gipuzkoa zuela helburu; % 39,9 Bizkaitik zetorren edo Bizkaira zihoan, eta gainerako % 3,9 Araban kargatu edo deskargatu zen.

Aurreko urteko emaitzekin alderatuta, Bizkaian eta Gipuzkoan, trenbide-jarduera handiena duten bi lurraldeetan, jaitsi egin zen trenez garraiatutako salgaien kopurua eta igo, berriz, Araban. Bizkaian, garraiatutako produktuen kopurua 588,4 mila tonakoa izan zen; hau da, 2023an baino % 5,5 gutxiagokoa (-33,9 mila tona). Gipuzkoan, 829,8 mila tona garraiatu zituzten trenez eta jaitziera % 14,3koa (garraiatutako 138,7 mila tona gutxiago) izan zen. Azkenik, Araban tren bidez garraiatutako produktuen kopurua 58,2 mila tonara igo zen; hau da, % 44,1eko igoera izan zuen, 2023an baino 17,8 mila tona gehiagokoa.

EAEko eskualde arteko trukeak Renferen merkataritza-jardueraren % 98 izan ziren; izan ere, beste autonomia-erkidego batzuetatik iritsitako edo haietara bideratutako merkantzia bolumena 1.447,2 mila tonakoa izan zen. Merkataritza-bazkide garrantzitsuenei dagokienez, Gaztela eta Leon lehen postuan finkatu zen, kargaren herena baino gehiago Gaztela eta Leonera zuzendu baitzen edo autonomia-erkidego hura baitzuen jatorri (% 34,4). Madrilek bigarren postuan jarraitu zuen, merkantzien % 21,5ekin. Jarraian, Asturias (% 12,7), Aragoi (% 11,1) eta Katalunia (% 10,1) daude zerrendan. Hiru lurralde historikoetako trenbide bidezko garraio komertzialaren % 89,9 pilatzen dute bost eskualde horiek elkarrekin.

Eskualde barruko elkartrukeei dagokienez (EAE barruan jatorria eta helmuga), Renfek Euskadin garraiatutako merkantzien kuota % 2koa izan zen¹⁵.

4.7 grafikoa Renfek EAEn eta gainerako autonomia-erkidegoen artean 2024an garraiatutako salgaiak (%).




Iturria: Renfe

Garraiatutako produktuen tipologiari dagokionez, lau izan ziren multzo garrantzitsuenak, guztizkoaren % 96,4 pilatu baitzuten. Zehazki, produktu siderurgikoek treneko merkataritza-trukeen % 40,1 bildu zuten, eta, ondoren, lurreko Garraio Intermodaleko Unitateak¹⁶ aipatu behar dira (% 22). Hirugarren kategoria garrantzitsuena produktu kimikoena izan zen (% 20,3), eta, laugarrena automobilena; hain zuzen ere, Renfek Euskaditik edo Euskadira garraiatutako kargaren % 14 izan ziren.

¹⁵ Datuak eskuragarri daude eranskinetako taulan: Renferen merkantzia-garraioa: jatorriko edo helmugako autonomia-erkidegoak. 2024.

¹⁶ Garraio intermodalerako egokia den edukiontzia, kaxa mugikorrari edo erdiatoiari deitzen zaio Garraio Intermodaleko Unitatea.


4.8 grafikoa Renfek garraiatu dituen eta EAE abiapuntu eta/edo xede duten salgaien tipologia. 2024 (%).



Iturria: Renfe

2024an, Euskotrenek garraiatutako produktuaren bolumena aurreko ekitaldikoa baino ia bi aldiz handiagoa izan zen, 43,3 mila tona garraiatu baitzuten; hau da, % 94,2 gehiago. Euskotrenek Lasarte eta Lebario artean altzairuzko bobinak garraiatu zituen Euskadiko industriari laguntza emanez. 2024an, martxotik abendura bitarte eskaini zuen zerbitzua; aurreko urtean, berriz, lehen sei hilabeteetan bakarrik egin zituzten garraio-lan horiek.

4.9 grafikoa EuskoTrenek garraiatu dituen eta EAE abiapuntu eta/edo xede duten salgaien bolumena. 2002-2024.



Iturria: EuskoTren.

Azkenik, 2024an operadore pribatuek 1,1 milioi tona garraiatu zituzten; hau da, 2023an baino +% 6,3 gehiago. Jatorria EAEn zuten produktuak guztizkoaren % 38,8 izan ziren, eta enpresa pribatuek garraiatutako eta helmuga Euskadin zuten kargen tona kopurua % 61,2koa izan zen.



4.8 koadroa Operadore pribatuek garraiatutako merkantzien bolumena, jatorria eta/edo helmuga EAE izanik. 2024.

Bidaia mota	Urteko tonak	Lanegunetako tonen batezbestekoa
Jatorria EAE	428.495	1.174
Helmuga EAE	675.868	1.852
Guztira	1.104.363	3.026

Iturria: Hainbat operadore pribatu.





Aire Bidezko Garraioa

5.




5. Aire Bidezko Garraioa

5.1 Aireko garraioaren eskaintza Euskadin

2024an, Euskadiko aireko garraioaren eskaintza pixka bat hobetu zen aurreko ekitaldiarekin alderatuta. EAEko hiru aireportu-azpiegituretako aireko garraio komertzialak 64.820 eragiketa izan zituen, eta % 0,8ko hazkundea izan zuen 2023koarekin alderatuta. Hegaldien kopuruak % 2,2 egin zuen gora Bilboko aireportuan; aldiz, % 4,9 gutxitu ziren Gasteizen, eta % 1,4 Donostian.

5.1 grafikoa Aire garraioa: aireontzien trafikoa¹ Euskadiko aireportuetan 2000-2024



¹ Trafiko-datuak merkataritzako aireontzien trafikoen datuei dagozkie.

Iturria: Espainiako Aireportuak eta Aireko Nabigazioa - Aena.


Aireko zirkulazioa aireportuaren arabera banatzen badugu, aireontzien % 77k aireratzeko edo lur hartzeko Bizkaiko azpiegitura erabili zutela ikusiko dugu. Aireko eskaintzaren % 15,8 Gasteizko aireportuan pilatu zen, eta % 7,2 Gipuzkoakoan.

5.2 Pertsonen aireko mugikortasuna Euskadin

2024an, EAEko aireko zirkulazioak erabiltzaile-errekor berria erregistratu zuen, eta 7.514,5 mila pertsonako zifrara iritsi zen; horrek, termino erlatiboetan, % 5,6ko igoera adierazten du 2023koarekin alderatuta. EAEko hiru aireportuetako bidaiari kopuruaren hobekuntza Estatuko aireportu-sistemako aire-mugikortasunaren hazkundea baino txikiagoa izan zen, eta Estatu mailan % 9,2ko hobekuntza izan zuen aurreko ekitaldiarekin alderatuta.

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Esparru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itxaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak

5.2 grafikoa EAEko bidaiaren aire trafikoa: aire-zerbitzuetako bidaiarien eboluzioa 1980-2024



Iturria: Espainiako Aireportuak eta Aireko Nabigazioa - Aena.

Bilbon eta Donostian igo egin zen bidaiarien kopurua; aldiz, Gasteizen gutxitu.

Bizkaiko aireportua 6.766,6 mila lagunek erabili zuten; hau da, 2023ko ekitaldiarekin alderatuta, % 7 gehiagok. Loiuko aireportuak bildu zuen Euskadi jatorri edo helmuga zuten bidaiarien % 90.

Nazioarteko datuei dagokienez, bidaiarien kopurua 2.851 mila lagunekoa izan zen eta, horrenbestez, 2023ko datua baino % 12,3 gehiagokoa izan zen. Estatu mailan, 3.915,6 mila pertsona mugitu ziren eta, aurreko ekitaldiarekin alderatuta, % 3,4 hobetu zen datua.

Madril-Barajas, Adolfo Suarez eta Bartzelona-El Prat aireportuak izan ziren Bizkaiko terminaletik edo terminalera egindako joan-etorri gehien pilatu zituzten lotura nazionalak; 807 mila eta 692,9 mila bidaiari, hurrenez hurren. Urte arteko aldakuntzak erakusten du Madrilgo hiriburura doan edo handik datorren zirkulazioa % 3,8 igo zela. Aldiz, Kataluniako hiriburuarekiko lotura % 6,2 igo zen. Bi aireportuen baturak barne-zirkulazioaren % 38,3 eta trukeen % 22,2 hartu zuen.

Nazioarteok datuei dagokienez, gehien erabilitako bi konexioak, beste behin, Britainia Handiko Gatwich eta Herbehereetako Amsterdam Schiphol izan ziren. Gatwichen kasuan, 412,6 mila pertsona izan ziren eta, 2023arekin alderatuta, gorakada % 19,2koa izan zen. Amsterdam Schiphol aireportuaren kasuan, 287,5 mila joan-etorri izan ziren; hau da, aurreko urtean baino % 15,1 gehiago.

Hala, 2024an, Londres izan zen Bizkaiko lurralde historikoarekin egindako trukeen mugaz haraindiko lehenengo helmuga eta jatorria, eta kanpoko trafikoaren % 14,5 hartuko zuen. Bigarren eta hirugarren postuetan daude Amsterdam eta Munich, eta nazioarteko fluxuaren % 10,1 eta % 10 pilatu zuten, hurrenez hurren. Beste behin, laugarren postuan jarraitzen zuen Frankfurt, % 9,4ko kuotarekin, eta boskotea osatzeko, Paris aipatu behar dugu. Izan ere, Frantziako hiriburuak, bertako hiru aireportuekin (Charles de Gaulle, Orly eta Le Bourget), nazioarteko helmugetatik zetozen edo haietara zihoazen pertsonen % 9,1 metatu zuen.



5.1 koadroa Bidaiarien trafikoa Euskadiko aireportuetan: bidaiarien eboluzioa, aireportutika 2000-2024



Urteak	Bilbo		Donostia		Gasteiz		Guztira	
	Mila pertsona	Δ per. urteko %	Mila pertsona	Δ per. urteko %	Mila pertsona	Δ per. urteko %	Mila pertsona	Δ per. urteko %
2000	2.527,8	--	283,8	--	123,4	--	2.935,0	--
2001	2.475,4	-2,1	281,1	-1,0	128,7	4,3	2.885,2	-1,7
2002	2.450,6	-1,0	271,2	-3,5	98,8	-23,2	2.820,6	-2,2
2003	2.842,4	16,0	283,8	4,7	101,9	3,1	3.228,1	14,4
2004	3.390,8	19,3	295,6	4,1	94,4	-7,3	3.780,8	17,1
2005	3.841,5	13,3	308,8	4,5	91,4	-3,2	4.241,7	12,2
2006	3.871,1	0,8	368,0	19,2	173,1	89,4	4.412,2	4,0
2007	4.280,7	10,6	466,5	26,8	173,2	0,1	4.920,4	11,5
2008	4.169,0	-2,6	403,2	-13,6	67,5	-61,0	4.639,7	-5,7
2009	3.652,0	-12,4	315,3	-21,8	39,9	-40,9	4.007,2	-13,6
2010	3.883,3	6,3	286,1	-9,3	41,8	4,8	4.211,2	5,1
2011	4.044,1	4,1	248,0	-13,3	28,0	-33,0	4.320,1	2,6
2012	4.167,2	3,0	262,4	5,8	24,1	-13,9	4.453,7	3,1
2013	3.794,2	-9,0	245,0	-6,6	6,8	-71,9	4.046,0	-9,2
2014	3.982,9	5,0	245,0	0,0	7,1	4,4	4.235,0	4,7
2015	4.258,9	6,9	255,1	4,1	11,2	57,7	4.525,2	6,9
2016	4.570,4	7,5	261,3	3,6	36,4	231,6	4.868,2	7,8
2017	4.964,3	8,6	279,4	6,9	81,6	124,0	5.325,2	9,4
2018	5.454,7	9,9	287,1	2,8	139,6	71,1	5.881,3	10,4
2019	5.896,4	8,1	318,3	10,9	170,8	22,3	6.385,5	8,6
2020	1.683,1	-71,5	83,4	-73,8	41,4	-75,8	1.807,9	-71,7
2021	2.573,1	52,9	154,4	85,1	127,0	206,7	2.854,5	57,9
2022	5.118,8	98,9	382,3	147,6	234,5	84,6	5.735,6	100,9
2023	6.324,9	23,6	481,1	25,8	309,5	32,0	7.115,4	24,1
2003	2.842,4	16,0	283,8	4,7	101,9	3,1	3.228,1	14,4
2024	6.766,6	7,0	484,8	0,8	263,1	-15,0	7.514,5	5,6

Iturria: Espainiako Aireportuak eta Aireko Nabigazioa - Aena.
Oharra: iturri originalak datu banakatuagoak eta eguneratuagoak izan ditzake. Esteka: www.aena.es


Gipuzkoako lurralde historikoan, hegazkinez egindako bidaiak 484,8 mila izan ziren, eta, 2023ko datuekin alderatuta, gorakada txikia izen zen: % 0,8koa.

Donostiako aireportuko mugikortasuna, batez ere, Estatu mailakoa izan zen. Hain zuzen ere, bidaiarien % 96,8 Estatuko aire-sistemako terminaletatik iritsi ziren edo haietara zihoazen. Bidaia gehien pilatu zituen aireportua Madril-Barajas Adolfo Suárez izan zen, 225,4 mila pertsonarekin (-% 1 2023ko datuekin alderatuta), eta Hondarribiko aireko zirkulazioan izandako partaidetza % 46,5ekoa izan zen. Jarraian, Bartzelonako terminala ageri da, 137 mila bidaiarekin (2023ko datuekin alderatuta, -% 1,5) eta % 28,2ko kuotarekin. Hirugarren postuan, Sevilla indartu zen, 23,7 erabiltzailerekin, eta Kanaria Handiak laugarren postuan zegoen 22,4 mila pertsonako zirkulazioarekin.

Nazioarteko zirkulazioari dagokionez, 15,6 mila bidaiarira arte igo zen eta, aurreko ekitaldiarekin alderatuta, gorakada % 162,4koa izan zen. Gipuzkoako guztizko bidaia kopuruari dagokionez, % 3,2koa izan zen proportzioa.

Gasteizen, bidaia kopurua gutxitu eta 263,1 mila bidaiarikoa izan zen. Hau da, aurreko urteko zifrarekin alderatuta, jaitsiera % 15ekoa izan zen.

5.3 grafikoa Bidaiarien jatorria/helmuga, aireportuka. 2024.



Iturria: Aena, Espainiako Aireportuak eta Aireko Nabigazioa.

Hegaldiak jatorriaren arabera banatzen baditugu, bidaien ia bi heren (% 65) Estatu mailakoak izan zirela ikusiko dugu. Nazioarteko mugikortasuna dago gainerako % 35arekin lotuta.

Barneko bidaia-tokiei dagokienez, Alacant-Elx izan zen, beste behin, konexio nagusia, 52,6 mila lagunekin (-% 8 2023ko datuekin alderatuta), eta Arabako bidaietan % 20ko proportzioa izan zuen. Bigarren postura igo zen Sevillako aireportua 52,1 mila pertsonarekin (+22,9); hau da, Gasteizko aireko zirkulazioaren % 19,8. .

Atzerriko bidaiari dagokienez, Milan dago nazioarteko lehen postuan, garraiatutako 46,3 mila pertsonarekin (2023ko datuekin alderatuta, +%4,3). Arabako aireportuko nazioarteko bidaiarien erdia Milango terminaletik iritsi zen edo hara joan zen (atzerriko trafikoaren % 50,3).

5.3 Merkantzien aireko garraioa Euskadin


2024an, EAEko aireportu-sareak 71.442 tona garraiatu zituen eta, 2023ko datuekin alderatuta, jaitsiera % 1,4koa izan zen. Ondorioz, merkataritzako aireko zirkulazioan, bigarren urtez jarraian, jaitsiera gertatu zen. Horri dagokionez, esan beharrekoa da EAEko aireportuetako merkataritza-trafikoaren bilakaera negatiboa ez datorrela bat Estatu aireportuetan garraiatutako salgaiaren fluxuaren igoerarekin (+% 18,6, aurreko ekitaldiarekin alderatuta).

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Esparru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 **Aire Bidezko Garraioa**
- 6 Itxaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak



5.4 grafikoa Salgaien aire zirkulazioa Euskadin. 1980-2024 bilakaera.

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Esparru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itxaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak



Iturria: Aena, Espainiako Aireportuak eta Aireko Nabigazioa.

Euskadiko salgaien aireko garraioaren beherakada Gasteizko aireportutik garraiatutako karga gutxitu izanak eragin zuen, eta, oso neurri txikian, Donostiako merkataritza-jarduera desagertu izanak. Bilboko terminalean, aldiz, merkataritza-trukeak gorakada izan zuen.

Zehazki, Arabako terminalean, garraiatutako merkantzien bolumena % 1,6 jaitsi zen 2023ko datuekin alderatuta, eta 70.514,1 tonaraino gutxitu zen. Forondako aireportuak mugitu zuen EAEko aireko sistemak garraiatutako kargaren % 98,7. Estatu mailan, Gasteizko terminala laugarren postuan kokatu zen, produktuen aireko zirkulazio osoaren % 5,5eko kuotarekin. Beste behin, lehen hiru aireportuak honako hauek izan ziren: Adolfo Suárez Madril-Barajas (% 59,9), Bartzelona-El Prat eta Zaragoza (% 14,2 bi kasu horietan).

Mugimendu motari dagokionez, Arabako aireportuko salgaien irteera-fluxua % 48,2koa izan zen; produktuen etorrera, berriz, Gasteizko aireko merkataritza-zirkulazioaren % 51,8 izan zen. 2023ko datuekin alderatuta, karga eta deskarga murriztu egin ziren: hala, terminaletik ateratako merkantzia % 1,8 jaitsi zen, eta kargaren sarrera, berriz, % 1,5.

Arabako aireportuaren bazkide komertzial esanguratsuenak atzerriko bi hiri izan ziren 2024an: Leipzig, 18 mila tonarekin (+% 0,7 2023ko datuekin alderatuta) eta Brusela, 8,1 mila tonarekin (+% 4,2). Hirugarren postura igo zen Sevilla, 5,8 mila tonarekin (+% 2,3), eta laugarren postuan Lisboa mantendu zen, 5,7 mila tonarekin (+% 1,7). Alemaniako Bonnekoko terminalak (5,3 mila tona) % 16,1eko jaitsiera izan zuen, eta bosgarren merkataritza-lotune bihurtu zen.

Bizkaiaren kasuan, 927,6 tona mobilizatu zituen aireportuak eta, aurreko ekitaldiarekin (2023) alderatuta, gorakada % 23,5koa izan zen. Irteerek % 24 egin zuten gora 2023ko datuekin alderatuta, eta iritsierek % 23,1. Bilboko aireportutik irtendako merkantzien bolumena % 50,2koa izan zen, eta jasotako karga, berriz, Bizkaiko azpiegiturako aire bidezko garraioaren % 49,8koa.

Loiuko terminalarekin trukeen bolumen handiena izandako aireportuak aldatu egin ziren 2023arekiko. Frankfurtoko nazioarteko aireportuak konexiorik garrantzitsuena izaten jarraitu zuen, 523,9 tonarekin (aurreko ekitaldiarekin alderatuta, +% 21,6), baina bigarren postura igo zen Munich Franz Josef Strauss, 172,2 tonarekin (+% 94,7). Bestalde, Madrilgo aireportuak postu bat behera egin eta hirugarren bazkide bihurtu zen, 117,4 mila tonarekin (% 19,1).

5.2 koadroa Salgaien trafikoa, aireportuka¹. 1980-2024.

Urteak	Bilbo		Donostia		Gasteiz		Guztira	
	T.	Urteko Δ (%)	T.	Urteko Δ (%)	T.	Urteko Δ (%)	T.	Urteko Δ (%)
1980	3.376,5	-	428,3	-	0,3	-	3.805,1	-
1985	4.080,5	3,9	466,6	1,7	703,1	372,0	5.250,2	6,7
1990	2.805,0	-7,2	366,0	-4,7	533,8	-5,4	3.704,8	-6,7
1995	3.879,4	6,7	292,6	-4,4	13.782,1	91,6	17.954,1	37,1
2000	4.038,7	0,8	176,1	-9,7	35.609,7	20,9	39.824,5	17,3
2001	3.674,5	-9,0	154,1	-12,5	36.309,5	2,0	40.138,0	0,8
2002	3.699,2	0,7	127,1	-17,5	42.425,2	16,8	46.251,5	15,2
2003	3.813,6	3,1	96,6	-24,0	40.155,9	-5,3	44.066,0	-4,7
2004	4.152,8	8,9	325,2	236,6	43.683,4	8,8	48.161,4	9,3
2005	3.956,7	-4,7	415,2	27,7	34.785,8	-20,4	39.157,8	-18,7
2006	3.417,7	-13,6	282,2	-32,0	31.575,7	-9,2	35.275,6	-9,9
2007	3.230,9	-5,5	245,9	-12,9	31.359,3	-0,7	34.836,1	-1,2
2008	3.178,8	-1,6	63,8	-74,1	34.989,7	11,6	38.232,3	9,7
2009	2.691,5	-15,3	31,1	-51,3	27.388,0	-21,7	30.110,6	-21,2
2010	2.548,0	-5,3	18,8	-39,5	27.960,6	2,1	30.527,4	1,4
2011	2.633,5	3,4	32,0	70,2	34.692,3	24,1	37.357,8	22,4
2012	2.262,8	-14,1	35,6	11,3	34.652,3	-0,1	36.950,7	-1,1
2013	2.538,4	12,2	20,4	-42,7	37.482,5	8,2	40.041,3	8,4
2014	2.855,6	12,5	30,7	50,5	42.160,7	12,5	45.047,0	12,5
2015	2.871,7	0,6	3,3	-89,2	46.371,9	10,0	49.246,9	9,3
2016	2.974,3	3,6	4,6	37,6	52.136,0	12,4	55.114,9	11,9
2017	1.956,4	-34,2	3,2	-28,8	60.479,4	16,0	62.439,0	13,3
2018	1.215,6	-37,9	6,7	109,4	62.145,3	2,8	63.367,6	1,5
2019	979,6	-19,4	0,4	-94,0	64.470,7	3,7	65.450,6	3,3
2020	384,5	-60,7	0,0	-94,1	64.334,3	-0,2	64.718,8	-1,1
2021	472,3	22,8	0,1	166,7	72.529,2	12,7	73.001,6	12,8
2022	671,6	42,9	0,0	-100,0	73.632,8	1,5	74.304,4	1,8
2023	750,8	11,8	2,5	+100,0	71.694,9	-2,6	72.448,2	-2,5
2024	927,6	23,5	0,0	-100,0	70.514,1	-1,6	71.441,7	-1,4


¹ Ez ditu barne hartzen iragaitzazko salgaiak

Iturria: Aena, Espainiako Aireportuak eta Aireko Nabigazioa.

2024an, Donostiako aireportuak bertan behera utzi zuen merkataritza-jarduera, ez baitzuen aireko karga adierazgarririk izan. Aireportu horren operazio nagusia bidaiarien garraioarekin lotutakoa da.




5.5 grafikoa Salgaien jatorria/helburua, aireportuka. 2024.



Iturria: Aena, Espainiako Aireportuak eta Aireko Nabigazioa.

Lurralde eremuaren araberako banaketak erakusten du airez garraiatutako merkantziaren % 75,2 nazioarteko aireportuetatik zetorrela edo horietan amaitzen zela. Gasteizen, atzerriko jatorria edo helmuga zuen karga % 75,1ekoa izan zen, eta Bilbon % 87koa.

5.6 grafikoa Salgaien nazioarteko trafikoa, zonalde geografikotan. 2024 (%).



¹ Aintzat hartzen ditu EB-27, Erresuma Batua, Errusiar Federazioa, Norvegia, Serbia eta Montenegro, Suitza, Turkia, Ukraina eta Bielorrusia.

Iturria: Aena, Espainiako Aireportuak eta Aireko Nabigazioa.

Banaketa geografikoari dagokionez, Europak Euskadiko aireportu-sareko merkataritza-trafikoan zuen hegemonia areagotu zuen, eta garraiatutako kargaren ia % 100 bereganatu zuen. 2024an, 8,8 tona trukatu ziren Afrikako herrialdeekin. Herrialdeen araberako merkantziaren banaketak agerian uzten du kargaren % 33,6k Alemania zuela jatorri edo helmuga, eta % 24,6 Espainiako terminalekin trukatu zen. Atzetik, Portugal (% 17,9), Belgika (% 11,4), Italia (% 6,3) eta Erresuma Batua (% 5,8) ageri dira. Hain zuzen ere, sei konexio nagusi horiek pilatu zuten EAEko merkataritzako zirkulazioaren % 99,6.

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Esparru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itxaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak



Itxaso Bidezko Garraioa

6.



6. Itxaso Bidezko Garraioa

6.1 Euskadiko itsaso bidezko garraio-eskaintza

2024an, Anavasek (Euskal Ontzijabeen Elkarte) 11 ontzi-enpresa (2023an bezala) eta 71 ontzi zituen, hau da, aurreko ekitaldian baino -% 1,4 gutxiago (ontzi 1 gutxiago). Pisuari dagokionez, tona-kopuru gordina 778,2 mila tonara murriztu zen (-% 0,7 aurreko urteko kargari dagokionez) eta pisu hilaren tonen zifra egonkor mantendu zen 1,3 milioi tonatan, 2023arekiko -% 0,2.

6.1 koadroa Itsasoko garraioa: EAEko ontzidiaren ezaugarriak. 2000-2024.

Urtea ³	Enpresen kopurua	Itsasontzien kopurua	TG ¹	PHT ²
2000	11	56	328.937	543.033
2001	10	52	322.295	519.898
2002	12	53	321.193	532.790
2003	12	55	332.021	546.588
2004	11	50	455.803	796.813
2005	11	67	524.523	917.116
2006	11	71	542.901	938.900
2007	14	68	535.720	927.707
2008	14	80	574.292	970.421
2009	13	73	393.275	631.405
2010	13	69	365.719	590.947
2011	12	66	396.280	663.302
2012	12	65	396.128	663.013
2013	11	55	336.059	592.931
2014	11	54	331.535	584.104
2015	11	54	332.746	585.042
2016	13	57	349.645	607.848
2017	13	87	679.769	1.110.279
2018	13	87	752.809	1.245.610
2019	12	88	828.771	1.391.469
2020	11	87	904.038	1.535.686
2021	11	83	889.361	1.517.289
2022	11	75	865.117	1.495.445
2023	11	72	783.434	1.333.735
2024	11	71	778.181	1.330.662

¹ Tona gordin.

² Pisu hilaren tonak.

³ "n+1" urtearen urtarilaren 1eko datuak.

Iturria: Anavas.

Euskal elkarteko flotak itsaso bidezko hainbat garraio mota egiten ditu: 2024an 30 atoiointzi eta barne-trafikorako ontzi zituen (guztizkoaren % 42,3) eta 14 tanke-ontzi (% 19,7), 2023an bezala. Atzetik geratu ziren PGL (Petrolioaren Gas Likuatuak) eta Bulk Carrier kategoriak eta kontainer-ontziak, 13 ontzirekin eta % 18,3ko kuotarekin bakoitza (lehen taldeak 3 ontzi galdu zituen eta 2. taldeak bi unitate irabazi). Taldeak hozkailu-ontzi bat zuen (2023an bezala), hau da, Anavas elkartearen ontzien % 1,4.

Ontzien batez besteko adinari erreparatuz, euskal armadoreek kontrolatutako flotak 13 urte zituen batez beste, estatuko (17,6 urte¹⁷) eta munduko (20 urtetik gora) batezbestekoa baino gutxiago.

¹⁷ 2024ko urtarilaren 1ean. Iturria: ANAVE



6.2 koadroa Itsasoko garraioa: EAEko ontzidiaren tipologia. 2021-2024.


Ontzi mota	Itsasontzien kopurua			
	2021	2022	2023	2024
Atoiontzia eta barne-trafikoa	31	30	30	30
Tanke-ontzia	14	15	14	14
PGL (petrolio-gas likidotuak)	27	19	16	13
Bulk Carrier eta edukiontziak garraiatzekoak	9	9	11	13
Hozkailu-ontziak	2	2	1	1
GUZTIRA	83	75	72	72

Iturria: Anavas

6.2 Pertsonen mugikortasuna Euskadiko itsasoko garraioan

Euskadiko bidaiarien itsaso bidezko garraioak 315.599 pertsona hartu zituen guztira 2024an, hau da, 2023an baino % 4,1 gutxiago, Pasaiaiko Portuko jarduera murriztu egin zelako.

6.1 grafikoa Bidaiarien zirkulazioa Bilboko Portuan. 2003-2024



Iturria: Bilboko Portu Agintaritzak (linea erregularra eta gurutzontziak).

Bilboko Portuko Agintaritzak emandako informazioaren arabera, Bizkaiko azpiegituraren paisaia handitu egin zen berriro ere. 2024an, 281,9 mila pertsona mobilizatu ziren eta bidaiarien inoizko kuotarik handiena erregistratu zen portuan. Urte arteko terminoetan, mugikortasuna % 4,1 handitu zen 2023arekiko. Linea erregularreko erabiltzaileen hazkundeak eragin zuen bilakaera hori, gurutzaontzietako bidaiarien kopuruak behera egin baitzuen.

Bilboko Portua eta Erresuma Batua eta Irlanda (Portsmouth portu britainiarra eta Rosslare portu irlandarra) lotzen dituzten ferryek 144,5 mila bidaiari eraman zituzten, 2023an baino % 18,7 gehiago. 2024an, handitu egin zen ontziratutako pertsonen (+% 19,4) zein lehorreratutako pertsonen (+% 18) kopurua.

Gurutzaontzien jarduerari dagokionez, bidaiarien kopurua % 7,8 murriztu zen eta 137,5 mila bidaiari izan ziren guztira ekitaldi osoan zehar 81 ontzitan. Gurutzaontziek portuko pertsonen trafikoaren % 48,8 hartu zuten. Gurutzaontzietako bidaiarien % 99 bidean doazenak izan ziren.



6.3 koadroa Pertsonen itsas garraioa Bilboko Portuan. 2021-2024.

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Esparru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itxaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak

Portua	Bilbo					Pasaia				
	2021	2022	2023	2024	urteko Δ (%) 24/23	2021	2022	2023	2024	urteko Δ (%) 24/23
Linea erregularra	60.774	104.680	121.739	144.455	18,7					
▪ Ontziratutakoak	30.373	53.486	60.135	71.792	19,4					
▪ Lehorreratutakoak	30.401	51.194	61.604	72.663	18,0					
Gurutzaontziak	13.079	109.348	149.032	137.477	-7,8	20.449	86.068	58.382	33.667	-42,3
▪ Linearen hasiera	48	1.063	6.334	837	-86,8					
▪ Linearen amaiera	133	1.022	6.240	524	-91,6					
▪ Bidean	12.898	107.263	136.458	136.116	-0,3					
GUZTIRA	73.853	214.028	270.771	281.932	4,1	20.449	86.068	58.382	33.667	-42,3


Iturria: Bilboko Portu Agintaritza.

Bestalde, Pasaia Portuko Agintaritzaren arabera, gurutzaontzien jarduera murriztu egin zen 2024an: 33.667 pertsona iritsi ziren Gipuzkoako portura, aurreko ekitaldian baino % 42,3 gutxiago.

6.3 Salgaien itsas trafikoa Euskadin

Merkantzien itsaso bidezko garraioaren kasuan, Bilboko eta Pasaia portua izan ziren merkataritza-porturik garrantzitsuenak eta 38 milioi tona mugitu zituzten 2024an, aurreko urtean baino % 4,3 gehiago.

6.2 grafikoa Salgaien itsas zirkulazioa Bilboko eta Pasaia portuetan. 1980-2024 bilakaera.




Iturria: Bilboko Portu Agintaritza. Pasaia Portu Agintaritza

Bizkaiko portuan, 34,6 milioi tonakoa izan zen merkataritza.jarduera eta % 5eko hazkundea izan zuen 2023rekin alderatuta.

Estatuko trafikoari dagokionez, Bilboko portuak bosgarren postuan jarraitu zuen eta bere merkantzien bolumena estatuko portu-sistema osoaren % 6,2 izan zen. Estatuko Portuen ordena ez da aldatu aurreko ekitaldiekin alderatuta: Algeciras, 103,7 mila tonarekin (Estatuko kargaren % 18,6); Valentzia, 81,1 mila tonarekin (% 14,5); Bartzelona, 69,7 mila tonarekin (% 12,5); eta Cartagena, 35,9 mila tonarekin (% 6,4).



6.3 grafikoa Salgaien itsas zirkulazioa Bilboko eta Pasaiaiko portuetan. 2005-2024 bilakaera.



Iturria: Bilboko Portu Agintaritza. Pasaiaiko Portu Agintaritza.

Mugimendu motaren arabera, 23,5 milioi tona deskargatu ziren Bizkaiko portuan (+% 4,8) eta ia 11 milioi tona kargatu (2023arekin alderatuta +% 5,3). Produktu-trukeen kasuan, merkantzien % 67,9 portuan lurreratutakoak izan ziren eta % 31,7 portuko azpiegituratik bidalitakoak.

Bilboko merkataritza-trafiko osoaren % 0,4an jarraitu zuen hornidurak (ez da aldaketarik izan 2023tik).

6.4 koadroa Bilboko eta Pasaiaiko portuen zirkulazioa, mugimenduaren arabera. 2020-2024.

Kontzptua	Bilbo					Pasaia				
	2020	2021	2022	2023	2024	2020	2021	2022	2023	2024
Deskargak	19.466,2	20.416,5	21.659,1	22.384,9	23.467,7	1.792,7	2.211,6	2.097,5	2.250,8	2.218,6
Kargak	10.077,9	10.766,1	11.107,5	10.417,5	10.973,8	1.200,7	1.282,7	1.170,0	1.197,7	1.155,7
Tokiko zirkulazioa	101,1	116,5	122,6	130,3	149,9	22,8	23,9	25,9	26,6	26,5
Arrantza	--	--	--	--	--	20,5	18,8	19,1	18,7	16,5
GUZTIRA	29.645,1	31.299,1	32.889,2	32.932,7	34.591,4	3.036,6	3.537,0	3.312,5	3.493,8	3.417,3

Iturria: Bilboko Portu Agintaritza. Pasaiaiko Portu Agintaritza.

Produktu motei dagokienez, aldakuntza positiboa izan zen talde guztietan. Zehazki, solteko salgai likidoak % 4,5 hazi ziren, petrolio-produktuen (+% 6,9) eta beste solteko salgai likido batzuen (+% 37,2) hobekuntzaren ondorioz; gas naturala, berriz, murriztu egin zen (-% 19,5). Solteko salgai solidoen kasuan, % 10,1eko hazkundera izan zen 2023arekiko. Merkantzia orokorrak % 3,8ko hazkundera izan zuen beste merkantzia orokorren komertzializazio handiari esker (+% 14,8) eta edukiontzietako produktuek % 2,5eko beherakada izan zuten. Azkenik, % 15 handitu ziren gainerako existentziak.



- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Esparru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itxaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak

Bizkaiko portuaren bitartez mobilizatutako kargaren banaketari dagokionez, solteko salgai likidoen taldea izan zen handiena, guztizkoaren % 62,4rekin: petrolio-produktuak % 44,4 izan ziren, gas naturala % 9,9 eta solteko beste salgai likido batzuk % 8,1. Merkantzia orokorra izan zen hurrengo multzorik handiena, merkantzia osoaren laurden batekin ia (% 24,7). Solteko salgai solidoek % 12,5eko pisua izan zuten eta gainerako fluxuak % 0,4an mantendu ziren.

6.5 koadroa Bilboko eta Pasaiaiko portuetako zirkulazioa, produktu motaren arabera. 2021-2024.

(Tonak milakotan)

Kontzeptua	Kontzeptua				Kontzeptua			
	2021	2022	2023	2024	2021	2022	2023	2024
Salgai likidoak	17.764,5	20.452,9	20.644,5	21.570,2	--	--	--	--
Petrolio-produktuak	12.692,5	14.157,7	14.334,9	15.330,5	--	--	--	--
Gas naturala	3.202,9	4.282,8	4.263,8	3.433,0	--	--	--	--
Beste salgai likido batzuk	1.869,1	2.012,4	2.045,8	2.806,7	--	--	--	--
Salgai solidoak	4.651,4	3.752,9	3.918,7	4.315,5	1.104,4	904,0	1.064,3	938,3
Salgai orokorrak	8.766,7	8.560,8	8.239,2	8.555,8	2.389,9	2.363,5	2.384,2	2.436,0
Edukiontzietan	5.656,4	5.399,3	5.229,4	5.101,0	--	--	--	--
Beste salgai orokor batzuk	3.110,3	3.161,5	3.009,8	3.454,8	--	--	--	--
Gainerakoak	116,5	122,6	130,3	149,9	42,7	45	45,3	43,0
GUZTIRA	31.299,1	32.889,2	32.932,7	34.591,4	3.537,0	3.312,5	3.493,8	3.417,3

Iturria: Bilboko Portu Agintaritza. Pasaiaiko Portu Agintaritza.


Lurraldeen arabera banatutako merkataritza-trafikoak erakusten du Europako Arku Atlantikoak jarraitu zuela izaten Bizkaiko portuaren merkataritza-lotura nagusia, portuko merkantzien heren bat baino gehiagorekin (% 34,5). Herrialdeei dagokienez, Erresuma Batua izan zen eskualde atlantikoko merkatu nagusia (2,6 milioi tona) eta % 13,3ko hazkundera izan zuen 2023arekin alderatuta. Mobilizatutako kargaren % 7,4 herrialde anglo-saxoiarena izan zen. Espainia bigarren lekuan mantendu zen, 2 milioi tona ingururekin (+% 0,8 aurreko ekitaldiarekin alderatuta).

Truke-bolumenik handiena izan zuen bigarren eskualdea Ipar Amerika izan zen. Eskualde horretako merkantzien fluxua 5,8 milioi tonakoa izan zen, hau da, portuko produktuen % 16,8k jatorri edo helmuga iparamerikarra izan zuen.


Herrialdeei erreparatuz gero, Estatu Batuak izan zen Bilboko itsaso bidezko merkataritzaren bazkide nagusia, 3,4 milioi tonarekin (2023arekin alderatuta -% 15,5). Errusia bigarren postura igo zen, 2,9 milioi tonarekin (aurreko urteko zifrarekiko +% 8,9).

6.4 grafikoa Salgaien zirkulazioa Bilboko eta Pasaiaiko portuetan: salgaien tipologia. 2024 (%)

BILBO



PASAIA



Iturria: Bilboko Portu Agintaritza. Pasaiaiko Portu Agintaritza.

Bestalde, Pasaiaiko Portuko Agintaritzak emandako datuen arabera, merkantzien fluxua 3,4 tonara murriztu zen, hau da, % 2,2ko beherakada izan zen 2023arekin alderatuta.

Mugimendu motaren arabera, ontziraturako zein lehorreraturako produktuek egin zuten behera. Deskargaturako merkantzia % 1,4 murriztu zen, 2,2 milioi tonara arte. Portuan kargaturako merkantzia % 3,5 murriztu zen eta 1,2 milioi tonaren azpitik geratu zen. Gipuzkoako portuak izaera inportatzailea mantendu zuen, lehorreratzeen bolumena % 64,9koa izan baitzen, eta ontziraturako kargamentuarena berriz, % 33,8koa.

Gipuzkoako portuak mobilizatutako karga bi talde handitan kontzentratu zen: merkantzia orokorretan (% 71,3) eta solteko salgai solidoetan (% 27,5). Portuko azpiegituran egindako trukeen % 98,8 osatu zuten bi kategoriek. Urte arteko aldakuntza desberdina izan da talde bakoitzean: solteko salgai solidoek % 11,8 egin zuten behera eta merkantzia orokorra % 2,2 handitu zen.

Laburpen Exekutiboa

0

Esparru Orokorra

1

Bilakaera Orokorra

2

Errepide Bidezko Garraioa

3

Tren Bidezko Garraioa

4

Aire Bidezko Garraioa

5

Itxaso Bidezko Garraioa

6

Beste Garraiobide Batzuk

7

Ondorio eta Joera Nagusiak

8

Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria

9

Funtsezko Adierazleak

10

Eranskinak

11



6.5 grafikoa Bilboko eta Pasaiaiko portuen zirkulazioa, herrialdearen arabera. 2024.


- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Esparru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itxaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak



Iturria: Bilboko Portu Agintaritza. Pasaiaiko Portu Agintaritza.

Herrialdeei dagokienez, Erresuma Batua izan zen Pasaiaiko Portuko merkataritza-bazkide nagusia (guztizkoaren % 24,2). Merkataritzako balantzeari dagokionez, herrialde anglo-saxoira egindako esportazioak % 59,8 izan ziren eta inportazioak % 40,2. Bigarren eta hirugarren postuetan Herbehereak eta Belgika kokatu ziren beste behin ere, Gipuzkoako portuan mobilizatu ziren produktu guztien gaineko % 23,2 eta % 14,5eko pisuarekin, hurrenez hurren.

6.6 grafikoa Salgaien itsas zirkulazioa Bermeoko Portuan. 1990-2024 bilakaera.




Iturria: Eusko Jaurlaritza.

Azkenik, Bermeoko Portuko karga truketua 185,4 mila tonakoa izan zen; hortaz, 2023an baino % 4,6 handiagoa izan zen.

Operazio mota bakoitzaren urte arteko aldakuntza-tasak erakusten du lehorreratutako produktuak 113,1 mila tonara iritsi zirela (2023arekin alderatuta +% 1,1) eta ontziratutako produktuak 69,7 mila tonara hazi zirela (+% 20). Bermeoko merkataritza-jarduerak izaera inportatzailea du, portuko merkataritzaren % 61 izan baitzen lehorreratutako karga (2023an % 63,1).

6.7 grafikoa Salgaien itsas zirkulazioa Bermeoko Portuan: salgaien tipologia. 2024 (%).



Iturria: Eusko Jaurlaritza.

Merkantzien taldeen arabera banaketari dagokionez, produktu siderurgikoena izan zen bolumenik handieneko taldea, Bermeoko portuan egindako trukeen % 51,9 mota horretakoak izan baitziren (2023an, % 69,2). Bigarren lekuan egurraren eta taulen kategoria zegoen, % 19,8ekin (2023an, % 11) eta hirugarren lekuan produktu kimikoak, guztizkoaren % 17,1ekin (2023an, % 5,8). Marmolaren eta kareharriaren salerosketak % 5,2ko pisua izan zuen (aurreko ekitaldian % 7,8).



6.4 Arrantza-flota EAEko portu autonomikoetan



2024an, 183 ontzik osatu zuten EAEko portuetako flota (-4 ontzi aurreko urtearekin alderatuta). Bermeoko portuan zeuden ontzi gehien, 52 ontzi (2023arekiko -% 5,5). Guztizkoaren % 28,4 ziren horiek. Getaria zegoen bigarren lekuan, 31 ontzirekin eta % 16,9ko pisuarekin. Hondarribia eta Ondarroa zituen atzetik, 27na ontzirekin eta flota osoaren % 14,8ko kuotarekin. Bilbok 22 ontzi zituen (% 12ko parte-hartzea) eta Pasaia 19 (gustizkoaren % 10,4). Azkenik Lekeitio zegoen, 5 ontzirekin eta euskal arrantzontzien % 2,7rekin.

Urte arteko aldakuntzari dagokionez, Euskadiko arrantzontzien flotak 2023an baino 4 unitate gutxiago izan zituen, -% 2,1. Hondarribiko eta Bermeoko portuek flota murriztu zuten (-3 ontzi hurrenez hurren). Getariako (+4 ontzi), Bilboko (+2 ontzi) eta Pasaia eta Ondarroako Portuek (+1 ontzi bakoitzak) aldiz, unitate berriak gehitu zituzten.

6.6 koadroa Erkidegoko portuetako ontzidia 2020-2024.

Itsasoentzien kopurua	2020	2021	2022	2023	2024
Bilbo, Zierbena, Armintza, Getxo, Portugalete, Elantxobe, Plentzia eta Santurtzi*	21	20	20	20	22
Pasaia, Zumaia, Donostia*	19	18	20	18	19
Hondarribia	31	31	30	30	27
Getaria, Orio*	25	25	24	27	31
Lekeitio	8	6	6	6	5
Bermeo	58	59	57	55	52
Ondarroa, Mutriku*	26	27	24	26	27
GUZTIRA	196	193	186	187	183

* Hainbat portu elkartu dira estatistika-sekretua bermatzeko.
Iturria: Eusko Jaurlaritza.



Beste Garraiobide Batzuk

7.



7. Beste garraibide batzuk eta intermodalitatea

7.1 Beste garraibide batzuk

7.1.1 Kable bidezko garraioa

EAEko kable bidezko garraioa (pertsonak bakarrik erabiltzekoa) Artxanda, Larreineta, Mamariga eta Igeldoko funikularrek, eta Solokoetxe, Begoña eta Ereagako igogailuek osatzen dute. Kable bidezko azpiegitura guztiak Bizkaiko lurralde historikoan daude, Igeldoko funikularra izan ezik; Donostian dago hori.

7.1 koadroa EAEko funikularren azpiegituren ezaugarriak.

	Igeldoko f.	Artxandako f.	Larreinetako f.	Mamarigako f.
Bidaia kopurua ibilgailuko	65	70	70	45
Ibilbidearen iraupena	3,2 min	3,18 min	10 min	1,6 min
Abiadura lineal	1,5 m/s	5 m/s	2 m/s	6 m/s
Desnibela	151 m	226,49 m	342 m	44,43 m
Batez besteko malda	45%	22,9%	35%	12,6%

Iturria: Euskadiko Garraio Behatokia (OTEUS).

2024an, EAEko funikularrak erabili zituzten bidaia-erien kopurua 3,4 milioikoa izan zen, eta % 8,5eko hazkundea izan zen aurreko ekitaldiarekin alderatuta. Larreinetako funikularrean izan ezik, azpiegitura guztietan hobekuntza gertatu zen. Mamarigako funikularrearen erabilera % 17,1 hazi zen, Igeldoko funikularrearena % 7,5 eta Artxandako funikularrearena % 4,6. Aldiz, Larreinetako funikularrearen erabilera % 8,1 egin zuen behera 2023ko datuekin alderatuta.

7.2 koadroa Pertsonen garraioa kable bidez. 2018-2024.

(Bidaia-eriak, milakotan)

	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024	% Δ 24/23
Artxandako funikularra	932	1.033	462	709	998	1.134	1.186	4,6
Larreinetako funikularra	140	134	103	128	126	136	125	-8,1
Igeldoko funikularra	788	846	287	585	857	953	1.024	7,5
Mamarigako funikularra ¹	1.073	1.082	682	790	830	913	1.069	17,1
FUNIKULARRAK GUZTIRA	2.933	3.095	1.534	2.212	2.811	3.136	3.404	8,5
Ereagako igogailua	358	385	197	217	246	375	374	-0,3
IGOGAILUAK GUZTIRA	358	385	197	217	246	375	374	-0,3
GUZTIRA	3.291	3.481	1.731	2.429	3.057	3.511	3.778	7,6

¹ 2013ko ekainetik, Mamarigako funikularra doakoa da metroko erabiltzaileentzat.

Iturria: Bizkaiko Garraio Partzuergoa, Eusko Jaurlaritza, EuskoTren eta Artxandako funikularra.

Euskadiko kable bidezko bidaia-erien sistema osatzeko, igogailuen bidez egindako joan-etorriak jaso ditugu. Ereagako igogailuak 374 mila pertsona mugitu zituen eta, 2023ko datuekin alderatuta, % 0,3ko jaitsiera txikia izan zuen. Kopuruak Covid-19aren pandemia aurreko mailen antzekoak dira. Ereagako igogailua doakoa da 2022ko abendutik.



7.1.2 Bizikleta

Laburpen
Exekutiboa

0

Esparru
Orokorra

1

Bilakaera
Orokorra

2

Errepide
Bidezko
Garraioa

3

Tren
Bidezko
Garraioa

4

Aire
Bidezko
Garraioa

5

Itxaso
Bidezko
Garraioa

6

Beste
Garraiobide
Batzuk

7

Ondorio
eta Joera
Nagusiak

8

Helburuak eta
Mugikortasun
Jasangarria

9

Funtsezko
Adierazleak

10

Eranskinak


11

EAEn, ingurumena errespetatzen duen garraiobidea garatzeko eta mugikortasun jasangarrirantz aurrera egiteko helburuarekin, bide-sisteman jasota dagoen bizikletentzako sarea indartu izan da.

EAEko hiru hiriburuak alderatuta, Gasteizen zegoen eraikitako zatirik luzeena: 151,5 km-rekin (+% 1,7, 2023koarekin alderatuta). Bilbon, 68 km-koa zen gaitutako tarteetako distantzia (+% 2,4 2023ko datuarekin alderatuta). Donostian, berriz, bizikletetarako egindako sareak 66,4 km-ko hedadura zuen (2023an baino +% 0,3 gehiago).

Bidegorri-sistemaren gauzatze maila (osatutako tarteak, planifikatutako sarearekiko) % 87,2koa zen Bilbon (78 km zeuden planifikatuta 2024an), % 83koa Gasteizen (182,5 km proiektatuta) eta % 78,1ekoa Donostian (85 km aurreikusita).

7.1 grafikoa Bizikleta-bideen sarearen kilometro-kopurua EAEko hiru hiriburuetan (bizikleta-sareen egoera 2024ko abenduan).



Iturria: Gasteizko Udala, Bilboko Udala eta Donostiako Udala.

Lurralde historikoen arabera banaketari dagokionez, Gipuzkoako bizikleta-sareak (oinarrizko sarea + tokiko sarea) 440,3 km zituen, eta 2023arekin alderatuta, % 2,6 handitu zen. Bizkaian, eskuragarri dagoen azken datua 2021ekoa da eta, haren arabera, bizikletentzako bideen luzera ia 422 km-koa zen. Hortaz, amaitutako ardatzak % 1,1 areagotu ziren 2020arekiko. Arabari dagokionez, Euskadiko Garraioaren Panoramikaren edizio hau itxi dugunean, ez dugu informaziorik.

Jarraian, 2024an EAEko hiriburuetan bizikleta publikoen mailegu-sistemaren erabilerari buruzko erregistroak aztertuko ditugu. Donostian, Dbizik 1,3 milioi bidaia inguru izan zituen; hau da, 2023an baino % 36,9 gehiago. Bizkaiko hiriburuan, berriz, Bilbaobiziren erabilera maila 2 milioi bidaia ingurukoa izan zen eta, aurreko ekitaldiarekin alderatuta, % 1,5 jaitsi zen. 2024an, Gasteizek ez zuen bizikletak alokatzeko sistema publikorik abian.



7.3 koadroa Bizikleta publikoak alokatzeko sistemak. 2019-2024.

(Bidaia-kopurua)

	2019	2020	2021	2022	2023	2024	Urteko % Δ 24/23
Dbizi ¹	--	--	488.284	787.963	945.642	1.294.358	36,9
Bilbaobizi (Bilbao)	1.704.364	941.959	1.380.436	1.621.626	2.015.239	1.984.603	-1,5
TOTAL	1.704.364	941.959	1.868.720	2.409.589	2.960.881	3.278.961	10,7


¹ Zerbitzua 2020ko abenduan jarri zen martxan.

Iturria: Bizkaiko Garraio Partzuergoa, Donostiako Udala.

7.1.3 Bizkaia Zubia (zubi esekia)

Bizkaia Zubian (zubi esekia) 3,4 milioi erabiltzaile izan ziren 2024an eta, aurreko ekitaldiarekin alderatuta, % 0,6ko igoera txikia gertatu zen. 2022az geroztik, azpiegitura erabili dutenen kopurua handitu egin da, Bilboko Metroaren eskaintza zabaldu izanaren ondorioz azken bi hamarkadetan izandako beheranzko joera etenda. Hala, zifrak mendearen hasierakoekin alderatuz gero, 2,4 milioi joan-etorri inguru galdu ziren Areeta (Getxo) eta Portugalete artean.

7.2 grafikoa Bizkaiko Zubi Esekiko zirkulazioa. 2001-2024.



Iturria: Bizkaiko Garraio Partzuergoa.

7.1.4 Bilboko itsasadarreko txalupak

Portugalete eta Areeta (Getxo) lotzen dituzten txalupen joan-etorriak 327,8 milara jaitsi ziren; hau da, 2023an baino % 18,6 gutxiago izan ziren. 2024ari dagokionez, datuak ekainetik daude kontsultagai, orduan ezarri baitziren Creditrans eta Gizatrans txartelak. Erandio eta Barakaldo lotzen dituzten txalupek zerbitzua emateari utzi zioten 2024ko otsailean.

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Esparru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itxaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak

7.4 koadroa Bidaiariontzietako zirkulazioa. 2015-2024.

(Bidaiariak, milakotan)

	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024	Urtek o % Δ 23/22	Urteko % Δ 24/23
Portugalete-Las Arenas	415,8	477,0	465,7	434,7	439,3	356,8	205,2	401,5	474,4	327,8	18,2	-18,6
Erandio-Barakaldo ¹	72,0	57,7	39,2	--	--	56,8	84,3	106,0	--	--	--	--
GUZTIRA	487,8	534,7	484,9	434,7	439,3	413,6	289,5	507,5	474,4	327,8	--	-18,6

¹Erandio-Barakaldoko 2023 bidaia daturik ez dago.

Iturria: Bizkaiko Garraio Partzuergoa.

7.2 Plataforma logistikoak eta intermodalak

EAEn, merkantzien garraioaren kudeaketarako irtenbide integralak eskaintzen dituzten lau plataforma logistiko daude: Gasteizko Garraio Zentroa (CTVi) eta Arasur Araban; Aparkabisa, Bizkaian, eta Zaisa, Gipuzkoan. Hurrengo ataletan, plataforma bakoitzaren alderdirik esanguratsuenak laburtzen dira.

7.5 koadroa Plataforma logistiko handien magnitude nagusiak EAEn. 2024.

2024



Instalatutako enpresak



Enplegua



Salgaien zirkulazioa (tona urtean)



Ibilgailu indust. zirkulazioa eguneko Kamioiak | Furgonetak



Ibilgailu industrialentzako aparkaleku-kopurua



Ibilgailu indust. aparkalekuaren azalera, guztira (m2)



Ibilgailu indust. aparkalekuetako toki-kopurua



Batez besteko betetze-maila ibilgailu indust. aparkalekuetan, guztira

		72	1.729	d.e.	1.342	523	1	23.821	182	% 98,9
arasur		14	230	1.500.000	200	120	1	20.000	197	% 70
apar kabisa		50	46	1.682.583	290	312	4	192.050	1.260	% 96,8
		135	1.860	3.300.000	1.850	2.800	2	45.000	370	% 93,0

Iturria: Gasteizko Garraio Zentroa (CTVi)

7.2.1 Gasteizko Garraio Zentroa (CTVi)

Gasteizko Garraio Zentroa (CTVi) Jundiz industrialdean dago, Gasteiztik gertu; jarduera logistikoak garatzera bideratutako enpresak finkatzea helburu duen osagai dinamizatzailea da. Plataforma horrek 718.141 m2-ko azalera du guztira, eta horietatik, 238.929 m2 nabeek hartzen duten azalera da, eraikitako azalera, alegia. Nabeetan garraioarekin eta logistikarekin zerikusi zuzena duten jarduerak egiten dira: biltegiatzea, banaketa, aduanak eta stockak kudeatzea, zama zatitzea eta finkatzea, eta garraio motaz aldatzea.

Horren haritik, honela banatuta dago jarduera horiek egiteko azalera: garraio motaz aldatzeko jardueretarako (tren bidezko garraiotik errepede bidezkora eta alderantziz) azalera 122.587 m2-koa



- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Esparru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itxaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak

da; banaketa-jardueretarakoa, 110.336 m2-koa, biltegitratze-eta garraio-jardueretarakoa, berriz, 109.312 m2-koa.

Logistika-jarduerarako azalera 190.441 m2-koa da, zerbitzuen zonak 28.214 m2 hartzen ditu, eta ibilgailu industrialentzako aparkalekurako azalera, berriz, 23.821 m2-koa da.

7.6 koadroa CTViren jardueraren bilakaera. 2022-2024.

									
		Instalaturako enpresak	Enplegua	Salgaien zirkulazioa (tona urtean)	Ibilgailu indust. zirkulazioa eguneko Kamioiak Furgonetak	Ibilgailu indust. aparkaleku-kopurua	Ibilgailu indust. aparkalekuaren azalera, guztira (m2)	Ibilgailu indust. aparkalekuetako toki-kopurua	Batez besteko betetze-maila ibilgailu indust. aparkalekuetan, guztira
2022	➤	68	1.642	d.e.	1.278 545	1	23821	182	% 98,9
2023	➤	69	1.699	d.e.	1.326 496	1	23.821	182	% 98,9
2024	➤	72	1.729	d.e.	1.342 523	1	23.821	182	% 98,9

Iturria: Gasteizko Garraio Zentroa (CTVi)

2024an, 72 sozietate zeuden CTVi plataforman finkatuta eta, aurreko urtearekin alderatuta, 3 konpainia gehiago izan ziren. Horri lotutako enplegua 1.729 pertsonakoa zen (2023ko datuekin alderatuta, % 1,8ko igoera). Ibilgailu industrialen joan-etorriari dagokionez, eguneko kamioiak % 1,2 igo ziren, eta furgonetak % 5,4. Garraio-ibilgailuentzako aparkalekuen okupazio-indizea % 98,9an mantendu zen, 182 plazetatik 180 beteta baitzeuden. Abonatuen kasuan, % 93,4ra igo zen (170 plaza).

7.2.2 Arasur

Arabako plataforma logistiko multimodala da Arasur, eta Miranda de Ebrotik gertu dago. 2023an, Arasurreko guztizko azalera urbanizagarria 1.069.000 m2-ra hazi zen (2022arekiko +% 94,1) eta eraikitako azalera 110.000 m2-ra (+% 29,4). Bere garapen ekonomikoak lan hauek jasotzen ditu: portuko eta aireko jardueri babesa ematea, biltegitratzea, erregulazioa eta banaketa, ontzi-aldaketa intermodala, flotisten garraioa eta nazioarteko zirkulazioa eta administrazioko eta merkataritzako guneari dagozkion jarduerak. Gainera, plataformak zentroko nabeetara trenbide bidez sarbidea izateko zerbitzua du; horri esker, trena-kamioia intermodalitatea eskaintzen du.



7.7 koadroa Arasurren jardueraren bilakaera. 2022-2024.



Iturria: Arasur.

2024an, Arabako logistika-zentroaren jarduerak azken lau urteetako datu berberak izan zituen. Guztira 14 enpresa zeuden, 230 langilerekin eta 1,5 milioi tona jaso zituzten. Egun bakoitzeko ibilgailu industrialen zirkulazioari dagokionez, 200 kamioi eta 120 furgoneta erregistratu ziren (2021eko zifra bera). Aparkalekuaren batez besteko okupazioa ibilgailu industrialentzako guztizko edukieraren % 70ean mantendu zen (197plaza).

7.2.3 Aparkabisa

Aparkabisa -Bizkaiko Garraio Gunea zentro logistikoaren jardueraren xedea da salgaiez eta ibilgailu industrialen aparkalekuz osatutako zentralak sustatzea, prestatzea eta ustiatzea. Azpiegitura oso ongi komunikatuta dago Bilboko portuan dituen instalazioei esker. Gainera, Loiuko aireportutik gertu dago, bai eta Espainiako estatua Europarekin lotzen duten errepide-eta tren-sare nagusietatik gertu ere.

Gaur egun, Aparkabisak bi eremutan jarduten du: Ugarteko garraio-zentroan (Barakaldo eta Trapagaran artean dago, eta 200.000 m2-ko azalera eraikia hartzen du) eta Zierbenan (Bilboko portuaren lurretan dago eta 112.560 m2-ko azalera du).

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Esparru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itxaso Bidezko Garraioa
- 7 **Beste Garraiobide Batzuk**
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak



7.8 koadroa Aparkabisaren jardueraren bilakaera. 2022-2024.

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Esparru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itxaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraibide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasagarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak

aparkabisa									
	Instalatutako enpresak	Enplegua	Salgaien zirkulazioa (tona urtean)	Ibilgailu indust. zirkulazioa eguneko Kamioiak	Ibilgailu indust. zirkulazioa eguneko Euroonetak	Ibilgailu Indust. aparkaleku kopurua	Ibilgailu Indust. aparkalekuaren azalera, guztira (m2)	Ibilgailu Indust. aparkalekuetako toki-kopurua	Batez besteko beterze-maila ibilgailu indust. aparkalekuetan, guztira
2022	48	42	268.764	425	316	4	192.050	1.260	% 97
2023	49	42	1.641.562	315	346	4	192.050	1.260	% 96,7
2024	50	46	1.682.583	290	312	4	192.050	1.260	% 96,8

Iturria: Aparkabisa. Bizkaiko Garraio Gunea, A.B

2024an, plataformak 50 enpresa zituen, eta 46 langile zituzten horiek. Urtean jasotako merkantzia kopurua 1,68 milioi tonakoa zen. Ibilgailu industrialen eguneroko zirkulazioa 290 ibilgailu astunekoa, 312 banaketa-ibilgailukoa eta 100 autobusekoa izan zen. Aparkalekuen batez besteko okupazioari dagokionez, industriako ibilgailuentzat erabilgarri jarritako 1.260 plazen % 96,8koa izan zen.

7.2.4 Zaisa

Zaisa (Irungo Garraio Zentroa) Gipuzkoako logistika-zentroa da eta Europako errepideko zirkulazioaren leku estrategiko batean dago, Frantziaren eta Espainiaren arteko muga, A-8 eta A-68 autobideen ondoan, Madril eta Paris arteko ardatzean; gainera, Donostiako eta Biarrizko aireportuetatik gertu dago, eta Pasaia portutik hurbil. 400.000 m2 hartzen ditu zentroak, eta 126.608 m2-koa da eraikitako azalera, garraio-eta logistika-jarduerak egiteko. Jakina, non kokatuta dagoen ikusita, nazioarteko garraioa eta logistika dira nagusi. Biltegitratzeko nabeetarako 8.500 m2, bulego eta lokal komertzialetarako 7.000 m2, harrera-zentroa eta ZAISA III-ko gasolina-zerbitzugunearen orubea ditu plataformak. Instalazio horietan jarduten duten enpresek hainbat jarduera egiten dituzte: garraio nazionala eta nazioarteko garraioa, karga zatitua, karga osoa, salgai arriskutsuen garraioa, logistika eta biltegitratzea, hozkailu-ibilgailuen bidezko banaketa eta aduanetako jarduerak.



7.9 koadroa Zaisaren jardueraren bilakaera. 2022-2024.



Iturria: Zaisa

2024an, 135 enpresa zeuden instalatuta (+% 0,7, + 1 sozietate), eta zuzeneko 1.860 langile zeuden kontratatuta (+% 0,5). Merkantzia-bolumena, berriz, 3,3 milioi tonakoa izan zen (2023ko maila bera).

Ibilgailu industrialen eguneroko zirkulazioa gutxitu egin zen, bai kamioiei dagokienez, bai furgonetei dagokienez ere: 1.850 ibilgailu astun (2023koarekin alderatuta, -% 1,9) eta 2.800 furgoneta (-% 4,4) eguneko.

Zentro logistikoak 2 aparkaleku ditu ibilgailu industrietarako. Horiek 45.000 m²-ko azalera dute eta 370 ibilgailu sar daitezke. Aparkalekuen batez besteko okupazio maila % 93koa da (2023an % 95,6): txandakako plazen kasuan, % 71 ekoa eta, abonatuaren plazen kasuan, % 100ekoa.

7.2.5 Geltoki intermodalak

Merkantzien tren bidezko garraioa bultzatzea da Eusko Jaurlaritzaren helburu garrantzitsuenetako bat. Horretarako, 2011n lankidetzatza-protokolo bat sinatu zuen Sustapen Ministerioarekin Jundizko (Araba) eta Lezoko (Gipuzkoa) terminal logistiko intermodalak garatzeko. Biak Sustapen Ministerioak Salgaien Trenbide Garraioa Sustatzeko Plan Estrategikoko terminal logistiko intermodalen oinarritzko sarean sartuta daude.

Gasteizko Jundiz plataforma logistiko intermodalean, terminala handitzeko eta birmoldatzeko aurreikusitako jarduketaren barruan, 2024an, 1. faseko lanak egin ziren: trenbideko lanak eta elektrifikazioa, eta segurtasuneko eta komunikazioetarako instalazioak. Jarduketek barne hartzen dute harrerako/bidalketako trenbideetako bitan eta zamaletarako eremuko beste bitan zabalera mistoa (hirugarren erraila) txertatzea. Hala, terminala prest egongo litzateke etorkizunean Europarekiko lotura zuzena izateko. Aurreikuspenen arabera, 2025eko bigarren hiruhilekoaren aurretik amaitu beharko litzateke. Aztertutako ekitaldian, Jundizko merkantziak Gasteizko mendebaldetik ateratzeko tren-saihesbide baten azterketa funtzionala egiten ari ziren.

Lezoko plataforma logistikoa, Garraio eta Mugikortasun Jasangarriko Ministerioak eta Eusko Jaurlaritzako Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailak Lezo-Gaintxurizketako (Gipuzkoa) terminal intermodala edo logistikoa garatzeko lankidetzatza-protokoloa aldatzea eta luzatzea adostu zuten. Gehieneko indarraldi eta luzapen-aldia da, eta Lezo-Gaintxurizketako (Gipuzkoa) terminal



intermodala eta logistikoa garatzeko beharrezkoak diren Informazio Azterlana eta Eraikuntza Proiektuak egiteko alderdien arteko lankidetzak modu eraginkorrean egitea ahalbidetu eta babestuko du.





Ondorio eta Joera Nagusiak

8.



8. Ondorio eta Joera Nagusiak

8.1 Garraio-jarduerak sortutako ondorioak

Kapitulu honetan zehar garraioak hiritarren osasunean eta ingurumenean eragin ditzakeen ondorio nagusiak garatzen dira, kalte horiek direla eta, sektoreak plangintza bat egin behar du, jasangarritasunaren ikuspegitik, pertsonen mugikortasunarekin eta merkantzien garraioarekin lotutako azpiegitura, intsumo, zerbitzu eta prozesu erraztaileetatik eratorritako kostuak ahalik eta gehien murrizteko.

8.1.1 Istripuak

Garraio-jardueraren ondorioen artean, istripuak dira gizartean kalte eta eragin negatibo handienak sortzen dituztenetako batzuk. Horri dagokionez, zehaztu behar dugu “2021-2025 Euskadiko Bide Segurtasuneko eta Mugikortasun Seguru eta Jasangarriko Plan Estrategikoak” helburu hau duela:


“Istripu-tasa murriztea (trafiko-istripuek eragindako Zero biktimaren ikuspegitik) eta, horrela, Euskadi bide-segurtasunari eta trafikoaren kudeaketari dagokienaz Europan erreferente bihurtzea, hildako eta larri zauritutako pertsonen kopurua murrizteko helburu orokorrak betez”.

Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzaren Urtekari Estatistikoan jasotako datuen arabera, 2024an, biktimak eragin zituzten 4.154 istripu gertatu ziren EAEko errepide-sarean; hau da, aurreko urtean baino % 7 gutxiago (4.467, 2023an). EAEko errepideetan istripua jasandako pertsonak 5.551 izan ziren (-% 6,3 aurreko ekitaldiarekin alderatuta). Lesioen irismenaren arabera, kaltetuen % 90,6k zauri arinak izan zituzten, % 8,8k larriak, eta % 0,6 zirkulazio-istripuan hil ziren (37 pertsona). 2023ko datuekin alderatuta, kalte arinak jasan zituzten pertsonak % 7,1 jaitsi ziren, zauritu larriak % 3,4 igo ziren, eta heriotzak % 15,9 jaitsi ziren (2023an baino 7 hildako gutxiago).



8.1 grafikoa Ertzaintzak eta Udaltzaingok¹ 2000 eta 2024 artean EAEko bide-azpiegituretan erregistratutako biktimadun istripuak eta biktimak.

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Esparru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itxaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak



¹ 2005 arte hiru euskal hiriburutako udaltzaingok adierazitako istripuak soilik; 2006 euskal hiriburuak, Irun, Santurtzi, Sestao eta Basauri; 2007 euskal hiriburuak, Irun, Beasain eta Basauri; 2008 euskal hiriburuak, Irun, Santurtzi eta Sestao; 2009 euskal hiriburuak, Irun, Barakaldo, Santurtzi, Sestao, Lezo eta Zarautz; 2010, 2011, 2012, 2013 eta 2014 euskal hiriburuak, Irun, Barakaldo, Santurtzi, Sestao eta Zarautz; 2015, 2016 eta 2017 euskal hiriburuak, Barakaldo, Santurtzi, Sestao eta Zarautz; 2018 euskal hiriburuak, Barakaldo eta Santurtzi; 2019 euskal hiriburuak, Barakaldo, Santurtzi, Errenteria eta Ordizia; 2020 euskal hiriburuak, Barakaldo, Getxo eta Irun; 2021 euskal hiriburuak, Getxo, Eibar, Portugalete, Leioa, Basauri, Pasaia, Galdakao, Orio, Sestao, Barakaldo, Errenteria, Villabona, Amurrio, Gernika-Lumo, Irun, Muskiz, Ermua, Ortuella eta Beasain; 2022 euskal hiriburuak, Barakaldo, Getxo eta Irun; 2023 euskal hiriburuak, Getxo, Portugalete, Basauri, Leioa, Galdakao, Eibar, Pasaia, Gernika-Lumo, Muskiz, Errenteria, Orio, Irun, Gortiz, Plentzia, Sestao eta Barakaldo; 2024 euskal hiriburuak, Getxo, Portugalete, Leioa, Galdakao, Eibar, Pasaia, Gernika-Lumo, Muskiz, Orio, Irun.


Iturria: Trafiko Istripen Urtekari Estatistikoa. Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritza.

EB-27ko errepideetako hilkortasun-tasa kontuan hartuta, EAEn izan zen zirkulazio-istripuetako heriotza-tasarik txikiena 2024an: 17 hildako milioi biztanleko. Jarraian, Suedia (20), Malta (21) eta Danimarka ageri dira zerrendan (milioi bat biztanleko, 24 hildako). Espainia hamaikagarren postura jaitsi zen 35 hildako/miloi bat biztanleko (2023an, 38) EB-27ko errepideetako ezbeharren hilkortasun-tasa 44 hildako/miloi biztanlera gutxitu zen (46 izan ziren 2023an). Beste nolabait esanda, beraz, Europako hilkortasun-tasa EAEko bide-sarekoa bi halako baino gehiagokoa da.

2023ko datuekin alderatuta, hilkortasun-tasan beherakada nabarmena izan zuten herrialdeak Letonia (-16 heriotza), Lituania (-14 heriotza) eta Luxenburgoko (-12 hildako milioi bat biztanleko) izan ziren. Aldiz, gora egin zuen Estonian eta Zipren (+6 hildako milioi pertsonako, 2023ko datuekin alderatuta).



8.2 grafikoa Bide-istripuetan hildakoen kopurua milioi bat biztanleko EB-27n. 2023-2024.



¹ 2024an: behin-behineko datuak.
Iturria: Road Safety Statistics 2024. Trafiko Istripuen Urtekari Estatistikoa. Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritza; INE.

Lurralde historikoen arabera istripu-tasari dagokionez, Ertzaintzak egindako txostenaren arabera, EAEn biktimak eragin zituzten istripuen % 16,3 Araban gertatu ziren. Larritasunari dagokionez, heriotzen % 18,8 eta zauritu larrien % 23,5 Arabako errepideetan gertatu ziren. Zauritu arinak izan ziren Euskadi osoko larritasun txikieneko % 16,6.

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Esparru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itxaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak



Bizkaian, EAEko errepide-sarean gertatutako eta zaurituak eragin zituzten ezbeharren % 47,3 gertatu ziren. Bizkaiko errepideetako istripuetan hildakoak kopuru osoaren % 47,7 izan ziren, eta larri zauritutakoak % 39,5. Lesio arinak jasan zituzten bidaia-riak % 48,7 izan ziren, EAEko zauritu arin guztiak kontuan hartuta.

8.1 koadroa Ertzaintzak erregistratutako biktimadun trafiko-istripuak, lurralde historikoaren arabera. 2024.

Lurraldea	Biktimak eragin dituzten istripuak		Biktimak							
			Guztira		Hildakoak		Zauritu larriak		Zauritu larriak	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Araba	407	16,3	605	17,3	6	18,8	77	23,5	522	16,6
Bizkaia	1.181	47,3	1.667	47,7	9	28,1	129	39,5	1.529	48,7
Gipuzkoa	908	36,4	1.225	35,0	17	53,1	121	37,0	1.087	34,7
EAE, guztira	2.496	100	3.497	100	32	100	327	100	3.138	100


Oharra: 24 ordu baino lehen hildakoak.
Iturria: Trafiko Istripuen Urtekari Estatistikoa. Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritza.

Gipuzkoan, kaltetuak eragindako ezbeharren % 36,4 gertatu ziren. Gipuzkoako errepideetako zirkulazio-istripuetan hildakoak Euskadiko errepideetako heriotzen % 53,1 izan ziren. Zauritu larrienak EAE osoarekiko % 37 izan ziren, eta larritasun maila txikienekei dagokienez, berriz, EAEko errepide-sistemako zauritu arinen % 34,7.

8.1.2 Auto-pilaketak


EAEen auto-pilaketak eragiten dituzten faktoreen artean, zirkulazioan ibilgailu pribatu gehiago izatea nabarmendu behar da. Motorizazio-indizea goranzko bidean doa 90eko hamarkadatik, etenaldi puntualak izan arren. 2024an, nolabaiteko parentesia egon zen Euskadiko motorizazio mailaren goranzko joeran; izan ere, mila biztanleko tasa 458 turismotara jaitsi zen eta, ondorioz, 2023ko datuekin alderatuta, % 1,5eko jaitsiera gertatu zen.

8.3 grafikoa Turismo-parkea eta motorizazioa. 1998-2024 bilakaera.



Iturria: Trafikoko Zuzendaritza Nagusia eta EIN. GIS -Garraioaren Informazio Sistema (OTEUS).

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Esparru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itxaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak



Euskadiko bide-sareetako pilaketa-arazoa trafikoaren Eguneko Batez besteko Intentsitatearen (EBBI) datuak sareko neurketa-estazioetatik aztertuta enfoka liteke. Hori kalkulatzeko, errepide batek urtebetean duen trafikoaren bolumen osoa urteak dituen 365 egunez zatitzen da. Aipatzekoa da okupazio-intentsitate handia duten bideak egoteak eragin negatiboak dituela, esaterako, pilaketa-egoerak eta kutsadura maila handiagoa; eragin negatibo horiek gutxitu egin behar dira ahal den neurrian.

Hurrengo koadroan 2024ko EBBIren aldakuntza zehazten da lurralde historiko bakoitzeko sare motaren arabera. Araban, intentsitatea % 2,2 handitu zen lehentasunezko errepideetan, % 1,7 oinarritzko sarean eta eskualde-sarean, eta % 0,6 eta % 0,7 auzoko sarean eta herriko sarean, hurrenez hurren. Bizkaian, ibilgailuen intentsitateak gora egin zuen bide-egitura guztietan, sare osagarrian izan ezik (-% 0,2). Gipuzkoan, indize horrek gora egin zuen batez ere lehentasunezko sarean (+% 1,8) eta oinarritzko sarean (+% 1,5). Aldiz, behera egin zuen sare gris nagusia (-% 2) eta bigarren mailako sarean (-% 6,8).

8.2 koadroa EBBIren bilakaera, sare motaren eta lurralde historikoaren arabera (ibilgailu kopurua/eguneko). 2023-2024.

Lurralde historikoa	Bide mota	Ibilgailu kopurua/eguneko		Δ % 23/24
		2023	2024	
Araba	Lehentasunezko sareak	19.054	19.474	2,2
	Oinarritzko sareak	3.905	3.971	1,7
	Eskualdeko sareak	1.331	1.353	1,7
	Herriko sareak	716	721	0,6
	Sare gris nagusia	-	-	-
	Bigarren mailako sare grisa	-	-	-
	Sare urdin osagarria	-	-	-
	Auzoko sareak	220	221	0,7
Bizkaia	Lehentasunezko sareak	31.702	32.185	2,0
	Oinarritzko sareak	16.175	16.493	1,8
	Eskualdeko sareak	3.315	3.376	4,0
	Herriko sareak	1.542	1.603	1,5
	Sare gris nagusia	-	-	-
	Bigarren mailako sare grisa	-	-	-
	Sare urdin osagarria	9.862	9.839	-0,2
	Auzoko sareak	-	-	-
Gipuzkoa	Lehentasunezko sareak	22.134	22.542	1,8
	Oinarritzko sareak	17.880	18.153	1,5
	Eskualdeko sareak	2.805	2.818	0,5
	Herriko sareak	1.015	1.017	0,2
	Sare gris nagusia	455	446	-2,0
	Bigarren mailako sare grisa	219	204	-6,8
	Sare urdin osagarria	-	-	-
	Auzoko sareak	-	-	-

Iturria: Arabako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia, Gipuzkoako Foru Aldundia

EAEko hiriburuetarako sarbideak kontuan hartuta, eguneko batez besteko zirkulazio-intentsitatea, sarbide guztietarako kalkulatu, handitu egin zen Gasteizen eta Donostian (+% 2,4 bi hirietan), eta gutxitu Bilbon (-% 0,7). Arabako hiribururako sarreretan, EBBIren hazkunderik handiena Gometxan (+% 4,3) eta Ihurreko lotunean (+% 3,3) gertatu zen. Donostiarako sarbideetan, gorakadarik handiena Intxaurrendoko tunelak (+% 3,5) eta G140 Ospitaleak errepideak (+% 3,3) izan zuten. Bilbon, Basurtu-Kastrexanan (-% 10,1) eta Orueta-Egiritan (-% 3,9) izandako zirkulazio txikiagoak eragin zuen jaitsiera hori.

8.3 koadroa EBBiren bilakaera euskal hiriburuetarako sarbideetan (ibilgailu kopurua/eguneko). 2023-2024.

Hiriburu	Sarbideak	Ibilgailu kopurua/eguneko		Δ % 23/24
		2023	2024	
Gasteiz	Gometxa	16.177	16.869	4,3
	Arkauti	7.799	7.908	1,4
	Gamarrako lotunea	21.781	21.851	0,3
	Ihurreko lotunea	31.216	32.247	3,3
	Gasteizko mendatea	3.418	3.413	-0,1
	Gasteizko sarrera guztiak	80.391	82.288	2,4
Bilbo	Deustu-Elorrieta	10.448	10.604	1,5
	Deustu-Enekuri	48.956	50.428	3,0
	Artxandako tunelak	18.128	18.051	-0,4
	Orueta-Egirleta	35.222	33.836	-3,9
	Ibarsusi-Etxebarri	28.251	30.668	8,6
	Boluetako Zubialdea	8.209	8.557	4,2
	Miraflores-Hegoaldeko irt.	44.255	45.197	2,1
	Zabalburu plaza-Hegoaldeko irt.	36.166	35.398	-2,1
	Jesusen Bihotza plaza-Hegoaldeko irt.	5.516	5.501	-0,3
	Basurtu-Kastrexana	50.127	45.052	-10,1
	Basurtu-Zorrotza	6.331	6.334	0,0
	Bilboko sarrera guztiak	291.609	289.626	-0,7
Donostia	Tolosa hiribidea	27.305	27.685	1,4
	Donostiako Ospitalea	12.128	12.095	-0,3
	Amara	39.234	40.192	2,4
	GI40 Ospitaleak	15.941	16.462	3,3
	Intxaurrondoko tunela	52.998	54.841	3,5
	Zorroagako tunela	23.705	24.088	1,6
	Donostiako sarrera guztiak	171.311	175.363	2,4

Iturria: Arabako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia, Gipuzkoako Foru Aldundia

Informazio osagarri gisa, Bizkaiko errepideen pilaketa-egoera aztertzeko, “Trafikoaren bilakaera Bizkaiko errepideetan”¹⁸ txostena dugu esku artean (Bizkaiko Foru Aldundiak egina).

Kalkulua egiteko, gaitasun handiko bide-sareko kontrol-estazioetan emandako zerbitzu-mailaren arabera urteko orduen banaketa aztertu da. Horri dagokionez, gogorarazi behar da zerbitzu-maila aldatu egin daitekeela "A" (ona dela esan daiteke) eta "F" (oso pilatuta dagoela esan daiteke) mailen artean. Horrela, azterketa honi begira, uste da errepide bat pilatuta dagoela E mailatik aurrera.


2024an, Bizkaiko zirkulazio kontrolatuko tarteetan eta galtzadetan, E zerbitzu mailaren ordu kopurua urteko guztizkoaren % 0,85era jaitsi zen, eta F maila urteko orduen % 0,06ra igo. Pilaketa mailak (E-F) guztizkoaren % 0,91ra gutxitu ziren eta, ondorioz, intentsitate maila altuko bideak maila baxuetan mantendu ziren.

¹⁸ Informazio gehiagorako, kontsultatu:

http://www.bizkaia.eus/home2/Temas/DetalleTema.asp?Tem_Codigo=6322&Idioma=EU



8.4 koadroa Bizkaiko errepideen urteko funtzionamendu-orduak, zerbitzu mailaren arabera. 2024.



Gunea		Zerbitzu maila							Orduak guztira
		Errepidea	A	B	C	D	E	F	
21a1	Kaxtresana G. -Gurutzeta G. (BI-S)	A-8	3.114	1.246	2.376	1.992	53	3	8.784
21a2	Kaxtresana G. -Gurutzeta G. (S-BI)	A-8	3.354	1.287	2.467	1.660	16	0	8.784
45a1	Arrontegiko zubia (BI-Getxo)	N-637	3.454	1.656	2.329	1.229	116	0	8.784
45a2	Arrontegiko zubia (Getxo-BI)	N-6370	3.398	1.581	1.967	1.636	179	23	8.784
81a1	Erandio G. -Unibertsitate G. (BI-Getxo)	BI-637	3.976	1.898	2.609	301	0	0	8.784
81a2	Erandio G. -Unibertsitate G. (Getxo-BI)	BI-637	3.493	2.072	2.401	818	0	0	8.784
99a1	Enekuri G. -Artxandako tunelak	N-637	3.918	2.249	2.015	290	280	32	8.784
99a2	Artxandako tunelak -Enekuri G.	N-637	4.329	1.588	1.689	1.123	54	1	8.784
179a1	Sestao G. -Trapagaran G. (BI-S)	A-8	3.172	1.557	2.457	1.512	83	3	8.784
179a2	Trapagaran G. -Sestao G. (S-BI)	A-8	3.083	1.427	2.902	1.323	49	0	8.784
183A	Areeta -L.P. Santander	A-8	4.597	2318	1.343	483	42	1	8.784
21a1	Kaxtresana G. -Gurutzeta G. (BI-S)	A-8	4.236	3020	1.108	399	20	1	8.784
Orduak, guztira			44.124	21.899	25.663	12.766	892	64	105.408
Guztizko orduak zerbitzu-mailaren arabera banatuta, ehunekotan			41,86	20,78	24,35	12,11	0,85	0,06	100
E eta F mailen batura. Guztizko orduen gainean duen parte-hartzea, ehunekotan			--	--	--			0,91	--

Iturria: Trafikoaren Bilakaera Bizkaiko Errepideetan. Bizkaiko Foru Aldundia.

Aurreko hamar urteetako (2015-2024) tarte kontuan hartuta, ikusten da Bizkaiko errepideetako auto-pilaketek etengabe egin zutela gora lehen bosturtekoan. Joera hori, ordea, 2020an eten zen COVID-19aren ondorioz mugikortasuna mugatu zelako. Hurrengo bi urteetan, aldiz, zirkulazio-intentsitateak ez zuen aldaketarik izan eta, 2023an, gainera, gorakada handia (% 1,59) jasan zuen. 2024an, pilaketa maila ehuneko 0,68 puntu gutxitu zen aurreko urteko datuekin alderatuta.

8.5 koadroa Bizkaiko errepideetako pilaketen bilakaera. 2015-2024.

	2015	2016	2017	2018	2019	2020	2021	2022	2023	2024
E eta F mailen batura. Guztizko orduen gainean duen parte-hartzea, ehunekotan	1,15	1,44	1,45	1,79	2,06	0,66	0,75	0,71	1,59	0,91

Iturria: Trafikoaren Bilakaera Bizkaiko Errepideetan. Bizkaiko Foru Aldundia.

Amaitzeko, aurreko edizioetan bezala, nabarmentzekoa da pilaketek Barne Produktu Gordinaren % 1eko kostua eragiten diotela Europari, urtero (Europako Batzordearen “Garraioa 2050” estrategia globalaren arabera¹⁹), eta horrek kezka handia sortzen duela. Gainera, merkantzien garraio-jarduerak 2030erako % 40 inguru haziko direla aurreikusten da, 2005arekin alderatuta (2050ean % 80 baino gehiago). Bidaia-eraren garraioa, berriz, % 34 haziko litzateke (2050ean % 51).

8.1.3 Ingurumena

a) Zarata

Garraio-jardueraren garapenak berarekin dakar biztanleen osasunean, bizikidetzan eta ongizatean ondorio negatiboak dituen inpaktu akustikoa. Zentzu horretan, kutsadura akustiko horrek sortzen

¹⁹ MEMO Garraioa 2050: http://europa.eu/rapid/press-release_MEMO-11-197_es.pdf



Laburpen Exekutiboa	0
Esparru Orokorra	1
Bilakaera Orokorra	2
Errepide Bidezko Garraioa	3
Tren Bidezko Garraioa	4
Aire Bidezko Garraioa	5
Itxaso Bidezko Garraioa	6
Beste Garraiobide Batzuk	7
Ondorio eta Joera Nagusiak	8
Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria	9
Funtsezko Adierazleak	10
Eranskinak	11

dituen ondorio kaltegarrien artean, hauek dira azpimarragarrienak: interferentziak loan, ahoko komunikazioan eta eguneroko jardueran, bai eta ondorio psikologiko eta fisiologiko kaltegarriak ere.

Hurrengo ataletan EAEko hiru hiriburuei eragiten dieten ingurumen-zarataren fokoen laugarren fasearen Zarataren Mapa Estrategikoetan (ZME) lortutako azterketak eta emaitzen ebaluazioa aurkezten da²⁰. Mapa estrategikoek bideko eta trenbideko trafikoaren, industria-jardueraren eta aireportu-trafikoaren ondorio diren lurretik 4 metroko altuerako immisio-mailak biltzen dituzte²¹.

Hiru euskal hiriburuetan, gaua da garairik kaltegarriena, erreferentziatzko mailatik gora kaltetutako biztanleen zifra altuena erakusten baitu ($L_n=55$ dBA). Zehazki, Bilbon eta Gasteizen gauean 55 dBA-tik gorako kaltea jasaten duen biztanleriak antzeko pisua du (% 10 eta % 9,5 hurrenez hurren), Donostiako biztanleria kaltetua, bestalde, % 30,7 izan zen. 2017arekin alderaturik, Bilbon kaltetutako biztanleriaren jaitsiera nabarmena izan zen, 2017an % 30 izatetik 2022an guztizko zarataren % 10 izatera pasatu zen. Zarataren ebaluazioaren etengabeko hobekuntza Bilboko Udalak sustatu du Ekintza Planaren bidez. Donostian, bestalde, kaltetutako biztanleen ehunekoak gora egin du (% 12koa zen 2017an) kalkulu-metodoaren aldaketaren ondorioz zarata-fokuen zehaztaperen handiagoa hartzen baitu kontuan. Gasteizen, kaltea 2017koaren antzekoa izan zen (% 10ekoa zen 2017an).

Bideko trafikoa da hirian biztanleei kalterik handiena sortzen diena, kaleekin lotutako fokua da pertsona gehien kaltetzen dituen. Bilbon, bideko trafikoak kaltetutako biztanleria gehiena bat dator bideko ardatz handiekin. Gipuzkoako hiriburuan, zarata-maila handiena sarrerako bideetan eta kaleen tipologia eta ibilgailu ugari biltzen dituzten erdiguneko auzoetarako arteria nagusietan sortzen da. Gasteizen, eremurik kaltetuenak udalerraren trafikoa kanalizatzen duten kale nagusiak dira eta, oro har, abiadura-mugarik ez dutenak.


²⁰ Informazio gehiagorako, kontsultatu Kutsadura Akustikoari buruzko Informazio Sistemaren webgunea: <https://sicaweb.cedex.es/consulta-de-mapas-de-rudio/4a-fase/>

²¹ Gasteizen, errepideko trafikoak kaleak eta tranbia biltzen ditu. Bilbon, tranbiaren bidean sortutako zarata trenbide bidezko trafikoaren barneketzat hartzen da. http://europa.eu/rapid/press-release_MEMO-11-197_es.pdf



8.4 grafikoa EAEko hiru hiriburuetako bideko trafikoak eragindako zarataren eraginpean dauden biztanleak¹. 2022.

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Esparru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itxaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak



¹ 4 metroko altueran zarataren eraginpean dauden biztanleak, 5 dB(A)-ko tarteetan.

* Donostian eraginpean dauden biztanleak badaude, baina 51 baino gutxiago dira. 0 balioak eraginpean dauden biztanle-egoerak adieraz ditzake, baina ehunekoak biribilduta ez dira iristen 1eko baliora.


Iturriak: Kutsadura Akustikoari buruzko Informazio Sistema: <https://sicaweb.cedex.es/consulta-de-mapas-de-rudio/4a-fase/>, Gasteizko Udala, Bilboko Udala eta Donostiako Udala.

Trenbide-trafikoak kaltetutako biztanleak gutxi dira. Bilbon, trenbideak gutxieneko eragina du gehiena lurpean baitago eta trenbidearen lehen lerroko eraikinei eragiten die soilik. Donostian, garairik kaltegarriena arratsaldea da, eta sareari dagokionez, ADIF lineak eragiten du zaratarik handiena, batez ere Groseko bihurgunean; ETS linean, aldiz, Errondo Pasealekuko bihurgunea da kaltetuena. Arabako hiriburuan, ADIF sareak lehen lerroan dauden eraikinei eragiten die funtsean. 2017arekin erlazioz, Gasteizko foku horretako zarata nabarmen murriztu da, merkantzia-tren desberdinen emisioak doitzearren eta joan-etorriak txikitzearen ondorioz.

Industriari dagokionez, Bizkaiko eta Gipuzkoako hiriburuetan ez dago foku horrek kaltetutako biztanlerik, Arabako hiriburuan, bestalde, jarduera industrialak gutxieneko eragina du egoitza-erakuntzen gainean.

8.5 grafikoa EAEko hiru hiriburuetako trenbideko trafikoak eragindako zarataren eraginpean dauden biztanleak¹. 2022.

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Esparru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itxaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasagarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak



¹ 4 metroko altueran zarataren eraginpean dauden biztanleak, 5 dB(A)-ko tarteetan.

* Donostian eraginpean dauden biztanleak badaude, baina 51 baino gutxiago dira. 0 balioak eraginpean dauden biztanle-egoerak adieraz ditzake, baina ehunekoak biribilduta ez dira iristen 1eko baliora.


Iturriak: Kutsadura Akustikoari buruzko Informazio Sistema: <https://sicaweb.cedex.es/consulta-de-mapas-de-rudio/4a-fase/>, Gasteizko Udala, Bilboko Udala eta Donostiako Udala.

Bilbon, eragin handiena jasaten duten barrutiak Deustu, Abando eta Basurtu/Zorrotza eta Errekalde dira oraindik ere, mapa honek erakusten duen moduan. Aitzitik, kalte txikiena jasaten dutenak Otxarkoaga/Txurdinaga eta Uribarri dira.



8.6 grafikoa Bilbo erdiguneko bideko trafikoaren zarataren mapa estrategikoa. Lden. 2022.

- Laburpen Exekutiboa 0
- Esparru Orokorra 1
- Bilakaera Orokorra 2
- Errepide Bidezko Garraioa 3
- Tren Bidezko Garraioa 4
- Aire Bidezko Garraioa 5
- Itxaso Bidezko Garraioa 6
- Beste Garraiobide Batzuk 7
- Ondorio eta Joera Nagusiak 8**
- Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria 9
- Funtsezko Adierazleak 10
- Eranskinak 11




Iturriak: Kutsadura Akustikoari buruzko Informazio Sistema: <https://sicaweb.cedex.es/consulta-de-mapas-de-ruido/4a-fase/>, Bilboko Udala.

Donostian, 60 eta 65 dB(A) arteko maila akustikoak jasaten dituzten guneak sortzen dituzten trafiko-ardatz nagusiak herrigunea inguratzen duen GI-20 saihesbidea eta etxebizitzak hurbil dituzten tarteetako GI-41 errepidea eta bide hauek dira: Ibaeta: Tolosa etorbidea, Errotaburu pasealekua eta Zarautz kalea edo Antiguoa: Zumalakarregi etorbidea edo Aiete: Lugaritz pasealekua edo Erdigunea: Zubieta, San Martin eta Urbieta kaleak, Foruen eta Gernikako Arbolaren pasealekua edo Amara: Karlos I etorbidea, Bizkaia eta Loiolako Erribera pasealekuak edo Gros: Mirakruz kalea, Nafarroa hiribidea eta Kolon pasealekua edo Egia: Karmengo Amaren etorbidea edo Ategorrieta, Intxaurren eta Mirakruz: Ategorrieta etorbidea eta Jose Elozegi alkatea edo Altza: Pasaia Portua etorbidea.

8.7 grafikoa Donostiako bideko trafikoaren zarataren mapa estrategikoa. Lden. 2022.

- Laburpen Exekutiboa 0
- Esparru Orokorra 1
- Bilakaera Orokorra 2
- Errepide Bidezko Garraioa 3
- Tren Bidezko Garraioa 4
- Aire Bidezko Garraioa 5
- Itxaso Bidezko Garraioa 6
- Beste Garraiobide Batzuk 7
- Ondorio eta Joera Nagusiak 8**
- Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria 9
- Funtsezko Adierazleak 10
- Eranskinak 11




Iturriak: Kutsadura Akustikoari buruzko Informazio Sistema: <https://sicaweb.cedex.es/consulta-de-mapas-de-rudio/4a-fase/>, Donostiako Udala.

Gasteizen, inpaktu akustikoak gehien eragiten dien bideak udalerrian trafikoa bideratzen duten kale nagusiak dira eta gehienek ez dute 50 km/h-ko abiaduratik beherako murriztapenik, besteak beste: Forondako Atea, Zadorra hiribidea, Juan Garai, Salburua bulebarra, Brusela hiribidea, Madril, Zaramaga, Herrandarrak, Frantzia, Bake, Errege-erregina Katolikoak, Basoa, Gasteiz hiribidea, Honduras, Simon de Anda, Florida, Manuel Iradier, Zumakadi ibilbidea, Zumabide, Gaztelako Atea, Armentia gaina, Zabalgana hiribidea, Euskal Herria bulebarra, etab. Errepideen bide-trafficak puntualki eragiten die trafiko-azpiegiturretatik hurbil dauden landaguneetako udalerriari, hauei esaterako: Gamarra, Elorriaga edo Arniz.



8.8 grafikoa Gasteizko bideko trafikoaren zarataren mapa estrategikoa. Lden. 2022.

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Esparru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itxaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 **Ondorio eta Joera Nagusiak**
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak



Iturriak: Kutsadura Akustikoari buruzko Informazio Sistema: <https://sicaweb.cedex.es/consulta-de-mapas-de-rudio/4a-fase/> eta Gasteizko Udala.

“Familiak eta Ingurumena Inkesta”-ren arabera²², Eustatek 2021ean argitaratutako azken ikerketan, euskal etxebizitzaren % 8,3k lurreko garraioarekin erlazionaturiko arazoren bat jasaten zuten 2020an, Bizkaian zertxobait handiagoa zen ehunekoa (etxebizitzaren % 8,7%), Gipuzkoak hurbiletik jarraitzen zion (etxebizitzaren % 8,6) eta Araban eragina txikiagoa zen (bizilekuen % 4,9).

b) Aldaketa klimatikoa

2025eko azaroaren 10etik 21era egin ziren Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Hitzarmenaren Kideen hogeita hamargarren Konferentzia (COP30) eta Kyotoko Protokoloko Alderdiak biltzeko Alderdien hogeigarren Konferentzia (CMP20), Belemen (Brasil).

COP30en helburua zen trantsizio energetikoa eta enplegu jasangarria sortzea bateragarriak izan daitezkeela frogatzea, desberdinkeria murriztuz eta nazioen arteko konfiantza indartuz. Nazioarteko lankidetzak eta multilateralismoa, oraindik ere, helburu horiek lortzeko ezinbesteko tresnak dira.

Beste era batera esanda, COP30 justizia klimatikoa bultzatzeko aukera paregabea da. Estatuek giza eskubideak errespetatzeko betebeharra dute, emisioak murrizten eta bidezko trantsizio energetikoa azkartzen duten bitartean.

Gobernuek asmo handiko plan nazionalak aurkeztu behar dituzte, helburu zehatzekin eta epe egiaztagarriekin. Hala, honako hauek izan behar lukete plan horien ardatzak:

²² Informazio gehiagorako, kontsultatu:

http://es.eustat.eus/estadisticas/tema_456/opt_0/ti_Medio_ambiente_-_Familias/temas.html



Laburpen
Exekutiboa

0

Esparru
Orokorra

1

Bilakaera
Orokorra

2

Errepide
Bidezko
Garraioa

3

Tren
Bidezko
Garraioa

4

Aire
Bidezko
Garraioa

5

Itxaso
Bidezko
Garraioa

6

Beste
Garraiobide
Batzuk

7

**Ondorio
eta Joera
Nagusiak**

8

Helburuak eta
Mugikortasun
Jasangarria

9

Funtsezko
Adierazleak

10

Eranskinak

11

- Erregai fosilak pixkanaka bertan behera uztea eta energia garbiekin ordezkatzea.
- Gizarte zibilaren espazioa babestea, aktibisten, ingurumenaren defendatzaileen eta kaltetutako komunitateen parte-hartzea bermatuz.
- Finantzaketa klimatikoa handitzea, zorrik sortu gabe, diru-sarrera txikiko herrialdeek egokitzeko eta biztanleak babesteko aukera izan dezaten.

EAEn, klima-alaketaren ondorioak murrizteko nazioarteko akordioak betetzeko konpromisoa hartzeaz gain, beste ekimen batzuk ere jarri ziren abian 2024an:

- 2021-2024 aldirako Trantsizio Energetikoaren eta Klima Aldaketaren Plana honetan gauzatzen ari zen. Jarraipen- eta ebaluazio-txostena egin zen. Planean proposatutako 15 iniziatibaren aurrerapen-mailak % 75ko batez besteko balioa erdietsi du.
- Trantsizio Energetikoari eta Klima-Aldaketari buruzko 1/2024 Legea onartu zen.
- Energia Berriztagarrien Lurralde Plan Sektorialak indarrean jarraitu zuen.
- EAEko Itsasertzeko Lurralde Plan Sektoriala izapidetze-fasean zegoen, klima-alaketaren erronka berrikusteko eta bertara egokitzeko.
- Hondakinak Prebenitzeko eta Kudeatzeko 2030eko Plana gauzatzen ari zen.
- 2024ko Ekonomia Zirkularraren eta Bioekonomiaren Plana argitaratu zen lehengai berriztagarrien erabilera eta jasangarritasuna indartzeko. Basque Circular Hub sortzeko prozesua indartu eta material berrien berrikuntza eta garapenean egindako inbertsioa bultzatu zen.
- Euskadiko Airearen Kalitatearen 2030 Plana onartu zen.
- Klima eta energia arloko presazko jarduketak landu ziren tokiko erakundeetan LIFE IP Urban Klima 2050 proiektuaren baitan.
- Erosketa eta Kontratazio Berdearen Programa 2030i eta 2030erako Jasangarritasunerako Hezkuntza Estrategiari jarraipena eman zitzaion.
- 2030erako Euskal Autonomia Erkidegoko Biodibertsitate Estrategiaren jarduera-ildoak ezartzea, hala nola Natura 2000 Sarea kudeatzea, naturaren ezagutza eta kultura sustatzea eta lurralde-kudeaketa optimizatzea, natura-ondarearen kontserbazioa eta erabilera jasangarria hobetzeko.
- Basque Net Zero Industria supercluster ekimena abian jarri zen, EAEko kluster eta enpresa nagusiek 2050ean zero emisio garbiko helburuak lor ditzaten.
- Garapen iraunkorra sustatzen duten ekintzak egiten dituzten toki-erakundeei dirulaguntzak emateko deialdia egin zen, 2024arekin lotuta.


Berotegi-efektuko gasen inbentarioari buruz argitaratutako azken datuen arabera (2023koak dira), isuritako guztizko BEG kopurua 16,2 milioi tonara gutxitu zen; hau da, 2022an baino % 22 gutxiago izan ziren. Emisioak gutxitzearen aurkakoa da jarduera ekonomikoaren igoera (EAEko BPGa % 1,8 igo da 2022arekin alderatuta).

Kiotoko protokolorako erabiltzen den berotegi-efektuko gasen guztizko isurpen-indizea ehuneko 22 puntu jaitsi zen, oinarri-urtearekin (1990) alderatuta.



8.9 grafikoa Berotegi-efektuko gasen isuriak EAEn, sektorearen arabera. 2023 (%).

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Esparru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itxaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak




* Energiaren sektoreak inportatutako energia elektrikoa barne hartzen du.
Iturria: Berotegi-efektuko gasen inbentarioa, Euskal Autonomia Erkidegoa, 2023. Eusko Jaurlaritza.

Sektoreka, garraioaren sektoreak isuri zituen berotegi-efektua eragiten duten gas gehien (EAEko guztizkoaren % 37,6). Ondoren, energiaren sektorea azaltzen da (inportatutako energia elektrikoa barne), emisio guztien % 30,5 eragin baitzuen. Industriak, aldiz, Euskadin sortutako gasen % 18,6 eragin zuen.

Garraio-sektoreko datuei dagokienez, 6,1 milioi tona CO₂ baliokide sortu ziren, eta, 2022ko ekitaldiarekin alderatuta, jaitsiera % 4,1ekoa izan zen. Emisio maila 2021ekoaren antzekoa izan zen (orduan hasi zen mugikortasuna suspertzen pandemiaren ondorioz ezarritako murrizketa-neurrien ondoren).

8.10 grafikoa Berotegi-efektuko gas-isuriaren bilakaera EAEn, jardura-sektorearen arabera. 1990-2023 (%).



* Energia-sektorearen zuzeneko isurpenak (inportatutako energia elektrikorik gabe).

Iturria: Berotegi-efektuko gasen isurketen inbentarioa. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2022. Eusko Jaurlaritza.

Sektoreko BEGen emisioak Kyotoko Protokoloaren (1990) oinarri-urtearekin alderatuta aztertzen baditugu, garraioaren sektoreak % 118,8 egin zuen gora, eta emisioetan gorakada handiena izandako jardura bihurtu zen beste behin. 1990eko datuekin alderatuta gas-produkzioan gorakada

Laburpen
Exekutiboa

0

Esparru
Orokorra

1

Bilakaera
Orokorra

2

Errepide
Bidezko
Garraioa

3

Tren
Bidezko
Garraioa

4

Aire
Bidezko
Garraioa

5

Itxaso
Bidezko
Garraioa

6

Beste
Garraiobide
Batzuk

7

Ondorio
eta Joera
Nagusiak

8

Helburuak eta
Mugikortasun
Jasangarria

9

Funtsezko
Adierazleak


10

Eranskinak

11

handiena izandako arloak dira hauek: energiaren sektorea (inportatutako energia elektrikoa sartu gabe), +% 32,5 egin baitzuen gora; eta zerbitzuak, +% 23,9 egin baitzuen gora. Aldiz, energia-sektoreak (inportatutako energia elektrikoa barne) % 80 gutxitu zuen oinarri-urtearen aldean.

8.11 grafikoa Garraio-sektorearen BEG isuriak EAEn. Bilakaera. 1990-2023.



Iturria: Berotegi-efektuko gasen isurketen inbentarioa. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2023. Eusko Jaurlaritzak.

Klima-aldaketari aurre egiteko eta airearen kalitatea hobetzeko helburuarekin, Klima Aldaketari eta Trantsizio Energetikoari buruzko Legea (7/2021 Legea) onartu zen, eta 2023an sartu zen indarrean. Hala, 50.000 biztanletik gorako udalerriak Emisio Gutxiko Eremuak (EGE) sortzera behartu zituen Legeak eta, horietan, gehien kutsatzen duten ibilgailuentzako sarbide-, zirkulazio- eta aparkatze-murritzetak ezarri behar izan ziren. EAEn, erregulazio horrek hiru hiriburuei (Bilbo, Donostia eta Gasteiz), Barakaldori eta Getxori (Bizkaia) eta Iruni (Gipuzkoa) eragin zien.

Honako hauek ziren 2024an EGE aktibo edo ezartze-prozesuan zuten EAEko hiri nagusiak:

- Bilbo: 2 km² inguru hartzen ditu, Abandoko barrutia barne, Bilboko itsasadarrak, Sabino Aranak, Trenbidezko etorbideak, Autonomiak, San Frantziskok eta Bailenek mugatzen dutena. 0, ECO eta C etiketa duten ibilgailuek mugarik gabe zirkula dezakete. B etiketa duten ibilgailuek txandakako aparkalekuetara bidean bakarrik dute sarbidea. 2024ko ekainaren 15ean sartu zen indarrean.
- Donostia: 1,2 km² hartzen ditu erdigunean. Egoiliarak eta baimendutako pertsonak bakarrik sartu ahal izango dira autoz. 2025eko urtarriletik dago indarrean, eta bi fase izango ditu: 2025-2027 eta 2028tik aurrera.
- Gasteiz: 0,64 km² hartzen ditu, Alde Zaharretik hasi eta Zabalgunearen zati bat arte. B, C, ECO edo Cero ingurumen-etiketa duten ibilgailuek bakarrik zirkula dezakete. Aldiz, 2000. urtea baino lehenagoko gasolinazko autoek eta 2006. urtea baino lehenagokoek debekatuta dute bertara sartzea 2025eko irailaren 15ean sartu zen indarrean.
- Barakaldo: erdiguneko auzoak biltzen ditu: Arrondegi, Santa Teresa, Beurko Berria, San Bizente eta Zuazo-Arteagabeitia. Plangintza-fasean dago eta 2026 hasierarako martxan egotea espero da.
- Getxo: 2024an, EGE-en zirkulazioaren eraginaren azterketari buruzko lana esleitu zen. 2025ean, bi eremu txiki ezarri ziren, eta horietako batean aurretik mugatuta zegoen ibilgailuak sartzea.



- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Esparru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itxaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak

■ Irun: 0,76 km²-ko azalera hartzen du; Iparralde; Colón ibilbidea eta Elizatxo etorbidea. EGE proiektua eta ordenantza 2025eko amaierarako prest zeuden.


Aurreko edizioetan bezala, honako jardura hauek nabarmendu behar dira garraio-sektoreak klima-aldaketan duen eragina murrizteko hartu dituen neurrien artean: ibilgailu industrial arinen eta autoen gaineko zergak haiek isurtzen dituzten CO2 igorpenen arabera modulatzeko, ibilgailu elektrikoetarako laguntzak ematea, bioerregaien erabilera hedatzea eta ibilgailu hibrido edo elektrikoena.

Mugikortasun elektrikoari lotutako pizgarrien programa, Berreskurapen, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan (MOVES III PROGRAMA), 2024ko abendura arte luzatzen da.

c) *Energia-kontsumoa*

EAEko energia-kontsumoari buruzko informazioaren arabera, 2024an energia-gastua % 1 igo zen aurreko ekitaldiarekin alderatuta, eta, guztira, 4.573,3 mila tona (ktep) kontsumitu ziren. Garraioaren sektorean, energiaren kontsumoa % 17,8 igo zen 2014-2024 aldian, errepide bidezko mugikortasunaren etengabeko hazkundearen ondorioz.


8.12 grafikoa Energiaren azken kontsumoa sektoreka. 2014-2024 bilakaera.



Iturria: Euskadi Energia, Datu Energetikoak 2024. EEE.

Garraio-sektorearen energia-kontsumoa 2.193,4 ktep-era handitu zen, eta 2023koarekin alderatuta, % 2,8 igo. 2024an, azken hamarkadan sektorean izandako gastuaren goranzko joera errepikatu zen berriro ere aurreko urtean izandako jaitsieraren eta pandemiaren ondorioz 2019an eta 2020an gorakadan gertatutako etenaldiaren ondoren. Garraio-sektoreak Euskadiko jardura ekonomikoaren guztizko kontsumoaren % 48 sortu zuen.


8.13 grafikoa EAEko energia-kontsumoaren banaketa, jarduera-sektorearen arabera. 2024 (%).



Iturria: Euskadi Energia, Datu Energetikoak 2024. EEE.

Garraio-sektorearen energia-kontsumoaren banaketa azpisektoreka aztertuz gero, nabarmentzekoa da errepideko joan-etorriek (zerbitzu publikoak eta pribatuak) izan zutela pisu handiena, sektoreak izandako gastuaren % 93,6 (2023an, % 92,3) bildu baitzuten. Gainerako energia aireko jardueratik (% 4,6), itsas garraiotik (% 1,1) eta trenbidetik (% 0,7) dator.

8.14 grafikoa Energia-kontsumoaren banaketa garraio-sektorean. 2024.



Iturria: Euskadi Energia, Datu Energetikoak 2024. EEE.


Energia-tipologiaren arabera, 2024an, aurreko urtearekin alderatuta, handitu egin zen sektoreak petrolio-produktuekiko zuen mendekotasuna; izan ere, gasolioen, gasolinen, kerosenoen eta PGLen batura sektoreak kontsumitutako energiaren % 94,2koa izan zen (2023an, % 92,6koa izan zen). Bioerregaiak izan ziren % 5 (2023an, % 6,6), eta energia elektrikoa % 0,8 (2023ko datu berbera). Sektoreko energia-iturrien artean dagoen proportziorik gabeko hazkundeak petroliotik eratorritako produktuak erretzean sortzen den CO₂ isurpen handia eragiten du; ondorioz, garraio-sektoreak berotegi-efektuko gasak igortzen dituzten eragileen lehenengo postuari eusten dio.

Azken hamarkadan (2014-2024) energia-gastuak lurralde historikoen arabera izandako bilakaerak erakusten du EAEko hiru lurraldeetan garraio-sektorearen energia-gastua handitu egin zela. Zehazki, Araban % 35,7 hazi zen, Gipuzkoan % 18,1 eta Bizkaian % 6, 2014ko datuekin alderatuta. 2023ko datuekin alderatuta, Araban % 22,7 egin zuen gora energiaren kontsumoak, eta EAE mailan, sektore osoaren kontsumoa % 29koa izan zen. Gipuzkoaren kasuan, ordea, % 4,1 egin



zuen behera kontsumoak, eta EAEko guztizko gastuarekiko % 37,6koa izan zen. Bizkaiak, berriz, % 2,8 egin zuen behera, eta energiaren guztizko kopuruarekiko proportzioa % 33,4koa izan zen.


8.15 grafikoa Energia-kontsumoa garraio-sektorean, lurraldearen arabera. 2014-2024.



Iturria: Euskadi Energia, Datu Energetikoak 2024. EEE.

2024an, garraioaren sektorearen faktura energetikoa 3.830,6 milioi eurora gutxitu zen. Beste nolabait esanda, aurreko urtearekin alderatuta, jaitsiera % 2koa izan zen.

8.16 grafikoa Garraio-sektorearen energia-fakturaren bilakaera EAEn: 2014-2024 bilakaera.



Iturria: Euskadi Energia, Datu Energetikoak 2024. EEE.

2024an, garraio-sektoreko bioerregaien kontsumoa petrolioaren baliokidea den 109 mila tonara jaitsi zen; termino erlatiboetan, 2023arekiko -% 22,3 murriztu zen.

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Esparru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itxaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak

Laburpen
Exekutiboa

0

Esparru
Orokorra

1

Bilakaera
Orokorra

2

Errepide
Bidezko
Garraioa

3

Tren
Bidezko
Garraioa

4

Aire
Bidezko
Garraioa

5

Itxaso
Bidezko
Garraioa

6

Beste
Garraiobide
Batzuk

7

**Ondorio
eta Joera
Nagusiak**

8

Helburuak eta
Mugikortasun
Jasangarria

9

Funtsezko
Adierazleak

10

Eranskinak


11

Azkenik, administrazio publikoek garraioaren arloan energia modu eraginkorrean erabiltzeko hartu dituzten neurrien artean, beste urte batez, aipatzekoak dira prestatu diren hiri-mugikortasuneko planak eta modu eraginkorrean gidatzeko profesionalentzako nahiz profesionalak ez direnentzako ikastaroak, EEEK (Energiaren Euskal Erakundea) eta IDAEk (Energia Dibertsifikatu eta Aurrezteko Erakundea) sustatuak. Era berean, aipatu beharrekoa da CIC energiGUNEk bioerregaiak garatzeko ikerketaren inguruan egindako lana.

8.1.4 Garraio-jarduerak sortutako ondorioak

Kapitulua ixteko, “Garraioaren kanpo-kostuen eguneraketa EAEn” txostenean argitaratutako informazioak barne hartzen dituen alderdirik esanguratsuenak gogoratuko ditugu, 2019ko (eskuragarri dauden azken datuak) egoerari buruzkoak. Euskadiko garraioak sortu zituen kanpo-efektuen kostu osoa 2.659 milioi eurokoa izan zen 2019an²³.

8.17 grafikoa Garraioaren kanpo-kostuen banaketa EAEn, garraiobidearen arabera. 2019 (%)




Iturria: EAEko garraioaren kanpo-kostuak eguneratzea 2019. Mugikortasun Jasangarriaren Saila. Eusko Jaurlaritza

Errepideko garraioak du kanpo-kosturik handiena kostu osoaren barruan; 1.598 milioi € (osoaren % 60,1), eta, gero, itsaso bidezko garraioak, 836 milioi euroekin (% 31,4). Hirugarren tokian dago aire bidezko garraioa; 157 milioi euroko (% 5,9) kanpo-kostua sortzen du, eta, azkenik, trenbidezko garraioa, 67 milioi euroekin (% 2,5).

²³ 2021eko urtarrilean Eusko Jaurlaritzaren Mugikortasun Jasangarriaren Sailak argitaratutako txostena. Informazio gehiagorako: https://www.euskadi.eus/web01-a2garrai/es/contenidos/documentacion/coste_transportes_ext_capv/es_def/index.shtml.



8.18 grafikoa Garraioaren kanpo-kostu osoa EAEn, kostuaren kategoriaren eta garraiobidearen arabera. 2019.



Iturria: EAEko garraioaren kanpo-kostuak eguneratzea 2019. Mugikortasun Jasangarriaren Saila. Eusko Jaurlaritza

Garraioaren kanpo-kostu gehien sortzen duten kategoriak dira airearen kutsadura, kanpo-kostu osoaren % 27,3 (725,8 milioi €), aldaketa klimatikoa, % 21,1 (560,6 milioi €), eta istripuak, % 20,5eko pisuarekin (543,8 milioi €). Hiru taldeek batera hartzen dute sortutako kanpo-kostu osoaren % 68,9.

8.2 Garraio jardueraren joerak EAEn

Jarraian ageri den koadroak EAEko garraio-jardueraren alderdi nagusiak jasotzen ditu, mugikortasunari eta jasangarritasunari dagokienez. Jarraian azalduko ditugun aldagaien bilakaeraren bidez neurtzen dira alderdi horiek:

Mugikortasuna

- Parke mugikorra arin joan zen hazten krisi ekonomikoaren urteetan zehar EAEren motorizazio-indizeak izan zuen geldialdiaren ostean. Azken hamarkadan, motorizazio mailaren hazkundera etengabea izan da. 2024an iguera erregistratu zen aurreko ekitaldiarekin alderatuta.
- Errepide-sarea handitu da. Azken bi hamarkadetan, 2000-2024 edukiera handiko bideak % 27,3 luzatu dira. Euskal errepide-sare osoarekiko edukiera handiko bideek duten chunekoa 2000an %11,4 izatetik 2024an % 15,3 izatera igaro zen.
- Hiri-eremuan bidaiariak garraio kolektiboaren zerbitzuekin (autobusa eta trena) egindako lekualdatzeak 2019ko ekitaldira arte hazkunde tinkoa izan zuten, eta 2020ko geldialdiaren ondoren, hurrengo urteetan galdutako bidaiariak berreskuratuko dira. 2024an, pandemia aurreko datuak gainditu ziren. 2000-2024 aldian, bidaiek % 61,6ko hazkundera erregistratu zuten.

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Esparru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itxaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak

Laburpen
Exekutiboa

0

Esparru
Orokorra

1

Bilakaera
Orokorra

2

Errepide
Bidezko
Garraioa

3

Tren
Bidezko
Garraioa

4

Aire
Bidezko
Garraioa

5

Itxaso
Bidezko
Garraioa

6

Beste
Garraiobide
Batzuk

7

**Ondorio
eta Joera
Nagusiak**

8

Helburuak eta
Mugikortasun
Jasangarria

9

Funtsezko
Adierazleak

10

Eranskinak

11

- Hiriguneetako eta metropolietako edukiera handiko garraio publikoaren mugikortasuna handitu egin da. Bilboko Metroan, balioztatzeak % 85,3 hazi ziren 2000 eta 2024 urteen artean, eta gainditu egin dira 2020 baino lehenagoko jarduera-mailak. Bilboko eta Gasteizko tranbien joan-etorriek ere joera bera izan zuten.
- EAE jatorri edo helmuga duen aireko garraioa ia bikoiztu egin zen 2000-2024 aldian (+% 156). Pandemia baino lehenagoko 2000-2019 garaia kontuan izanda, euskal aireportuen erabiltzaileen hazkundera % 118koa izan zen.
- EAEko merkantzien itsas garraioa 2024an trukaturako guztizko kargaren % 20,4koa izan zen.

Jasangarritasuna: garraioaren jasangarritasunarekin lotutako beste alderdi batzuk

- 2014-2024ko hamarkadan, garraioaren sektoreko energia-kontsumoak % 17,8 egin zuen gora errepide bidezko mugikortasunak izandako igoera jarraitua zela eta.



Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria

9.

9. Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria

Laburpen
Exekutiboa

0

Eusko Jaurlaritzak Euskadin garraio-eredu jasangarri bat lortzeko bidean aurrera egitea du helburu. Horregatik, Euskadiko Garraio Jasangarriaren 2030²⁴ Gidaplana egin du.

Esparru
Orokorra

1

Plan horrek jarraipena ematen dio aurreko “Garraio Jasangarriko Gida Plana 2002-2012 (GJGP)”²⁵ planari, eta bat dator “Liburu Zuria - Europako Garraio Politika 2010era begira”²⁶ izenekoan definitutako Europako jarraibideekin, bai eta Europako Batzordearen Mugikortasun Jasangarri eta Adimendunaren Estrategian (2020) jasotako Europako garraio-politikaren orientabide berrienekin ere. Gainera, koherentzia mantentzen du Europar Batasunaren 2030erako Hazkunde Jasangarriko Estrategiaren esparruan ezarritako helburuekin eta Nazio Batuen Garapen Jasangarriko 2030 Agendaren helburuekin.

Bilakaera
Orokorra

2

Errepide
Bidezko
Garraioa

3

Kapitulu honetan, Europar Batasunak egindako “Liburu Zuria: Europar espazio bakarrerako ibilbide-orria: garraio-politika lehiakor eta jasangarri baterako bidea”²⁷ izeneko lanean ezarritako helburuen laburpena eskaintzen da. Era berean, “Garraio Jasangarriaren 2030 Gidaplanean” jasotako helburu eta estrategia nagusiak aipatuko ditugu.

Tren
Bidezko
Garraioa

4

Kapitulua ixteko, Euskadin garraio-plangintza jasangarriagorantz aurrera egiteko Eusko Jaurlaritzak 2024ko ekitaldian garatutako jarduerak zehaztuko ditugu.

Aire
Bidezko
Garraioa

5

9.1 Europar Batasuneko Liburu Zuriko helburu nagusiak

“Liburu Zuria: Europar espazio bakarrerako ibilbide-orria: garraio-politika lehiakor eta jasangarri baterako bidea” liburua, 2011ko martxoan argitaratua, Europako Batzordeak Europar Batasuneko garraio-sistemaren etorkizunari dagokionez zer ikuspegi duen azaltzen duen dokumentu estrategiko berria da, eta orobat, hurrengo hamar urteetarako agenda politikoa zehazten du.

Itxaso
Bidezko
Garraioa

6

Ildo horretan, liburuan hamar helburu zehaztu dira, ekintza politikoak orientatzeko eta Europako garraio-sistema lehiakor eta jasangarri baterako bidea neurtzeko diseinatu direnak.

Beste
Garraiobide
Batzuk

7

Erregai eta propultsio-sistema jasangarri berriak garatzea eta erabiltzea

- 2030. urterako, hiriko garraioan propultsio-sistema arrunta duten autoen erabilera erdira jaitea; 2050erako, pixkanaka-pixkanaka desagerraraztea; 2030erako, hirigune nagusietako logistika-elementuek CO₂-ren igorpenik egin ez dezaten lortzea.
- 2050erako, aireko garraioaren sektorean, erregai jasangarri hipokarbonikoen erabilera % 40ko mailara iristea; 2050erako, Europar Batasuneko CO₂ igorpenak, itsas garraioaren sektorean erabiltzen diren galdaren fuel-olioak eragindakoak, % 40 gutxitzea (eta ahal bada, % 50).

Ondorio
eta Joera
Nagusiak

8

Helburuak eta
Mugikortasun
Jasangarria

9

Funtsezko
Adierazleak

10

Eranskinak

11

²⁴ Informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu:

<http://www.euskadi.eus/plan-director-del-transporte-sostenible/web01-a2kudeak/es/>

²⁵ Informazio gehiagorako, kontsultatu:

http://www.bizkaia.eus/fitxategiak/07/Mediateka/3_Plan%20Director%20Transporte%20Sostenible%202002-2012_cas.pdf?hash=64add5a4cb06a627466a2075a8a59c32

²⁶ Informazio gehiagorako, kontsultatu: Liburu Zuria - Europako garraio-politika 2010era begira

²⁷ Informazio gehiago nahi izanez gero, kontsultatu: Garraioaren liburu zuria - Europako garraio-eremu bakarrera joateko bide-orria



Kate logistiko multimodalaren errendimendua optimizatzea, baita energiaren ikuspegitik erabilera eraginkorragoak bultzatuz ere

- Gaurtik 2030era bitartean, errepide bidezko garraioaren % 30 beste modu batzuetara aldatzen saiatzea (adibidez, tren bidezko garraioa edo itsas nabigazio bidezkora), salgaiak garraiatzeko korridore eraginkorrak eta ekologikoak baliatuz; 2050erako, % 50etik gora finkatu da helburua. Helburu hori lortzeko, ezinbestekoa izango da azpiegitura egokia garatzea.
- 2050erako, Europako abiadura handiko trenen sarea osatzea. 2030erako, abiadura handiko trenbideen sarearen luzera hirukoiztea, eta estatu kide guztietan trenbide-sare trinkoari eustea. 2050ean, bidaia-eraren distantzia ertaineko garraioaren zatirik handiena trenez egin beharko litzateke.
- 2030erako, Europako oinarritzko garraio-sarea izatea, Europar Batasuneko eremu guztia hartuko duena, multimodala eta guztiz operatiboa. Garraio-sare horrek goi-mailako kalitatea eta ahalmena izan behar ditu 2050erako, eta dagozkion informazio-zerbitzuak.
- Gaurtik 2050era bitartean, oinarritzko sareko aireportu guztiak trenbide-sarearekin lotzea, ahal dela abiadura handiko trenbide-sarearekin; itsas portu nagusiek salgaiak garraiatzeko trenbide-sistemearekin behar bezalako lotura dutela bermatzea, eta ahal denean, baita barruko bide nabigagarrien sistemearekin ere.

Garraioaren eta azpiegitura-erabileraren eraginkortasuna handitzea, informazio-sistemak eta merkatuan oinarritutako pizgarriak baliatuz

- 2020rako aireko zirkulazioa kudeatzeko azpiegitura modernizatuko Europako sistema (SESAR)²⁸ ezartzea, eta Abiaziorako Europako Eremu Bateratua eraikitzen amaitzea. Garraioa kudeatzeko sistema baliokideak ezartzea errepide, itsas eta ibai bidezko garraioetarako (ERTMS²⁹, ITS³⁰, SSN y LRIT³¹, RIS³²). Europako satelite bidezko nabigazio-sistema orokorra ezartzea (Galileo).
- 2020rako, garraio multimodalaren informazioarako, kudeaketarako eta ordainketarako Europako sistema baten esparrua ezartzea.
- Gaurtik 2050era bitartean, errepide bidezko garraioan hildakorik ez («zero hildako») izateko helburura hurbiltzea. Helburu horren harira, EBk errepideko biktimak 2020rako erdira jaisteko helburua ezarri da. EB mota guztietako garraioen segurtasunean eta babesean munduko lehena dela ziurtatzea.
- «Erabiltzaile ordaintzaile» eta «kutsatzen duenak ordaindu egiten du» printzipioak bere osotasunean betetzeko bidean aurrera egitea, eta sektore pribatuak konpromisoa hartzea desorekak deuseztatzeko (diru-laguntza kaltegarriak barne), diru-sarrerak sortzeko eta etorkizunean garraioan inbertsioak egitea bermatzeko.

²⁸ Europako ATM Gida Planaren arabera: https://ec.europa.eu/transport/modes/air/sesar/deployment_en

²⁹ Europako ERTMS ezarpen-planaren arabera: ikus Batzordearen C (2009) 561 Erabakia.

³⁰ EasyWay 2 ezarpen-planaren arabera: ikusi Batzordearen C (2010) 9675 Erabakia.

³¹ 2002/59/EE Zuzentaraua, itsasoko trafikoari buruzko jarraipen- eta informazio-sistema komunitario bat ezartzei buruzkoa (L 208 EO, 2002.8.5ekoa), 2009/17/EE Zuzentaruak aldatua (L 131 EO, 2009.5.28koa).

³² Ikus 2005/44/EE Zuzentaraua.

9.2 Garapen Jasangarriko Gida Planeko helburu eta estrategiak



2030eko Garraio Jasangarriko Gida Plana

2017ko ekainean, Euskal Autonomia Erkidegoko “Garraio jasangarriaren 2030 Gidaplana” onartu zen. 2002-2012 aldirako egin zen planari jarraipena ematen dion plana da, eta 2011n Europar Kontseiluak egindako Garraioaren Liburu Zurian ezarritako Europako norabideari jarraitzen dio, baita Hazkunde adimendun, jasangarri eta integratzaile baterako Europa 2020 Estrategiarekin ere. Halaber, garapen jasangarriko Agenda 2030ekin ere osatuko da, Nazio Batuen Erakundeko Batzar Nagusiak onartua 2015ko irailean. Garraio Jasangarriaren Gidaplanaren misioa da garraio-eredu jasangarri eta integratua lortzea Euskadiren kohesio sozialerako eta garapen sozioekonomikorako tresna moduan.

Sei helburu nagusi zehaztu dira, eta bakoitza behar bezala mugaturik dago. Estrategiak, bestalde, helburu bat baino gehiago lortzeko erabil daitezke.

1. Helburua. Ekonomia-garapena jasangarria, adimenduna eta arduratsua sustatzea

Europako politikaren ildoei jarraituz, helburu hau ekonomia-hazkundera sustatzean datza, eta garraioaren eragin kaltegarriak murriztean, ekonomia-garapenaren eta garraioaren eskariaren handitzearen arteko lotura deseginez. Horretarako, ongi planikatutako eta antolatutako garraio-sare jasangarri bat garatu behar da, eta sare horrek administrazioen, enpresen eta, oro har, euskal gizartearen lankidetzeta eta koordinazioa izan behar ditu.

1. Helbururako Estrategiak:

- Gizarte- eta ekonomia-garapeneko kultura jasangarria sustatzea, administrazioen, enpresen eta gizartearen bidez garraioa koordinatuta planifikatuz eta antolatuz.
- Euskadin garraioaren lehiakortasuna sustatzea.
- Garraio-sistema aurreratua eta kostuak barneratzeko irizpideak oinarri dituen sustatzea.

2. Helburua. Irisgarritasun unibertsala sustatzea, lurralde-plangintza egokiarekin bat

Irisgarritasunak gero eta protagonismo gehiago izango du datozen urteetan. Batez ere biztanleriaren zahartzeak baldintzatuko du joera hori, mugikortasunari dagokionez. Horregatik, garraio-sistema irisgarria eta lurralde-plangintza egokia izatea funtsezko helburuak dira. Pertsonen nahiz salgaien mugikortasun-beharrak ase beharko dira, baina hurrengo belaunaldien gaitasuna arriskuan jarri gabe.

2. Helbururako Estrategiak:

- Garraio jasangarria sustatzea irisgarritasuna bermatuz, lurralde-plangintza jasangarriarekin koordinatuta.
- Mugikortasunaren eskaria garraio jasangarriko alternatiben bidez kudeatzea.
- Jarduera sortzen duten gune nagusietan aurrera egitea irisgarritasuna eta mugikortasun jasangarria lortzeko.



3. Helburua. Garraio-moduen arteko bestelako oreka sustatzea

Helburu hau Euskadiko garraio-moduen erabileran beste oreka jasangarriago bat ezartzean datza. Horretarako, intermodalitatea sustatuko da pertsonen nahiz salgaien garraiorako, eta ekonomiari, gizarteari eta ingurumenari dagokionez jasangarriagoak diren garraio-moduak sustatuko dira, hala nola itsasoko garraioa eta trenbide bidezkoa. Hala, isuriak murriztuko dira, eta Euskadiren ingurumen-helburuak eta -betebeharrak betetzen lagunduko da. Zehazki, Euskadiko trenbide-sarea, dentsitate handia izan arren, XIX. mendean diseinatutako trazadurekin eta funtzionalitateekin bat dator. Beraz, modernizazioa behar du, trenbideak garraibide moduan erabilera handiagoa izan dadin.

3. Helbururako Estrategiak:

- Intermodalitatearen garapena sustatzea, pertsonen garraioan nahiz salgaienean, bidaiarien garraio-sare publikoa koordinatua eta barneratua garatuz, bai eta azpiegitura logistiko multimodalaren sare bat ere.
- Garraio-jasangarriagoen erabilera sustatzea, batez ere trenbide-sistemarena.
- Garraioaren petrolioaren ordeztasun energia alternatiboaren erabilera sustatzea, ingurumen-inpaktua eta etorkizunean energia horren gabeziak eragin dezakeen zaurgarritasuna murriztuz.

4. Helburua. Euskadiren kokapen estrategikoa sustatzea Europan

Euskadik kokapen estrategikoa du Europan eta haren balioa azpimarratu behar du, joan-etorrian dabilzan fluxuen kudeatzaile gisa ez ezik, kontinenteko komunikazioen nodo logistiko intermodalaren kudeatzaile gisa ere. Abantaila hori ustiatzeko, kalitateko azpiegitura logistiko bat behar da, lehiakorra eta intermodala, eta erakunde publikoek eta pribatuek azpiegitura horretan lagundu behar dute.

4. Helbururako Estrategiak:

- Euskadik Europan duen kokapen estrategikoari garrantzia ematea, ez joan-etorrian dabilzan fluxuen kudeatzaile gisa soilik, baita kontinenteko komunikazioen nodo logistiko intermodalaren kudeatzaile gisa ere.
- Basque Country Logistics eredua ezartzea, erakunde publikoen eta pribatuen arteko lankidetzaren bidez, gure enpresek gero eta merkatu globalizatuago batean lehiatzeko aukera izan dezaten.
- Aireportu-garraio irisgarriagoa, barneratuagoa eta lehiakorragoa lortzeko bidea jorratzea.

5. Helburua. Garraio-sistemen erabilera eraginkorra eta arduratsua sustatzea

Gero eta beharrezkoagoa da garraio-sistema eraginkor, barneratu eta koordinatu bat izatea, eta gizartearen garraio-sistemaren erabilera arduratsuen kontzientzia sortzea. Ildo horretan, gero eta herrialde gehiago ari dira berriz antolatzen garraio publikoaren finantzazio-eredua, Europako ildoei jarraikiz, eta zerbitzuak eta azpiegiturak epe luzerako eraginkortasuna eta jasangarritasuna abiapuntutzat hartuz kudeatzen dituzte.



Laburpen
Exekutiboa

0

Esparru
Orokorra

1

Bilakaera
Orokorra

2

Errepide
Bidezko
Garraioa

3

Tren
Bidezko
Garraioa

4

Aire
Bidezko
Garraioa

5

Itxaso
Bidezko
Garraioa

6

Beste
Garraiobide
Batzuk

7

Ondorio
eta Joera
Nagusiak

8

Helburuak eta
Mugikortasun
Jasangarria

9

Funtsezko
Adierazleak

10

Eranskinak

11

5. Helbururako Estrategiak:

- Gizartean, erakundeetan eta enpresetan kontzientzia sortzea, ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren ikuspuntutik jasangarria den garraioaren beharrari buruz.
- Garraio-sistema jasangarri bat sustatzea, eraginkortasuna xede hartuta garraio-zerbitzuak, azpiegiturak eta loturak eraikiz, bermatuta eta mantenduta.
- Garraio publikoaren finantzazio-sistema bat diseinatzea, garraioaren jasangarritasuna bermatu eta eraginkortasuna maximizatuko duena.

6. Helburua. Garraio publikoaren sistema barneratua garatzea

Beharrezkoa da garraio-sistema bateratu eta koordinatu bat garatzea, intermodalitatea sustatuz, eskaintza koordinatuz, tarifen bateratzea garatuz eta garraio publikora irisgarritasuna erraztuz ordainketa-sistema modernoan eta errazen bidez. Tarifen bateratzea gakotzat jotzen da garraio-sistema bateratu bat izateko, intermodalitatea sustatuko duena, eta horren ondorioz, jasangarriagoa izango dena. Garraio publikoaren sistema bateratzeko eta kohesionatzeko, agintari eskumendunek koordinatu eta lerrokatu egin beharko dute.

6. Helbururako Estrategiak:

- Garraio publikoaren erabilera sustatzea eskaintzaren plangintza koordinatuaren bidez, eta kosteen egiturari, estaldura-ratioei eta tarifa-sistemari dagokionez helburuzko erreferentziatzeko esparru prestatuz.
- Ekonomikoki jasangarria den garraio publiko bateratuaren eredu bat garatzea.

9.3 Euskadin garraio-eredu jasangarrirantz

XI. legegintzaldirako gobernu-programak Garraio Jasangarriaren 2030 Gidaplan hau jasotzen du bere konpromisoen artean. Gidaplaneako ekimenak jasotzen ditu eta gidaplanean ezarritako helburuak lortzen laguntzen du, batez ere, berotegi-efektuko gas isuriaren % 20 murrizteari dagokionez.

GJGPren xedea da garraio-eredu jasangarri, integratu eta multimodala lortzea, herrialdearen kohesio sozialerako eta garapen sozioekonomikorako tresna gisa sortua. XIII. Legegintzaldiaren egungo esparruan, Mugikortasun Jasangarriaren Sailak gidatzen du Planaren ezarpena, baina garraioaren zeharkako izaera dela eta, haren aplikazioak kontuan hartu behar ditu sektoreko plan estrategikoak eta sailetako planak, Eusko Jaurlaritzak definitutako jasangarritasun-, digitalizazio- eta efizientzia-helburuen arabera.

9.4 2024eko jarduerak

Garraioaren plangintzari eta garapenari dagokienez, 2030eko Garraio Jasangarriko Gida Planean zehaztutako ekintzak mantendu dira. Era berean, Euskadiko Errepideen Hirugarren Plan Orokorren jarraipena egin da eta Euskadiko Mugikortasun Jasangarriko Plana egiten hasi dira.

2024an, Euskadiko Garraio Agintaritzak (ATE, gaztelaniaz) jarduera arrunta mantendu zuen: osoko bilkurak eta ponentziak.

Moveuskadi tresna digitalaren mantentze- eta hobetze-lanek aurrera jarraitu zuten. Tresna horrek herritarren artean garraio publikoaren erabilera sustatzeko aukera ematen du, ibilgailu pribatuaren



ordezko garraiobide guztiak integratzen dituen plataforma bakar baten bidez, informazioa eta plangintza denbora errealean eskaintzen baititu.

Euskadiko Garraio Behatokiak (OTEUS) garraio-politika jasangarria garatzeko tresnak eta erakundeak sendotzeko lanean jarraitu du. 2024ean, Euskadiko garraioaren oinarritzko informazioa prestatzeko funtzioak bete zituen GIS (Garraioari buruzko Informazio Sistema) mantenduta eta “Euskadiko Garraioaren Panoramikaren Txostena” idatzita. Gainera, Behatokiaren webgunea eta adierazleen sistema hobetzeko eta eguneratzeko lanak egin ziren eta orain informazio gehiago eta sistematizatutako formatu informatiko desberdinak eskaintzen ditu.

2024an "Big Data tekniken bidez EAEko pertsonen mugikortasuna aztertze laguntza tekniko" proiektua amaitu da.

"EAEko garraio-eredu integral bat garapena. Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Plana- Europar Batasunak finantzatua-Next Generation EU" proiektuan aurrera egin zen. 2025ean amaituko da.

"Euskal Autonomia Erkidegoan mugikortasuna lortzea 2023an eta 2024an informazioaren teknologien bidez, Berreskuratze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren esparruan – Europar Batasunak finantzatua – NextGeneration EU" proiektuan aurrera egin zen. 2025ean amaituko da.

“Garraio Jasangarriko Gida Planeko” plangintzarekin lotuta, 2024ean aurrez ikusitako ekintzak gauzatu dira.

Era berean, plangintza-arloko beste erabaki batzuk ere azpimarra daitezke:

- Euskal Autonomia Erkidegoko Errepideen III. Plan Orokorrean 2017-2028 aldirako aurreikusitako jarduketak gauzatu ziren.
- Euskadiko Mugikortasun Jasangarrirako Planaren proiektua egin eta hasierako onarpena eman zitzaion.

Jarraian, Eusko Jaurlaritzak 2024ko ekitaldian garraioaren sektorean egindako jarduketa garrantzitsuenak zehazten dira, une honetako Garraio Jasangarrirako Gida Planean ezarritako helburuen egiturari jarraituz:

Laburpen
Exekutiboa

0

Esparru
Orokorra

1

Bilakaera
Orokorra

2

Errepide
Bidezko
Garraioa

3

Tren
Bidezko
Garraioa

4

Aire
Bidezko
Garraioa

5

Itxaso
Bidezko
Garraioa

6

Beste
Garraiobide
Batzuk

7

Ondorio
eta Joera
Nagusiak

8

Helburuak eta
Mugikortasun
Jasangarria

9

Funtsezko
Adierazleak

10

Eranskinak

11

1. helburua

Ekonomia-garapena jasangarria, adimenduna eta arduratsua sustatzea.

Garraioaren Sektorearen Modernizazioako Programa

- Merkantzien eta pertsonen garraioan kalitatea eta lehiakortasuna hobetzeko helburuak faktore horiek handitzeko jarduketa batzuk barne hartzen ditu. 2024an, garraioaren sektore profesionalerako laguntza-lerroak mantendu ziren. Jarduera uztearekin, asoziazionismoa sustatzearekin eta teknologia berriak ezartzearekin lotutako laguntza-programak garatu ziren hala.
- Errepide bidezko garraio-zerbitzua eskaintzen duten bidaiarien garraiorako enpresa pribatuak eta errepide bidezko merkantzien garraioan esku hartzen duten enpresa pribatuak modernizatzeko dirulaguntzen deialdia egin zen, 2022ko urriaren 25eko 902/2022 Errege Dekretuan xedatutakoaren arabera.
- Errepide bidez merkantzia arriskutsuak garraiatzeko probetarako deialdia egin zuen Segurtasuneko sailburuak. Deialdia titulua lortzeko zein berritzeko izan zen. 2024ko azaroaren 28an egin ziren aipatutako probak.

Prestakuntza sustatzea eta indartzea

- 2024an, profesionalak eta graduatu ostekoek formakuntza jaso zuten itsasoko sektorean:
 - Euskal Herriko Unibertsitatearekin izandako lankidetzak "Saltillo" itsasontzia mantentzeko finantza-laguntzaren bidez gauzatu zen.
 - Deustuko Unibertsitatearekin lankidetzan, Itsas eta Portu Enpresen Kudeaketako eta Itsas Zuzenbideko Masterra egin zen. Aurreko ikasturtea amaitu eta egungoa hasi zen. Gainera, jardunaldi espezifiko bat antolatu zen itsas eta portu-sektoreko puntako gaiei buruz: Deustuko Itsas Foroaren X. edizioa.
 - Euskal Ontzijabeen Elkartearekin lankidetzan, bertako kideek kudeatutako ontzietan praktikak egiteko. Praktika horiek ezinbestekoak dira titulu profesionalak lortzeko eta Euskal Herriko Unibertsitateko "Saltillo" ontzian egiten dira.
 - Itsas Makinisten Elkarte Profesionalaren eta Merkataritza Itsasketako Kapitanen Bizkaiko Elkartearen mantentze-lanak babestu ziren. Gainera, emandako laguntzak "Recalada" aldizkari espezializatua aldizka argitaratzea errazten du.
 - Sail In Festival jaialdiaren edizio berri bat egin zen eta aurkezpenak izan ziren Bizkaian eta Gipuzkoan, bela bidezko nabigazioan oinarrituta batik bat.
 - Uniport eta Giport elkarteak jarduerak garatzeko eta funtzionamendua sustatzeko laguntza finantzarioa eman zen. Elkarte horiek Bizkaia eta Gipuzkoako portuen sektoreko enpresak hartzen dituzte barne.



2. helburua	
Irigarritasun unibertsala sustatzea, lurralde-plangintza egokiarekin bat	
Errepide plana	
- Euskal Autonomia Erkidegoko 2017-2028ko III. Plan Orokorrean, 2024an, honako proiektu hauek amaitu eta martxan jarri ziren: "N-124 errepidea bikoiztea eta autobia bihurtzea 25,50 KPtik 28,00 KPra bitartean" eta "GI-20 Donostiako saihebidetan Marrutxipiko lotunea egiteko proiektua". Urtero bezala, planaren betetze-mailaren jarraipena egin zen, errepideen arloan ardura duten administrazioekin koordinatuta, eta horrek balantze positiboa eman zuen. - Euskal Autonomia Erkidegoko errepide-sareko bide-zoruak dimentsionatzeko arauaren hirugarren aldaketa onartu ondoren, bide-zoruen araudia garatzeko lanekin jarraitu zen, erreferentziazko araudirik ez dagoelako edo gure herrialdearen berezitasunetara egokitzen ez delako beharrezkotzat jotako alderdietan, edo irizpide berritzaileak eta jasangarritasunekoak sartzeko, bai bide-zoru berrien diseinuan, bai birgaitze, kontserbazio eta ustiapenean. - Sonoritate murriztuko errodadura-geruzei buruzko ohar teknikoa argitaratu zen. Bide-zoruen proiektu-aldia handitzeari eta siderurgiako agregatuak erabiltzeari buruzko dokumentuarekin lotutako lanekin ere jarraitu zen. - Garraio publikoko zerbitzuetan abonuen eta erabilera anitzeko tituluen prezioan deskontuak aplikatzen jarraitzea, abenduaren 27ko 8/2023 Errege Lege Dekretuaren esparruan. EAEko garraio publikoko erabilera anitzeko tituluen prezioaren % 50eko beherapenari eutsi zitzaion, eta Eusko Jaurlaritzak % 10eko laguntza eman zuen.	
Trena	
Apirilaren 9ko 368/2024 Errege Dekretuaren bidez, aldirietako trenbideko bidaiarien garraio-zerbitzuei dagozkien Estatuko Administrazioaren funtzioak EAERI eskualdatzea erabaki zen – apirilaren 16ko 43/2024 Dekretuaren bidez berretsia EAEn–. Onartu egin zen Euskal Autonomia Estatuaren bigarren xedapen iragankorrean aurreikusitako Bitariko Batzordearen akordioa, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatzen baitzaizkio aldirietako trenbideko bidaiarien garraio-zerbitzuei dagozkien Estatuko Administrazioaren eginkizunak. Akordio hori batzorde horren osoko bilkurak hartu zuen 2024ko martxoaren 11ko bileran. 2025eko urtarrilaren 25ean sartuko da indarrean.	



Laburpen
Exekutiboa

0

Esparru
Orokorra

1

Bilakaera
Orokorra

2

Errepide
Bidezko
Garraioa

3

Tren
Bidezko
Garraioa

4

Aire
Bidezko
Garraioa

5

Itxaso
Bidezko
Garraioa

6

Beste
Garraiobide
Batzuk

7

Ondorio
eta Joera
Nagusiak

8

Helburuak eta
Mugikortasun
Jasangarria

9

Funtsezko
Adierazleak

10

Eranskinak

11

3. helburua

Garraio-moduen arteko beste oreka bat sustatzea

Trena indartzea

- Helburu nagusietako bat da tren-zerbitzu lehiakorra eskaintzea ibilgailu pribatuaren alternatiba moduan. Horretarako, diru-laguntza eman zaio ET/FV sozietate publikoari, SAU, bere zerbitzua hobe dezan. Sozietate publiko horrek tren, tranbia eta errepide bidezko pertsonen eta tren bidezko salgaien garraiorako zerbitzua ematen du. Laguntza honen bidez, modu lehiakorrean maiztasun eta pertsonentzako kalitate, segurtasun eta erosotasun handiagoa izatea lortu nahi da.

Eusko Tren XXI. Plana

- 2024an, Bernabeitiako trenbide-pasagunea kentzeko beharrezko lanek jarraitu egin zuten, Zaldibiarreko trenbide-pasagunea kendu zen eta Bediako trenbide-pasagunea eta aparkaleku berria kentzeko obrak hasi ziren.
- ERTMS seinaleztapen-sistema berri bat ezartzen jarraitu zen, trenbide-zirkulazioaren segurtasun- eta erosotasun-mailak areagotzeko.
- Zarauzko geltoki berria martxan jarri zen, Usurbilgo geltoki berriaren obrekin jarraitu zen, Anoeta eta Gernikako geltokiak birmoldatu ziren eta Zumaiaiko geltokia berritu zen.
- Aginagako tunel berriaren obrak esleitu ziren.
- Eibar-Azitain tartean trenbidea estaltzeko lanek jarraitu egin zuten, eta Zumaian tren-kotxetegi berriak eraikitzea esleitu zen.
- Altzolako saihezbidearen obrek jarraitu egin zuten. Lan horien baitan, Arriaga industrialdearen eta Altzola auzoaren (Elboibar) arteko tartean bikoiztu egingo dute trenbidea.
- Sareko zenbait zatitan (Deba eta Arroa, Meagasko tunelaren inguruan, Oikia-Zarautz, Zarautz-San Pelaio, Sondikako geltokia eta Elgoibar Mendaro) trenbidea berritzeko lanak amaitu ziren, eta Lutxana-Sondika tartean trenbidea berritzeko lanak hasi ziren.
- Zumaiaiko biaduktua sendotu eta berritzeko lanak egin ziren, eta Mundakako biaduktua babesteko lanak esleitu ziren.
- Topoaren (Lugaritz-Easo) lurpeko pasabidearen obrek jarraitu egin zuten, eta Amarako merkantzien saihezbidearen obrei ekin zitzaizen.
- Altza-Galtzaraborda zatiko obrek aurrera jarraitu zuten.
- Donostiako Loiolako Erriberako aldagune berriaren proiektua idazten hasi zen. Atondoa erabilera komunekoa izango da, eta ADIFen aldirietako nasetara eta ETSren sareko nasetara (maila baxuagoan) sartzeko aukera emango du.



Euskal Trenbide Sare berria	
0	■ 2006ko apirilaren 24an elkarlanerako hitzarmen bat sinatu zuten Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Nagusiaren, Estatuko Administrazio Nagusiaren eta Administrador de Infraestructuras Ferroviariasen (ADIF) artean, Euskadiko Trenbide Sare Berria eraikitzeko. Hitzarmen hori aldatu egin zuten 2017ko abenduaren 27an, eta bigarren aldiz aldatu eta atzeratu zuten 2021eko abenduaren 23an. Hitzarmen horretan oinarrituta, Eusko Jaurlaritzak Euskal “Y”aren plataforma eraikitzeko proiektuak idatzi ditu Bergara eta Irun arteko Gipuzkoako adarrean (Donostiako lotunea jasoko duen tartearen barne). Horrekin lotuta, bere gain hartu du obra horien zuzendaritza fakultatiboa, horien kontratazioa eta gauzatzea, eta tarte horretako desjabetze-espedienteen administrazioko kudeaketa egiteko lankidetzaz.
	■ Horrekin lotuta, Euskal Trenbide Sareak (ETS), 2004ko maiatzaren 21eko 6/2004 Legearen arabera esleitura dituen funtzioen baitan, Gipuzkoako adarra eraikitzeetik eratorritako lan hauek egitearen kostuak hartu ditu bere gain: eraikuntza-proiektuak, desjabetze-kudeaketa, obren zuzendaritza fakultatiboa eta beste gastu batzuk.
1	■ Hasieran aipatutako hitzarmenaren hirugarren aldaketa sinatu zen. Aldaketa horretan, Ezkioko geltokiaren obretan egiteko dagoen zatia kanpo utzi zen. Obra horiek zuzenean ADIF-Alta Velocidad enpresak hartuko ditu bere gain, bai eta Astigarragako aldirietako geltokiaren eta haren sarbideen obra guztiak ere. Aldeek konpromisoa hartu zuten obra horiek gauzatzeko lankidetzaz-hitzarmen bat sinatzeko, aurrekontu-programa honen eremutik kanpo.
	■ 2024an, Astigarraga-Oiartzun-Lezo tartearen proiektuak gauzatzen jarraitu zen, eta Hernani-Astigarraga tartearen eta Atotxako geltoki berriaren obrak egiten jarraitu zen.
2	■ 2023ko eta 2024ko ekitaldietan hainbat hitzarmen sinatu ziren: Euskal Autonomia Erkidegoko trenbide-sare berriko Bilbo-Abandoko geltokirako sarbide-korridorarako plataformaren eta obren proiektua idaztea, eta Arkauteko lotuneko (II. zatia) obrak Gasteizko trenbidearen integrazioan eta Euskal Autonomia Erkidegoko trenbide-sare berriarekin lotzeko eraikuntza-proiektua idaztea eta gauzatzea.
	■ Bilbo-Abandora sartzeko korridorearen eraikuntza-proiektua esleitu eta gauzatzen hasi zen.
Bilboko Hiri Trenbidea	
3	■ Bilboko metropoli-trenbidearen 4. linea eta Bilboko metropoli-eremuaren hegoaldea eraikitzeko proiektua idazteko lanek aurrera jarraitu zuten.
	■ Bilboko Metropoli Trenbidea Galdakaora eta Usansoloko Ospitalera hurbilduko duten tarteak eraikitzeko obrekin jarraitu zuten, ondoren Busturialdeko eta Durangaldeko trenbidearekin bat egiteko.
4	■ Bilboko Metropoliko Trena finantzatzeko (1 eta 2 lineak) eta, Bizkaiko Garraioen Partzuergoaren (BGP) Finantzaketa Planaren arabera (erakunde horrek Metro Bilbao, SA sozietateari egiten dizkion ekarpenak jasotzen ditu), BGPrentzako 38.000.000 euroko dirulaguntza egituratu zen guztira, Bizkaiko Foru Aldundiak emandakoaren berdina.
	■ Euskal Trenbide Sarea zuzenbide pribatuko erakunde publikoak egiten du Bilboko Metropoli Treneko eraikuntzarekin eta ekipamenduekin lotutako proiektuen kudeaketa, baita obra eta instalazioen zuzendaritzarekin, ikuskapenarekin eta kontrol teknikoarekin lotutako proiektuen kudeaketa ere.
Bilboko Portuko salgaien joan-etorria erraztea	
5	■ 2024an, I. faseko (Serantes-Olabeaga tunela) eraikuntza-proiektuekin lotutako lanak egiten jarraitu zen, eta II. faseko (Barakaldo-Basauri) informazio-azterlanarekin lotutakoak amaitu ziren.
Kable bidezko garraioa	
6	■ Zuzendaritza honi emandako eskuduntzen barruan, EAEko kable bidezko garraiorako instalazioen ikuskaritza egin zen.

Intermodalitatea eta elkarreragingarritasuna

- Gipuzkoako Garraioaren Lurralde Agintaritzak (GGLA), Bizkaiko Mugikortasun Agintaritzak (BMA) eta Arabako Mugikortasun Agintaritzak (AMA) aurrera jarraitzen dute esleitutako funtzioak jasotzen dituen akordioarekin. Funtzio horien artean dago bakoitzari dagokion lurralde historikoko garraio arloko politika publikoak partekatzea.
- Euskadiko garraio publikoaren antolaketarekin lotuta eta garraio Txartel Bakarra lortzeko helburuaren baitan, aurrera egin da Euskadin aldi berean dauden hiru garraio-txartelen Elkarreragingarritasuna martxan jartzeko prozesuan: Bat, Barik eta Mugi. Tartean sartutako erakundeek hartzen zuten parte proiektu honetan: Bizkaiko Garraio Partzuegoak, Gipuzkoako Garraio Agintaritzak, Arabako Foru Aldundiak, Euskotrenek eta Eusko Jaurlaritzaren Garraio Plangintza Zuzendaritzak.
- Bizkaiko hiriarteko autobusetan (Bizkaibus) eta Bilboko hiri-garraioan (Bilbobus) BAT txartelaren elkarreragingarritasuna ezarri zen azkenean, eta, horrez gain, aurrera egin zen MUGI txartela operadoreetan eta BAT eta BARIK txartelak Gipuzkoako hiriarteko autobusetan (Lurraldebus) ezartzeko lanetan.
- EAEtik igarotzen diren merkantzien fluxuak indartzen jarraitu dute, Basque Country Logistics estrategiaren esparruan. Elkarlana sustatu da eskumena duten administrazio publiko guztiekin eta sektore pribatuarekin; hainbat garraibide barne hartzen dituzten eremu logistiko intermodalen sare bat osatzen dute horiek. Trenbide bidezko loturak bultzatu dira, eta plataforma logistikoak garatu dira, arku atlantikoaren barrua duten kokapen geografikotik. Zentro logistikoetako partaidetzaren araberako ekarpen ekonomikoaren bidezkoa izan da laguntza.

Inbertsioak egitea portu-azpiegituretan, eta gaur egungo azpiegitura mantentzea EAEren eskumeneko portuetan

- 2024ko ekitaldian portuetako azpiegituretan egindako inbertsioa hau izan zen:
 - Bizkaiko Lurralde Historikoan, Ondarroako portuko babes-dikea indartzea; obra 2023ko hirugarren hiruhilekoan hasi zen eta 2024ko urrian amaitu. Jarduketa hau amaituta, gure portuetako babes-azpiegiturak indartzeko eta egokitzeko ezarritako jarduketa nagusien programa osatu zen. Programa hori 2014an eta 2016an izandako denboraleen ondoren hasi zen, besteak beste jasandako egoerak saihesteko helburuarekin. Izan ere, denboraleek kalte larriak eragin zituzten arrisku handieneko portu-azpiegituretan (Bermeo, Ondarroa, Orio, Zumaia) eta horien instalazioetan.
 - Gipuzkoako Lurralde Historikoan, Donostiako portuko Jaranako kaia konpontzea. Aipatutako kaiaren egonkortasuna hobetzea lortu zen, narriadura-maila handia baitzuen, eta segurtasun- eta operatibitate-berme guztiak dituen azpiegitura bat izatea.
- Bizkaiko Lurralde Historikoan, Lekeitioko portuko olatu-hormako dikea berritzeko lanak lizitatu eta gauzatu ziren. Obrak urteko hirugarren hiruhilekoan amaitu ziren.
- Era berean, Bermeoko portuko bulegoaren barruko eraberritze-lanak egin ziren, bulegoaren osasungarritasun- eta bizigarritasun-baldintzak lehengoratzeko eta hobetzeko.
- 2024ko laugarren hiruhilekoan Ondarroako portuan Zerkausiaren eraikina konpontzeko lanak hasi ziren, eta 2025eko bigarren hiruhilekoan amaitzea aurreikusten da. Jarduketa honen bidez, eraikinaren egitura-egonkortasuna bermatu nahi da, eta eraikinaren barrualdeak egungo portu-beharretara egokitu.
- Bermeoko portuan merkataritza-portuaren kanpoko argiztapena berritzeko obrak egin ziren. Esku-hartze honekin, EAEko portuetako energia-auditoretzarekin bat datorren argiztapen-instalazio bat berritzea lortu zen.
- Hondarribiko arrantza-portuan sarbideak kontrolatzeko sistema bat jartzea, portuko jarduerarekin zerikusirik ez duten pertsonen eta ibilgailuen sarrera mugatzeko eta murrizteko.
- Lekeitioko portura sartzeko ubidea eta Mundakako portuko aldi baterako ainguratze-eremua

Laburpen
Exekutiboa

0

Esparru
Orokorra

1

Bilakaera
Orokorra

2

Errepide
Bidezko
Garraioa

3

Tren
Bidezko
Garraioa

4

Aire
Bidezko
Garraioa

5

Itxaso
Bidezko
Garraioa

6

Beste
Garraibide
Batzuk

7

Ondorio
eta Joera
Nagusiak

8

Helburuak eta
Mugikortasun
Jasangarria

9

Funtsezko
Adierazleak

10

Eranskinak

11



mantentzeaz gain, uda baino lehen, Zumaiaiko portuaren bokaleko sakonera mantentzeko lanak egin ziren, eta, horren bidez, 5.000 m³ inguru harea garbi atera ziren.

- Itsasertzaren Garapeneko, Portuen eta Itsas Gaietako Zuzendaritzak EAEko portuetako dragatze-lanen ingurumen-jarraipena egiteko kontratua garatzen jarraitu zuen. Kontratu hori luzatu egin zen, eta 2025eko azken hiruhilekora arte egongo da indarrean.
- EAEko portuetan instalazio elektrikoak mantentzeko eta berritzeko, argiztatzeko eta balizatze kontratuen babesean eta obra zibilak eta mantentze- eta kontserbazio-lanak kontratatze bi esparru-akordioaren babesean egin ziren lanak. 2024an, hogeitazko kontratazio txiki inguru lizitatu eta gauzatu ziren.
- "Mantentzeko eta kontserbaziorako obra zibiletarako esparru-akordioaren" bi kontratu berriak formalizatu ziren, bat lurralde historiko bakoitzeko.
- 2024ko lehen hiruhilekuan "Mantentze- eta kontserbazio-lanak kontratatze esparru-akordioaren" luzapena formalizatu zen. 24 hilabete gehigarriko epea.
- "EAEko portuetan instalazio elektrikoak, argiak eta balizak mantendu eta berritzeko" bi loteei buruzko kontratuak luzatu egin ziren, jatorrizko kontratuen baldintza berberetan eta 24 hilabete gehiagoz.
- "Zuzendaritza honek EAEko portuetan egiten dituen obra handien eta txikien segurtasuna eta osasuna koordinatzea" ahalbidetzen duten zeharkako kontratuak gauzatzen jarraitu zen, bai Bizkaian, bai Gipuzkoan.
- 2024an, hainbat eraikuntza-proiektu idatzi ziren, dauden portu-eskaerei erantzuteko. Horien artean, hiru proiektu idatzi ziren:
 - Ondarroako portuan dagoen Egidazu kaia birzolatzea, zerbitzuak berritzea eta handitzea. Kaia klima-aldaketaren ondoriozko itsas mailaren igoerara egokitzea, eta haren eraginkortasuna hobetzea.
 - Getariako portuaren barruko arrantza-dartsenako kaiak konpontzea eta sendotzea.
 - Orioko portuko arrantza-kaiak konpontzea eta sendotzea.
- Mutrikuko portuaren barruko uhin-mugimenduaren eta uhin luzearen azterlana egin zen, Mutrikuko portuko babes-dikea sendotzeko proiektua idazteko asmoz, itsas-sarbidea hobetzeko lanak gauzatu ahal izateko.
- EAEko portuetako bulego eta instalazioen energia-auditoretzak berritzeko eta Ondarroako portuko paramentu bertikalean horma-pinturaren sorkuntza artistikoa egiteko zerbitzu-kontratu lizitatu zen.
- "Zumaiaiko Portuko Plan Bereziaren 1. berrikuspene" idazten jarraitu zen, eta aldi berean, laguntza teknikorako kontratuaren idazketa geldiarazi zen; izan ere, ezin da aurrera egin Trantsizio Ekologikorako eta Erronka Demografikorako Ministerioaren Kostaldearen eta Itsasoaren Zuzendaritza Nagusiaren nahitazeko txosten loteslea izan arte. 2025eko ekitaldian jasotzea espero da.
- Elantxobeko portua antolatze plan berezia behin betiko onartu zen Etxebizitza eta Hiri Agendako sailburuaren 2024ko uztailaren 1eko Aginduaren bidez, eta Bermeoko portua antolatze plan bereziaren 3. aldaketa behin-behinean onartu zen Etxebizitza eta Hiri Agendako sailburuaren 2024ko irailaren 24ko Aginduaren bidez.
- Instalazio nautikoetan eta kirol-instalazioetan hainbat jarduera egin ditu EKPk:
 - Hainbat portutan, lotzeko postuak esleitzeko deialdietarako beharrezko jarduketak garatzea.
 - Portuetako zerbitzuen eta itsasoko lanen prestazio egokiaren gaineko kontrola eta lotzeko postuen erabilera-baldintzak betetzea.
 - Zumaiko portuaren ustiapen-kontratu betetzeko kontrola, Eusko Jaurlaritzak emandako esleipen administratiboan ezarritako terminoetan.
 - Aurrera jarraitu zuten itsasontziak amarratzeko erabiltzen diren finger-ak eta istingadiak osatzen

Laburpen
Exekutiboa

0

Esparru
Orokorra

1

Bilakaera
Orokorra

2

Errepide
Bidezko
Garraioa

3

Tren
Bidezko
Garraioa

4

Aire
Bidezko
Garraioa

5

Itxaso
Bidezko
Garraioa

6

Beste
Garraiobide
Batzuk

7

Ondorio
eta Joera
Nagusiak

8

Helburuak eta
Mugikortasun
Jasangarria

9

Funtsezko
Adierazleak

10

Eranskinak


11

dituzten elementuak mantentzeko eta berriro jartzeko lanekin. Horrekin lotuta, hondatutako profilak eta portu ugarietako hondatutako istingadietako zoladura-tarteak ordezkatu zituzten, edo habexkak indartu zituzten.

- Itsasontziak uretaratzeko eta altxatzeko elementuak eta lehorrean egon behar duten tartean erabiltzen diren tresnak mantentzeko eta berritzeko lanak egin zituzten.
- Lekeitioko arrantzaleen kofradiako lokala birgaitu zen, portuari jendaurreko bulegoa, bulegoa, bilera-gela, aldagelak eta erregai-hornidurako unitatearen erreforma integrala emateko.
- Orio eta Getariako portuetan, egungo dorretxoek ordez, ur eta elektrizitate zerbitzu telekontrolatuko dorretxoak jarri ziren, gure bezeroek kontsumoak kontrolatu ahal izan ditzaten. Horren ondorioz, eraginkortasuna hobetuko da eta beharrezkoak ez diren baliabideen kontsumoa murriztuko da.
- Ondarroako, Lekeitioko, Eako eta Elantxobeko portuetako ur-lamina eta lurzorua garbitzeko zerbitzua urte osoan zehar egon zen indarrean, eta 2024ko abuztura luzatu zen, jatorrizko kontratuaren baldintza berberetan eta 24 hilabete gehiagoko iraupenarekin.
- Mundaka, Bermeo, Armintza eta Plentziako portuetako lurzorua eta ur-lamina garbitzeko eta ontzietatik etorritako hondakinak jasotzeko zerbitzua, 2025eko apirilera arte luzatua.
- Gipuzkoako portuetan lurzorua eta ur-lamina garbitzeko eta ontzietatik etorritako hondakinak jasotzeko zerbitzuaren kontratu berria hasi zen, eta 2026ko apirilera arte luzatuko da.
- Bizkaian, Ondarroa, Lekeitio, Mundaka eta Bermeoko portuetako segurtasun- eta zaintza-zerbitzua 2024ko otsailean amaitu zen, eta kontratu berria 2024ko irailean hasi zen, eta 2026ko ekitaldira arte iraungo du.
- Donostiako portuko segurtasun- eta zaintza-zerbitzuak beste kontratu bat lizitatu zuen, aurreko zerbitzu-emaileak kontratua luzatzeko aukera baztertu baitzuen. Horrela, 2024ko azaroan, eta aurreko zerbitzuari jarraipena emanez, 2026ra arte indarrean egongo den kontratu berria hasi zen.

Aireko garraioaren plangintza eta garapena

- EAEko hiru lurralde historikoetan dauden hiru aireportuetan (Loiu, Hondarribia eta Foronda), Garraio Plangintzarako Zuzendaritzak EAEko hiriburuetakoa aireportuak bultzatzeko sozietateei emandako babesak mantendu egin du. Horren guztiaren helburua da lankidetzarako testuinguru berriak identifikatzea, "aireportu bat, hiru terminal" lelopean hiru aireportuen artean jasangarritasun naturala sustatuta.



4. helburua

Euskadiren kokapen estrategikoa sustatzea European

Ardatz atlantikoa indartzea komunikazio-ardatz gisa

- Eusko Jaurlaritzak Europar Batasuneko Itsas Eskualde Periferikoen Konferentziaren baitako Arku Atlantikoaren Batzordean (AAB) parte hartu du, garraio arloan politika bateratuak sustatzeko. Ildo horretan, Garraio Plangintzaren Zuzendaritzak Arku Atlantikoaren Garraiorako Taldean parte hartu du.

5. helburua

Garraio-sistemen erabilera eraginkorra eta arduratsua sustatzea

- 2024an, Autobus Elektriko Adimenduna (EIB) ezartzeko lanekin jarraitu dute Donostian.
- 2030erako Garraio Iraunkorraren Gidaplan horretatik abiatuta, eta Eusko Jaurlaritzak dagoeneko idatzita zituen edo idazten ari zen beste plan estrategiko eta sektorial batzuekin osatuta, 2024an plan horretan aurreikusitako ekintzekin jarraitu zen.
- Euskadiko Mugikortasun Jasangarriari buruzko azaroaren 9ko 11/2023 Legearen arabera, Euskadiko Mugikortasun Jasangarriaren Planaren proiektua egin eta hasieran onartu zen, Eusko Legebiltzarrera oinarritzko dokumentua bidali ondoren, aztertu, eztabaidatu eta ekarpenak egin ditzan. Aipatutako plangintza-tresna hori izango da EAEko lurralde-eremuan mugikortasun iraunkorraren eredu bat lortzera bideratutako ekintza guztiei tratamendu sistematikoa, koherente eta integrala ematea ahalbidetuko duen tresna, aipatutako legearen mugikortasun-helburuen aplikazioa zehaztuz.

6. helburua

Garraio publikoaren sistema barneratua garatzea

Hiriko garraioan tren-eskaintza hobetzea

- Hiri-bilbean tranbiak proiektatu dira garraioaren sistema osoan txertatu behar duen beste hiriko garraiobide baten moduan; hala, eskaintza eskarira egokituko da. Beraz, erakunde guztietako langile teknikoz osatutako mahaian esparruan egin behar dira mugikortasunaren inguruko analisiak. Premisa horien arabera:
- 2024an, Gasteizen, Zabalzana auzorako luzapen-proiektua idazten ari ziren.
- Bilboko tranbiari dagokionez, proiektua idazten ari ziren Los Caños inguruan geraleku berri bat egiteko eta tranbia Boluetatik Kukullagaraino luzatzeko.



AEko garraio sektorearen funtsezko adierazleak

10.



10. EAEko garraio sektorearen funtsezko adierazleak

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Esparru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itxaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak

1. adierazlea	2010 (EJSN-2009 eta EKS-10)	2022 (EJSN-2009 eta EKS-10)	2023 (EJSN-2009 eta EKS-10)	2024 ^a (EJSN-2009 eta EKS-10)	Aurrerapen maila	
					24-10	24-23
Garraioaren produktibitatea (BEGd/Enplegua)	66,2 mila euro lanean ari den pertsonako	96,7 mila euro lanean ari den pertsonako	95,7 mila euro lanean ari den pertsonako	99,1 mila euro lanean ari den pertsonako	+49,7%	+3,6%
2024an, garraio-sektorearen produktibitatea langile bakoitzeko 99,1 mila eurora igo zen, eta EAEko ekonomia orokorreko produktibitatea baino handiagoa (90,0 mila euro langile bakoitzeko) izan zen. 2010arekin alderatuta, % 49,7 hazi zen garraioaren produktibitatea. 2023ko datuekin alderatuta, indizea % 3,6 igo zen, eta Euskadiko ekonomiaren guztizkoaren antzeko aldaketa izan zuen (+% 4).						

^a Behin-behineko datua.

2. adierazlea	2003 (EJSN-1993, 1. berrik.)	2022 (EJSN-2009 eta EKS-10)	2023 (EJSN-2009 eta EKS-10)	2024 ^a (EJSN-2009 eta EKS-10)	Aurrerapen maila	
					24-03	24-23
Garraioaren sektorearen parte-hartzea EAEko BEGd-n (BEGd garraioa/BEGd ekonomia)	4,80%	5,06%	5,11%	5,16%	+0,36	-0,05
2024an, garraio-sektoreak EAEko guztizko BEGaren gainean zuen pisua % 5,16koa zen. 2023arekin alderatuta, jaitsiera txikia gertatu zen sektoreko BEGak ekonomia orokorraren BEGan izandako partaidetzari dagokionez (ehuneko -0,05 puntu), eta igoera nabaritu zen 2003koaren aldean (ehuneko +0,36 puntukoa).						

^a Behin-behineko datua.

3. adierazlea		2005	2022	2023	2024	Aurrerapen maila
						24-23
Salgaien garraioa, garraiobidearen arabera	Errepidea	74,7%	79,5%	79,4%	78,8%	-0,6
	Trenbidea	1,1%	1,1%	0,9%	0,8%	-0,1
	Airekoa	0,0%	0,0%	0,0%	0,0%	--
	Itsasokoa	24,1%	19,4%	19,7%	20,4%	+0,7
2024an, garraio bidezko merkantzien garraioari egokitu zitzaion guztizko kargaren % 78,8. Itsaso bidezko garraioak kopuru osoaren % 20,4 hartu zuen, eta trenbidezko zirkulazioak gainerakoa (% 0,8). 2023ko datuekin alderatuta, handitu egin zen errepidez eta itsasoz garraiatutako karga (+% 0,2 eta +% 4,3, hurrenez hurren); trenbidez garraiatutako produktuen bolumena, berriz, jaitsi egin zen (-% 8,4).						

Laburpen
Exekutiboa

0

Esparru
Orokorra

1

Bilakaera
Orokorra

2

Errepide
Bidezko
Garraioa

3

Tren
Bidezko
Garraioa

4

Aire
Bidezko
Garraioa

5

Itxaso
Bidezko
Garraioa

6

Beste
Garraiobide
Batzuk

7

Ondorio
eta Joera
Nagusiak

8

Helburuak eta
Mugikortasun
Jasangarria

9

Funtsezko
Adierazleak

10

Eranskinak

11

4. adierazlea		2003	2022	2023	2024	Aurrerapen maila	
		(Bidaariak, milakotan)				24-03	24-23
Pertsonen mugikortasuna, garraiobidearen arabera	Errepidea	116.380	110.109	127.158	135.896	+16,8%	+6,9%
	Trenbidea	126.453	132.109	155.832	167.325	+32,3%	+7,4%
	Airekoa	3.228	5.736	7.115	7.515	+132,8%	+5,6%
	Itsasokoa ¹	119	300	329	316	+165,5%	-4,0%

2024an, autobus bidez garraiatu zituzten 136 milioi pertsona baino gehiago (+% 6,9), tren bidezko joan-etorriak 167,3 milioi bezerora igo ziren (+% 7,4), aireko garraioak 7,5 milioi pertsona gainditu zituen (+% 5,6) eta itsaso bidezko joan-etorriak 316 mila pertsonara jaitsi ziren (-% 4).

Epe luzean (2003-2024), garraiobide guztietan egin zuen gora bidaia kopuruak. Errepide bidez garraiatutako bidaia kopurua % 16,8 handiagoa izan zen, eta trenekoena, aldiz, % 32,3. Aire-zirkulazioa % 132,8 igo zen, eta itsasoz bidaia zutenak % 165,5 gehiago izan ziren.

¹ Bilboko Portuko eta Pasaiaiko Portuko bidaariak barne.

5. adierazlea		2006		2022		2023		2024		Aurrerapen maila			
		X	M	X	M	X		X	M	X		M	
Kanpoko merkataritza, garraiobidearen arabera	Errepidea	66,1%	38,1%	59,8%	41,2%	60,0%	44,6%	58,8%	45,7%	-7,3	+7,6	-1,2	+1,1
	Trenbidea	0,1%	0,4%	0,2%	0,9%	0,1%	0,9%	0,1%	0,9%	0,0	+0,5	0,0	0,0
	Airekoa	1,9%	1,7%	3,1%	2,3%	4,0%	2,5%	4,7%	2,7%	+2,8	+1,0	+0,7	+0,2
	Itsasokoa	29,2%	56,1%	36,9%	55,5%	35,5%	51,5%	36,2%	50,6%	+7,0	-5,5	+0,7	-0,9
	Bestelakoak	2,7%	3,6%	0,0%	0,1%	0,4%	0,5%	0,2%	0,1%	-2,5	-3,5	-0,2	-0,4

2024an, esportazioen % 58,8 eta inportazioen % 45,7 garraiatu zuten errepedetik. Esportazioen % 36,2 eta inportazioen % 50,6 itsaso bidez garraiatu zituzten.

2006arekin alderatuta, atzerriera itsasoz eramandako merkantzien balioa ehuneko 7 puntu igo zen, eta errepedez inportatutako karga ehuneko 7,6 puntu igo.

Urte arteko aldakuntzak erakusten du esportazioak hazi egin zirela aireko eta itsasoko garraioan, eta inportazioak, berriz, handitu errepedeko eta aireko garraioan.

6. adierazlea	2002	2021	2022	2023	2024	Aurrerapen maila	
						24-02	24-23
Energia-kontsumoa garraio-sektorean	1.590 ktep	2.050 ktep	2.179 ktep	2.133 ktep	2.193 ktep	37,9%	2,8%

Euskadi 2030 Ingurumen Esparru Programaren helburu estrategikoen arabera, garapen iraunkorreko eredu bat bilatu behar da.

2024an, garraio-sektorearen energia-kontsumoa 2.193,4 ktep-era igo zen (% 2,8). Igoera hori EAEko ekonomia osoko energia-kontsumoak izandakoa baino handiagoa da (+% 1). 2024-2002 aldian, energiaren kontsumoa % 37,9 hazi zen, zehaztutako helburu estrategikoaren aurkako bidean.



- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Esparru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itxaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak

7. adierazlea	1990	2020	2021	2022	2023	Aurrerapen maila	
						23-90	23-22
Berotegi-efektuko gasen igorpenak garraio-sektorean	2.784 mila tona CO ₂ baliokide	5.699 mila tona CO ₂ baliokide	6.038 mila tona CO ₂ baliokide	6.353 mila tona CO ₂ baliokide	6.091 mila tona CO ₂ baliokide	118,8%	-4,1%
2023an, garraio-sektoreak sortutako berotegi-efektuko gasen isurpenak % 4,1 jaitsi ziren 2022arekiko. EAEko ekonomiak izandako bilakaeraren (EAEko BPGa % 1,8 igo zen 2022aren aldean) kontrako norabidea izan zuen jaitsiera horrek.							
1990-2023 aldian, garraio-sektoretik eratorritako berotegi-efektuko gasak % 118,8 hazi ziren; hau da, Kiotoko Protokoloak garraioaren gainean finkatutako helburuaren aurkako bilakaera izan zen.							

8. adierazlea		2004 ¹	2019	Aurrerapen maila
				19-04
Garraioaren kanpoko kostuak	Errepidea	2.753 millones €	1.598,0 millones €	-42,0%
	Trenbidea	72 millones €	67,3 millones €	-6,5%
	Airea	n.d.	157,3 millones €	n.d.
	Itsasoa	n.d.	836,0 millones €	n.d.
2019ari buruz eskuragarri dauden azken datuen arabera, EAEn 2.659 milioi euro ingurukoak izan ziren garraioaren kanpo-kostuak. Kanpo-kostu horien % 60,1 errepide bidezko garraioari dagozkio, % 31,4 itsaso bidezkoari eta % 5,9 aireko garraioari. Bestetik, trenbidezko garraioak sortzen ditu kanpo-kostu gutxien (EAEko garraio-jardueraren kostuen gutzitzaoren % 2,5).				
2004an % 42,0 murriztu ziren errepide bidezko garraioaren kanpo-kostuak, azpiegiturretan hartutako neurrien eta ibilgailuen aurrerapen teknologikoen ondorioz. Trenbide bidezko garraioaren kanpo-kostuak % 6,5 jaitsi ziren, merkantzien garraiotik eratorritako kostuak txikiagoak izan baitziren; pertsonen trafikoarekin lotutako kostuek, berriz, gora egin zuten, zerbitzuen eskaintza areagotu egin zelako: Gasteizko tranbia, Bilboko Metroaren 3. linea, eta 2. linea zabaltzea.				

¹ 2004ko kostuak eguneratuta daude, 2004 eta 2019 artean prezioek izan zuten bilakaeran oinarrituta.

9. adierazlea	2006	2022	2023	2024	Aurrerapen maila	
					24-06	24-23
Batez besteko gastua pertsonako, batez besteko gastua familiako eta gastu osoa garraioan	Pertsona:	Pertsona:	Pertsona:	Pertsona:	Pertsona:	Pertsona:
	1.665 €	1.461 €	1.417 €	1.388 €	-16,6%	-2,0%
	Familia:	Familia:	Familia:	Familia:	Familia:	Familia:
	4.355 €	3.430 €	3.307 €	3.250 €	-25,4%	-1,7%
	Gutxira:	Gutxira:	Gutxira:	Gutxira:	Gutxira:	Gutxira:
	3.520.592 miles de €	3.145.048 miles de €	3.119.341 miles de €	3.071.190 miles de €	-12,8%	-1,5%
2024an, pertsona bakoitzak urtean 1.388 € gastatu zituen batez beste garraioan (2023arekiko -% 2), eta familia bakoitzak 3.250 € (-% 1,7). Gutxitzaio gastua 3,1 bilioi €-koa izan zen (-% 1,5).						
2006arekin alderatuta, behera egin zuten hiru adierazleak. Hala, garraioarekin lotutako gastu indibiduala % 16,6 jaitsi zen, familiaren gastuak % 25,4 egin zuten behera eta gastu orokorra % 12,8 murriztu zen.						



- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Esparru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itxaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak

10. adierazlea	1998	2022	2023	2024	Aurrerapen maila	
					24-98	24-23
Motorizazio-indizea	366,6 turismo 1.000 biztanleko	467,4 turismo 1.000 biztanleko	464,8 turismo 1.000 biztanleko	458,0 turismo 1.000 biztanleko	+24,9%	-1,4%
2024an, EAEko motorizazio maila mila biztanleko 458 turismokoa izan zen, 2023arekiko % 1,4 igota.						



Eranskinak

11.





11.Eranskinak

11.1 Legediaren berrikuntzak 2024an: Europakoak, estatukoak eta EAEkoak

11.1.1 Europako legediaren berrikuntzak

a) Zuzentarauak

Errepideko garraioa
■ Batzordearen 2024/846 (EB) Zuzentarau Delegatua, 2024ko martxoaren 14koa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2006/22/EE Zuzentaraua, 561/2006 (EE) eta 165/2014 (EB) Erregelamenduak aplikatzeko gutxieneko baldintzei buruzkoa, eta 2002/15/EE Zuzentaraua, errepideko garraioaren arloko legeri sozialari buruzkoa, aldatzen dituen. (2024.05.31ko EBAO L, 2024/846).

Trenbideko garraioa
■ Europako Parlamentuarena eta Kontseiluaren 2016ko maiatzaren 11ko 2016/798 (EB) Zuzentarauaren, trenbide-segurtasunari buruzkoaren (2024.11.14ko EBAO L, 2024/90726), akatsen zuzenketa.

Itsasoko garraioa
■ Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2024/3017 (EB) Zuzentaraua, 2024ko azaroaren 27koa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2009/18/EE Zuzentaraua aldatzen duena. Zuzentarau horrek itsas garraioaren sektoreko istripuen ikerketa arautzen duten funtsezko printzipioak ezartzen ditu, eta Batzordearen 1286/2011 (EB) Erregelamendua indargabetu (2024.12.06ko EBAO L, 2024/3017).
■ 2024/3099 (EB) Zuzentaraua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, 2024ko azaroaren 27koa, portua zuzentzen duen estatuak itsasontziak kontrolatzeari buruzko 2009/16/EE Zuzentaraua aldatzen duena (2024.12.16ko EBAO L, 2024/3099).

Iturria: Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala

Laburpen Exekutiboa	0
Esparru Orokorra	1
Bilakaera Orokorra	2
Errepide Bidezko Garraioa	3
Tren Bidezko Garraioa	4
Aire Bidezko Garraioa	5
Itxaso Bidezko Garraioa	6
Beste Garraiobide Batzuk	7
Ondorio eta Joera Nagusiak	8
Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria	9
Funtsezko Adierazleak	10
Eranskinak	11



b) Erregelamenduak



Errepideko garraioa

- Batzordearen 2024/1886 (EB) Betearazpen Erregelamendua, 2024ko uztailaren 10ekoa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 165/2014 (EB) Erregelamendua aplikatzeko xedapenak ezartzen dituen, erregistratutako datuak aztertzeko eta takografoak egiaztatzeko kontrolatzaileen hasierako prestakuntzaren eta prestakuntza jarraituaren edukiari dagokionez (2024.07.11ko EBAO L, 2024/1886).

Trenbideko garraioa

- Batzordearen 2024/949 (EB) Betearazpen Erregelamendua, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021/782 (EB) Erregelamenduak xedatutakoa betez treneko bidaiarietara atzerapenengatik, loturak galtzeagatik eta trenbide-zerbitzuak bertan behera uzteagatik egin eta eman beharreko itzulketa- eta kalte-ordainen eskaerarako formulario komuna ezartzen duena (C/2024/1851 amaierakoa).

Itsasoko garraioa

- Batzordearen 2024/2027 (EB) Betearazpen Erregelamendua, 2024ko uztailaren 26koa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2023/1805 (EB) Erregelamenduaren arabera egiaztapen-jardueretara buruzkoa, itsas garraioan erregai berriztagarriak eta erregai hipokarbonikoak erabiltzeko buruzkoa, eta 2009/16/EE 8 Zuzentaraua aldatzen duena. (2024.07.29ko EBAO L, 2024/2027).

Aireko garraioa

- Batzordearen 2024ko maiatzaren 3ko 2024/1255 Betearazpen Erregelamendua (EB), 2015/1998 Betearazpen Erregelamendua (EB) aldatzen duena, aireko segurtasunerako oinarritzko arau komunak aplikatzeko neurri zehatzei dagokienez (2024.05.06ko EBAO L, 2024/1255).
- Batzordearen 2024/2076 (EB) Betearazpen Erregelamendua, 2024ko uztailaren 24koa, 1178/2011 (EB) eta 965/2012 (EB) erregelamenduak, gurutzaldietako errelebo-kopilotuei aplikatu beharreko betekizunak argitzea, lizentziak emateko eta hegaldi-tripulazioaren mediku-ziurtagiria emateko betekizunak eguneratzeak eta abiazio orokorra hobetzeak buruzkoak aldatzen dituen (2024.07.25eko EBAO L, 2024/2076).
- Batzordearen 2024ko azaroaren 29ko 2024/2954 Betearazpen Erregelamendua (EB), 2015/640 Erregelamendua (EB) aldatzen duena; zehazki, aireko nabigaziorako baldintza gehigarri berriak txertatzen ditu (2024.12.2ko EBAO, L 2024/2954).
- Batzordearen 2024/3137 Betearazpen Erregelamendua (EB), 2024ko abenduaren 13koa, 474/2006 Erregelamendua (EB) aldatzen duena, Europar Batasunaren barruan ustiatzea debekatuta dauden edo murrizketen mende ustia daitezkeen aireko konpainien zerrendari dagokionez (2024.12.16ko EBAO, L 2024/3137).

Iturria: Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala

11.1.2 Espainiako estatuko legediaren berrikuntzak

Laburpen Exekutiboa	0
Esparru Orokorra	1
Bilakaera Orokorra	2
Errepide Bidezko Garraioa	3
Tren Bidezko Garraioa	4
Aire Bidezko Garraioa	5
Itxaso Bidezko Garraioa	6
Beste Garraiobide Batzuk	7
Ondorio eta Joera Nagusiak	8
Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria	9
Funtsezko Adierazleak	10
Eranskinak	11

Errepideko garraioa

- 2024ko ekainaren 4ko 518/2024 Errege Dekretua; horren bidez aldatzen da 2022ko urriaren 25eko 902/2022 Errege Dekretua, autonomia-erkidegoei eta Ceuta eta Melilla hiriei zuzeneko laguntzak ematea onartzen duena, bidaiariak errepide bidez garraiatzen dituzten garraio-enpresa pribatuak eta merkantzien errepide bidezko garraioan parte hartzen duten enpresa pribatuak modernizatzeko, Europar Batasunak Next Generation EU funtsen bidez finantzatutako Suspertze, Eraldaketa eta Erresilientzia Planaren baitan. (BOE-A-2024-11378).
- 613/2024 Errege Dekretua, 2024ko uztailaren 11koa, Lurreko Garraioen Antolamendu Legearen Erregelamendua onartzen duen 1990eko irailaren 28ko 1211/1990 Errege Dekretua aldatzen duena. (BOE-A-2024-13421).
- 1020/2024 Errege Dekretua, 2024ko urriaren 8koa, Zaragoza, Burgos, Mollet del Vallès, Arrasate, Oiartzun, Hernani, Zarautz, Algeciras eta Puente Genileko udalei eta Iruñerriko Mankomunitateari hiri-garraio publiko kolektiboaren jasangarritasunerako zuzeneko dirulaguntzak ematea arautzen duena. (BOE-A-2024-20400).
- 1176/2024 Errege Dekretua, azaroaren 28koa, Bizkaiko Garraio Partzuergoari hiri barruko eta hiri arteko garraio publiko kolektiboaren jasangarritasunerako zuzeneko dirulaguntzak ematea arautzen duena. (BOE-A-2024-24844).
- TRM/957/2024 Agindua, 2024ko irailaren 6koa, Interes orokorreko trenbide-sareko bidaiarien garraiorako trenbide-geltokiak izendatzeko irizpideak eta horiek zehaztu eta aldatzeko prozedura ezartzen dituen. (BOE-A-2024-18469).

Trenbidezko garraioa

- 368/2024 Errege Dekretua, 2024ko apirilaren 9koa, Euskal Autonomia Erkidegoari aldiriko trenen bidezko bidaiarien garraio-zerbitzuei dagozkien Estatuko Administrazioaren eginkizunak eskualdatzen dituena. (BOE-A-2024-7807).
- 249/2024 Errege Dekretua, 2024ko martxoaren 12koa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2021eko uztailaren 7ko 2021/1187 (EB) Zuzentarauaren transposizioa garatzen duena. Zuzentaru hori Europa barneko garraio-sarea (RTE-T) egiteko lanetan aurrera egin ahal izateko neurriak arrazionalizatzeari buruzkoa da (BOE-A-2024-4862).
- 1119/2024 Errege Dekretua, azaroaren 5koa, Erreterriko Udalari Lezo-Erreterria geltokian disuasio-aparkalekua egiteko zuzeneko dirulaguntzak ematea arautzen duena. (BOE-A-2024-22930).
- TRM/975/2024 Agindua, 2024ko irailaren 10koa, Trenbideen Operazio Segurtasuneko Urteko Plana prestatzen duena. (BOE-A-2024-18617).
- 2024ko abuztuaren 7ko Ebazpena, Trenbide Segurtasuneko Estatu Agentziarena, honako honen araudi mailako erreferentziak eguneratzen dituena: «Trenbidearen instrukzioa: unitate autopropultsatua, tren-makinak eta bagoiak zerbitzuan jartzeko trenbidezko material gurgildunaren espezifikazio teknikoak (IF MR ALC-20)». (BOE-A-2024-26471).

Itsasoko garraioa

- 2024ko martxoaren 6ko Ebazpena, Bilboko Portuko Agintaritzarena, eskumenak eskuordetzeari buruzkoa. (BOE-A-2024-4759).
- 2024ko uztailaren 24ko Ebazpena, Estatuko Portuena, Kontseilu Errektorearen Erabakia argitaratzen duena. Erabaki horren bidez, Bilboko Portuko, Punta Lucero eta AZ0 kaiko guneen eta portu-erabilaren mugaketan funtsezkoa ez den aldaketa onartzen da. (BOE-A-2024-16569).
- 2024ko uztailaren 24ko Ebazpena, Estatuko Portuen Erakunde Publikoarena, Interes orokorreko portuetan salgai arriskutsuak manipulatzeko prestakuntza-ikastaroari buruzko programetan babes-modulu bat sartzei buruzkoa. (BOE-A-2024-17918).



Laburpen
Exekutiboa

0

Esparru
Orokorra

1

Bilakaera
Orokorra

2

Errepide
Bidezko
Garraioa

3

Tren
Bidezko
Garraioa

4

Aire
Bidezko
Garraioa

5

Itxaso
Bidezko
Garraioa

6

Beste
Garraiobide
Batzuk

7

Ondorio
eta Joera
Nagusiak

8

Helburuak eta
Mugikortasun
Jasangarria

9

Funtsezko
Adierazleak

10

Eranskinak

11

Aireko garraioa

- Aireko eta Itsasoko Garraioaren Idazkaritza Nagusiaren Ebazpena, 2024ko urtarrilaren 17koa, Abiazio Zibilaren Segurtasun Programa Nazionalaren zati publikoaren eguneraketa onartzen duena. (BOE-A-2024-1659).
- Abiazio Zibileko Zuzendaritza Nagusiaren Ebazpena, 2024ko azaroaren 29koa, merkantzia arriskutsuak airez modu seguruan garraiatzeko Jarraibide Teknikoak argitaratzen dituenak. (BOE-A-2024-26051).

Iturria: Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioa.

11.1.3 EAEko legediaren berrikuntzak



1. Errepideko garraioa

- 58/2024 DEKRETUA, maiatzaren 7koa, zeinaren bidez deklaritzen baita ezen, Debako Udalerrian, Gipuzkoako Foru Aldundiak, nahitaez desjabetzeko, urgentziaz okupatu behar dituela Itziar-Deba enpresa-parkerako sarbidea hobetzeko proiektua –Kanalako bihurgunea aldatzea, GI-3210 errepideko 0,200 Kpan– (1-EM-19/2023) gauzatzeko ondasun eta eskubideak. (EHAA 98. zk. 2024ko maiatzaren 21a, asteartea)
- EBAZPENA, 2024ko irailaren 17koa, Trafiko zuzendariarena, zeinaren bidez aldatzen baita 2024ko otsailaren 20ko Ebazpenaren V. eranskina; ebazpen horrek 2024. urtean Euskal Autonomia Erkidegoko trafikoa arautzen duten neurri bereziak ezartzen ditu, Salgai Arriskutsuen Ibilbideen Sarean (SAIS) Gipuzkoako lurraldeko bide-tarte gehiago sartzeko. (EHAA 189. zk. 2024ko irailaren 27a, ostirala)
- EBAZPENA, 2024ko irailaren 26koa, Trafiko zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko bide-sarean irudiak grabatzeko eta erreproduzitzeko gailuak, zinometroen osagarri, instalatzea eta erabiltzea baimentzen duena, trafikoaren kontrol, erregulazio, zaintza eta diziplinarako. (EHAA 198. zk. 2024ko urriaren 10a, osteguna)
- 491-C/2024 FORU AGINDUA, 2024ko azaroaren 27koa, Bide Azpiegituretako eta Lurralde Estrategiako Departamentuko foru diputatuarena, jendaurrean jartzeko izapidea ebazten duela eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren errepideetako zarataren aurkako ekintza plana (4. fasea) onartzen duela. (EHAA 247. zk. 2024ko abenduaren 20a, ostirala)
